

Hegats

Literatur aldizkaria

19/20



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

Lirio gur e dizkeria



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

IDAZKUNTZA-KONTSEILUA

Burua: Andolin Eguzkitza
Kideak: Iban Zaldua
Jerardo Elortza
Maite Gonzalez Esnal

Diseinua: Txema Aranaz
Maite Gonzalez Esnal

Maketa: Lamia
Curia, 25-sotoa, 31001 Iruña

Euskal Idazleen Elkartea

Zurriola hiribidea, 14-1. ezk.
20002 Donostia
Tfa.: 943-27 69 99. Faxes: 943-27 72 88
P.E.: eic@altavista.net

ISSN: 1130-2445

L.G.: Na-359/90

Literaturbideak:

Bukowski. <i>Lau poema</i>	9
Itziar Laka. <i>Rosario Zubikarairen jaiotzaz</i>	26
Inazio Mujika. <i>Emakumeen lur ezkutua</i>	45

Kritikabideak:

Antton Luku. <i>Bidaia literaturan</i>	49
--	----

Itzulpengintzaz:

Tere Irastortza. <i>Itzulpenaren norabideak eta noragabeak</i>	69
Xipri Arbelbide. <i>Itzulpengintzaren ateka eta autobideak</i>	74
Juan Mari Irigoien. <i>Itzulpenaz eta hartaz</i>	83
J. K. Igerabide. <i>Itzulpena: kulturaren sintesi-bide</i>	99

Topa-hitzak:

Arantza Urretabizkaia	111
Edorta Jimenez	112
Enkarni Genua	114
Juan Mari Irigoien	116
Juan Mari Lekuona	119
P. Xarriton	120

Liburu-iruzkinak:

TONY HILLERMAN. <i>Tony Hillermanen Navaho Jim edo basamortuan ere bada itxaropena</i> . Anuntzi Arana	125
INGEBOR BACHMANN. <i>Tres senderos hacia el lago</i> . Begoña Muruaga	136
JUAN BAUTISTA ELGEZABAL «Batxi». Edorta Jimenez	140
JON ARRETXE. <i>Ostegunak</i> . Iban Zaldúa	144
FÉLIX DE AZÚA. <i>Historia de un idiota contada por él mismo</i> . Jon Alonso	147

Literaturbideak



Bukowski
Inazio Mujika
Itziar Laka

CHARLES BUKOWSKI

Bost poema

Itzultzailea:
Josu Iartategi

AND THE MOON AND THE
STARS AND THE WORLD:

*long walks at
night...
that's what's good
for the
soul:
peeking into windows
watching tired
housewives
trying to fight
off
their beer-maddened
husbands.*

ETA ILARGIA ETA IZARRAK
ETA MUNDUA:

ostera luzeak
gauean...
horixe da ona
primerakoa
arimarako:
ixil-ixilik leihoetatik ikusmiran
so
etxeakoandre unatuei
eginahalean dabiltzanak
euren senar
zerbezak-senetik-aterreengandik
libratzeko.

THE SWANS WALK MY BRAIN
IN APRIL IT RAINS

*would you have me peel an orange and
talk of Saavedra (Miguel de) Cervantes?
get out! you are like that fly on the
curtain.*

*I am not liked in the marketplace.
I do not smile at the children.
I am not interested in the doings of
armies.
I drink at fountains until my eyes
stick out like ripe berries.
I stink under the armpits and do not
shine my shoes.
I do not own
anything.*

*I understand little but my
misuse.
I understand only horror and
more horror.*

*I cannot rhyme.
I am too tired to
steal.
I listen to Segovia
smile.
I look at a hog's head and
am in
love.*

ZISNEAK OSTERAKA BURMUINEAN
EURITAN APIRILEAN

ZURITUKO al zenidake laranja bat eta
Saavedra (Miguel de) Cervantes hizpidera ekarri?
utikan! gortinako euli horren
modukoa zara.

ez naukate gustuko azokan.
ez diet irribarrerik eskaintzen umeei.
ez nago interesaturik armaden
egiteetan.
iturrietatik edaten dut begiak
masusta umoak legez lehertzen zaizkidan arte
nire besapeei hatsa darie eta
ez diet zapatei distira ateratzen.
ez naiz ezeren
jabe.

gutti ulertzen dut neure
bizi-usadio okerreiz gain.
izua eta izu are latzagoa
besterik ez dut ulertzen.

ezin dut errimarik osatu.
ahituegi nabil
ezer lapurtzeko.
Segovia entzuten dut
irriz.
urde baten buruari behatu eta
maiteminetan
naiz.

*I walk I walk a
hymenotomy of a
man... o
sweet things of this time
where are you?*

*you must find me now for I am
terrified with what I
see!*

*the dungeons sweep past lit with
eyes. eyes? magma!
I enter a shop and buy wine from a
dead man
then walk away under a sky overflowing
with pus. the hunters cough
on the benches.*

I walk...

5 DOLLARS

*I am dying of sadness and alcohol
he said to me over the bottle
on a soft Thursday afternoon
in an old hotel room by the train depot.*

*I have, he went on, betrayed myself with
belief, deluded myself with love
tricked myself with sex.*

osteraka nabil osteraka
gizon baten
himenotomia... oi
sasoiko gauza goxook
non zaudete?

topatu behar nauzu orain
ikarak jota bainago
ikusten ari naizenarekin!

harat-honat dabilzkit aitzinean
hainbat begik txispatutako ziegak. begiak? *magma!*
denda batera sartu eta ardoa erosi diot
gizon hil bati
gero banoa urrun zornez jositako
zerua lagun. ehiztariek eztul egiten diete
bankuei.

osteraka nabil...

5 DOLAR

ALKOHOLEZ eta tristuraz hiltzen ari nauk
esan zidan botilaren gainetik
ostegun arrats leun batez
hotel zahar bateko gelaskan trentegiaren ondoan.

traizio egin zioat, jarraitu zuen, neure buruari
fedarekin, iruzur egin neure buruari maitasunarekin
ziria sartu neure buruari sexuarekin.

*the bottle is dammed faithful, he said,
the bottle will not lie.*

*meat is cut as roses are cut
men die as dogs die
love dies like dogs die,
he said.*

*listen, Ronny, I said,
lend me 5 dollars.*

*love needs too much help, he said.
hate takes care of itself.*

just 5 dollars, Ronny.

hate contains truth. beauty is a facade.

I'll pay you back in a week.

*stick with the thorn.
stick with the bottle
stick with the voices of old men in hotel rooms.*

*I ain't had a decent meal, Ronny, for a
couple of days.*

*stick with the laughter and horror of death.
keep the butterfat out.
get lean, get ready.*

*something in my gut, Ronny, I'll be able
to face it.*

*to die alone and ready and unsurprised,
that's the trick.*

demonio leiala duk botila, esan zuen,
botilak ez dik iruzur egingo.

arrosak mozten dituzten legez mozten ditek haragia
zakurrak hiltzen diren legez hiltzen dituk gizonak
zakurrak hiltzen diren legez hiltzen duk maitasuna,
esan zuen.

aizak, Ronny, esan nuen,
utzizkidak 5 dolar.

maitasunak laguntza handiegia behar dik, esan zuen.
gorrotoa berriz, bera bakarrik moldatzen duk.

5 dolar baino ez, Ronny.

gorrotoak bere baitan dik egia. edertasuna itxura duk.

itzuliko dizkiat astebetean.

zizt arantzarekin
segi botilarekin
segi zaharren ahotsekin hoteletako gelasketan.

ez diat janari duinik izan, Ronny, egun
pare batean.

segi heriotzaren barre eta lazturarekin.
erne gantzekin.
zail hadi, presta hadi.

zerbait sabelean, Ronny, aurre egiteko gai
izango nauk.

bakarka eta prest eta harritu gabe hiltzea,
horixe duk trikimailua.

Ronny, listen

*that majestic weeping you hear
will not be for
us.*

I suppose not, Ronny.

*the lies of centuries, the lies of love,
the lies of Socrates and Blake and Christ
will be your bedmates and tombstones
in a death that will never end.*

*Ronny, my poems came back from the
New York Quarterly.*

*that is why they weep,
without knowing.*

*is that what all that noise is, I said,
my god shit.*

THE SANDWICH

*I walked down the street for a submarine
sandwich
and this guy pulled out of the driveway
of The Institute of Sexual Education
and almost ran over my toes
with his bike;
he had a black dirty beard*

Ronny, aizak...

entzuten duan lantu handios hori
ez duk izango
guretzat.

ezetz esango nikek, Ronny.

mendetako iruzurrak, maitasun-iruzurrak,
Sokrates eta Blake eta Kristoren iruzurrak
ohekide eta hilarri izango dituk
inoiz amaituko ez den heriotzan.

Ronny, poemak bihurtu zizkidatek
New York Quarterly-tik

horrexegatik zabiltzak gizon-emakumeak lantuka,
jakin barik.

eta horrexetara mugatzen duk kontu guztia, esan nuen,
kauen dios.

OGIARTEKOA

KALEAN behera nindoan
ogitarteko baten bila
eta hara non morroia trostan irteten den
Hezkuntza Sexualerako Institutuko bidetik
eta ia-ia nire behatzak zangopilatu
bizikletaren gurpilek;
bizar beltz zikina zuen

eyes like a Russian pianist
and the breath of an East Kansas City whore;
it irritated me to be almost murdered by a
fool in a sequin jacket;
I looked upstairs an the girls sat in their chairs
outside their doors
dreaming old Greta Garbo movies;
I put a half a buck into one of the paper racks
and got the latest sex paper;
then I went into the sandwich shop
and ordered the submarine
and a large coffee.
they were all sitting in there talking about
how to lose weight.
I asked a sideorder of
french fries.
the girls in the sex paper ads
looked like girls in sex paper ads.
they told me not to be lonely
that they could fix me up:
I could beat them with chains or whips
or they could beat me
with chains or whips, whichever way
I wanted it.
I finished, paid up, left a tip,
left the sex paper on the seat.
then I walked back up Western Avenue
with my belly hanging out over
my belt.

errusiar pianojole baten moduko begiak
eta East Kansas City-ko puta baten arnas-hatsa;
sutu egin ninduen xafla-jakaz jantzitako ergel bategatik
ia asesinatua izateak;
goiko solairura begiratu nuen eta neskak euren aulkietan eserita
ateaz kanpoaldean
Greta Garboren filme zaharrekin ametsetan;
aldizkariaren apaletarik batean dolar-erdia utzi
eta azken aldizkari pornoa hartu nuen;
gero tabernara joan
eta ogitarteko
eta kafe handi bat eskatu nituen.
hortxe zeuden guztiak jezarrita
pisua galtzeko moduei buruz berriketan.
patata fritatuzko plater bat
eskatu nuen laguntzeko.
aldizkari pornoaren iragarkietako nesken
itxura aldizkari pornoen iragarkietako neskena zen.
esaten zidaten bakarka ez ibiltzeko
niretzako zita antolatzea bazeukatela:
jipoi nitzakeen kateez edo zartailuz
edo haiek jo nintzaketan
kateez edo zartailuz, nik nola nahiago
halaxe.
amaitu, ordaindu, eskupekoa utzi,
eserlekuan aldizkari pornoa utzi nuen.
gero atzera igo nuen Western Avenue
sabela aterata eta zintzilik
gerrikoaren gainetik.

LIKE A FLOWER IN THE RAIN

*I cut the middle fingernail of the middle
finger
right hand
real short
and I began rubbing along her cunt
as she sat upright in bed
spreading lotion over her arms
face
and breasts
after bathing.
then she lit a cigarette:
"don't let this put you off",
and smoked and continued to rub the
lotion on.
I continued to rub the cunt.
"You want an apple?" I asked.
"Sure", she said, "you got one?"
but I got to her...
she began to twist
then she rolled on her side,
she was getting wet and open
like a flower in the rain.
then she rolled on her stomach
and her most beautiful ass
looked up at me
and I reached under and got the
cunt again.
she reached around and got my
cock, she rolled and twisted,
I mounted*

LORE BAT BEZALA EURIPEAN

ATZAMARRAREN azkazal erdia ebaki nuen hatz
luzekoa
eskuin eskukoa
zinez labur
eta haren aluari xirri-mirriak egiten hasi
bera ohean jarrita zegoela
krema ematen besoetan
aurpegian
eta bularretan
bainuaren ostean.
orduan zigarro bat piztu zuen:
“segi horrela, ez utzi”,
eta erretzen jarraitu zuen eta krema
ematen.
nik aluarekin xirri-mirrika jarraitu nuen.
“Nahi al dun sagar bat?” galdetu nion.
“Bai noski” esan zuen “hik jan al duk bat?”
ordea nik bera jan nuen...
jira-biraka hasi zen
gero albo batera etzanda jarri zen,
hezeagotzen eta zabaltzen ari zitzaidan
lore bat bezala euripean.
gero azpikoz gora jarri zen
eta bere ipurdi ezin ederragoa
zutituz joan zen nire aurrean
eta nik azpitik arretaz miatu eta
berriro luzatu nuen eskua aluaraino.
besoa luzatuz txorta-txortatik oratu
zidan, jiratu egin zen eta itzulika hasi,
zalditan jarri nintzaion

*my face falling into the mass
of red hair that overflowed
from her head
and my fattened cock entered
into the miracle.
later we joked about the lotion
and the cigarette and the apple.
then I went out and got some chicken
and shrimp and french fries and buns
and mashed potatoes and gravy and
cole slaw, and we ate. she told me
how good she felt and we ate
the chicken and the shrimp and the
french fries and the buns and the
mashed potatoes and the gravy and
the cole slaw too.*

THE KNIFER

*you knifed me, he said, you told Pink Eagle
not to publish me.
oh hell, Manny, I said, get off it.*

*these poets are very sensitive
they have more sensitivity than talent,
I don't know what to do with them.*

ene aurpegia burua inguratzen zion ile-gorri anabasan barrena
galduz
eta ene txorta tentetua
mirarian barrena sartuz.
geroago txantxak egin genituen kremari
eta zigarroari eta sagarrari buruz.
gero kalera joan nintzen eta erosi oilaskoa
eta ganbak eta patata fritatuak eta opiltxoak
eta purea eta saltsa eta
aza-entsalada, eta jaten hasi ginen. berak azaldu zidan
zeinen gustura zegoen eta nik azaldu nion
zeinen gustura nengoen eta jan egin genituen
oilaskoa eta ganbak eta
patata fritatuak eta opiltxoak eta
purea eta saltsa
baita aza-entsalada ere.

LABANARIA

LABANA sartu didak, esan zidan gizonak, esan diok *Pink Eagle*-ri
ni ez argitaratzeko.
tira, Manny, esan nuen, ahaztu hori.

poeta horiek sentiberak dira oso
badute sentsibilitate gehiago talentoa baino,
ez dakit zer egin haiekin.

*just tonight the phone rang and
it was Bagatelli and Bagatelli said
Clarsten phoned and Clarsten was pissed
because we hadn't mailed him the
anthology, and Clarsten blamed me
for not mailing the anthology
and furthermore Clarsten
claimed I was trying to do him
in, and he was very
angry. so said
Bagatelli.*

*you know, I'm really beginning to feel like
a literary power
I just lean back in my chair and roll cigarettes
and stare at the walls
and I am given credit for the life and death of
poetic careers.
at least I'm given credit for the
death part.*

*actually these boys are dying off without my
help. The sun has gone behind the cloud.
I have nothing to do with the workings.
I smoke Prince Albert, drink Schlitz
and copulate whenever possible. believe in my
innocence and I might consider
yours.*

gaur gauean telefonoak jo du eta
Bagatelli izan da eta Bagatellik esan du
Clarsten-ek telefonatu diola eta Clarsten beroturik dagoela
antologia bidali ez diogulako
postaz, eta Clarstenek errua bota dit
antologia bidali ez diogulako postaz
eta gainera Clarstenek
ziurtatu du saiatzen ari nintzela bera
zirikatzen, eta haserre zegoen
oso. horixe esan du behintzat
Bagatellik.

begira, benetan sentitzen hasi naiz
literatur jainko bat bezala
besterik gabe aulkian tripaz gora etzan eta zigarroak bildu
eta hormetara begira nago
eta lizentzia zait karrera poetikoei
bizitza eta heriotza opaltzea
gutxienez lizentzia zait
heriotza kontua opaltzea.

izan ere mutilok bertan hiltzen ari dira nik
lagundu barik. Eguzkia hodeiaren atzetik joan da.
nik ez dut zerikusirik gauzokin.
nik Prince Albert erretzen dut, Schlitz edan
eta kopulatu ahal den guztietan. sinestu nire
errugabetasunean eta nik agian gogoan hartuko dut
zurea.

I

«Portzelana fiña ematen du arpegiak, ez da ba?» txutxumutxu, beltzez, atso batek. «Neska polittik bazen, berau zen polittena-eta» haren lagunak, kandela-argi arteko itzal dadartian. Manuelak ez die ahotsaz erantzuten; buruari makur bat eginda hartzen ditu kontsolamenduzko hitzok. Kutxari begiratzen dio, soa gorpuaren begi zarratuetan tinko. «Nobizia gaztea ematen du, begiratu egio-zu azalaren leunari», hirugarren batek.

Manuelak ez du atzera begiratzen nor den jakiteko. Aurrera begira jarraitzen du, kutxa barruan etzanik duen bere loba gazteak esnatzeko keinurik egingo ote... Ezina dela jakin arren, hantxe jarraitzen du Manuelak jezarrita, begi zarratuak noiz ireki zain, ezpain geldiek noiz zirkin egin, bularrean gurutzatutako eskuak noiz mugi... Atsekabeak ez dio besterik baimentzen, ez hitzik, ez malkorik, ez auhenik. Kutxa mugitzen ez duten bitartean, denborak ez du aurrera egingo. Denborak aurrera ez egin artean, Tere-sari euts diezaioke, bere gorputz ederra lurrak usteldu eta sekulako eramango duela pentsatu gabe.

Orduek aurrera jo ahala sartu-irtenak egiten dituzten bisitarien esanek belarrietatik laban egiten diote, zentzurik gabeko marmar xuxurlatuak baino ez dira. Igarotako ordu luzeotan egin dizkieten laztanak koipea bezala isurtzen zaizkio gorputzean behera. Ez dago Manuelaren bihotzerako aringarririk. Ez du nahi. Ez du behar. Begirada iltzaturik dauka gorpuaren begitartean, bizitzaren hatsa hara noiz itzuliko zain. Begiak luzaroan itxi ezean, kutxan datzan Teresa maiteak, bihotzeko Teresa kuttunak zirkin egin duela begitandu izan zaio behin edo behin. Gela argitzen duten kandelen argi ikaratiaren iruzurra dela jakinik ere, nahiago du Manuelak kutxaren aurrean jezarrita jarraitzea, gertatuko ez denaren zain. Beilan, sikira Teresaren heriotza onartu beharrik eza da Manuelak bilatzen duen babesia.

«Teresa bihotza, Teresa kuttuna», errepikatzen du bere baitan, inguruko ahotsak estali nahi dituen letania setatian, gela inguruko emakume beilariak otoitzean diharduela uste badute ere. Manuela Teresari eusten ari zaio, ez dio berehala alde egiten utzi nahi haren arimari, ez azken agurrik egin gabe behintzat.

Apaizari galdetu dio arratsean, azken sakramentuak ematera etorri denean, ea arimak zehazki noiz uzten duen haragizko gorputza. Baina Don Bernardok ez dio erantzunik eskaini, eta horren beharrez, errukiaz eta zeruetako betiko zorionaz aritu izan zaio, bere eskuak haren esku artean lotuta, bigunki.

«Bai jauna, Teresak zeruko atearak zabalik aurkituko ditu, horrek ez nau larritzen behintzat. Halabaina, jakinmina badut eta, noiz uste du berorrek irteten dela arima gorputzetik: hiltzeko mementuan bertan, hatsa joatean, ala bihotzaren taupadak gelditu ondoko orduetan?» galdetu dio. «Eliza Ama Santuak zer dio honen gainean?», osteria ere, eskuak apaizaren eskuen artetik askaturik. Alferrik. Don Bernardo ez omen teologia kontuetan zale-tuegi, Jaungoikoaren bide izkutuen aurrean erakutsi beharreko

apaltasuna ekarri baitio harira hurrengo, eskumako besoa sorbaldatik igarotzen ziolarik.

Arimaren arazoak berebiziko garrantzia du baina. Horrek sortzen dion kezka darabil Manuelak samin-altxagarri, zauri txiki bateko minak oinaze handiagoak makal ditzakeen erara. Beldur da Teresaren arimak ez ote duen etxe-bazterretan gelditzea nahia-go izango. Beraz, beila hasierako orduetan lobarekin berarekin argitu nahi izan ditu kontuak: «Baliteke, Teresa, zure gorputz odolustutik alde egiteko gogorik ez izatea. Neure artean banago ez duzula haragia utzi oraindik» esan dio, ez tiro. «Apaiz jaunak ez omen daki arimak noiz egiten duen zerura alde. Nik neuk baina, neure kontuak atera ditut: arratsean hil zara zu eta, kanposantuko arimak gauzez bakarrik ibili ohi dira agerkerietan. Eguna argitu artean gurean ibili beharko zure arimak bada, hemen aterpe hartuta. Goizaldean izango dituzu zerurantz hegaldaka abiatzeko indarrak». Pentsamendu honek nahigabearen hotza epeldu dio, irribarño batean. «Badakit, beraz, bertan zarela egunsentirarte, Teresa, beilak iraun artean behintzat, neure bihotzeko kuttuna».

Izan ere, lobaren arima ikusi nahiak lotzen du Manuela kutxa aurreko aulkira. Inoiz, hilberrien arimak, ikusteko moduan ager zitezkeela irakatsi zion Maria Zaharrak, batik bat bizirik behar luketen gaixoenak. Eta Teresak bizirik behar zuena ez zuen Manuelak dudatan jartzen, Jaungoikoaren bide izkutuak gorabehera. Arima ikusgarriarik bazen inon, Teresarenak izan behar, Teresak bizirik behar baitzuen, gau hartan, bizirik eta atsedenean lo, alabatxo jaioberria bularrean zuela.

* * *

«Sartu biezaio barrura jauna! Sartu biezaio bada, umontzia da eta!» Odoletan joan zitzairen. Teresa bizirik egongo litzateke, medikua etorri izan ez balitz.

Haurgintza minak goizean agertu zitzaizkion, poliki, gero eta indartsuago eguerdi aldera. Teresa trankil zegoen, eskaratzeko aulki batean, Manuelaren ondoan, eta elkarrekin igaro zuten eguna, tarteka kontu-kontari, larrialdiak zetozenean eskuak helduta. Minak handiagora zihoazela igerri zuen Manuelak Teresa-ren aurpegia ikusita, kanpandorreak eguerdia jo zuenean, eta Maria Zaharrari etortzeko abisua eman ziezaioten eskatu zion hauzoko Galarreneko alargunari. Gero, Tomasen agindua gogoraturik, Perrariari bidali zion hitza, mediku jaunaren bila abia zedila, Markinara.

Ordurarteko kontu eta ipuinak alde batera utzirik, itsasoaren indarrak mintzatzen hasi zitzaion lobarri, eztiki: «Badakizu nola etortzen diren ekaitzak udazkenean, laztana: itsasoa harrotu egiten da eta, denbora luzean danbadaka iharduten du, olatu handiak eginaz, mollako harrien kontra, hondartzako haitzen kontra, hondarra guztiz estaldu arteraino. Halako batean baina, ekaitzak indarra galtzen du, eta barealdia etorri ohi da». Teresak buruarekin egin zion baietz, baietz.

«Bada, ekaitzak betirako ez diren moduan, erditze-lanek ere badute amaiera bat, Teresa, eta ekaitza amaitzen denean eguzkiak bazter guztiak baretzen dituen modura, holaxe zure erditze-lanak amaitzean, sabelean daramazun umetxoia besoetan izango duzu.» Teresaren eskuek haragia estutu zioten indarrez, eta begiak zarratu zituen, minaz. Manuelak lasaitasunezko hitzak isurtzen zitzaion, larriaren ondoko barealdiaren zain.

«Gogoratzen zara, bihotza, nola ibili ginen behin Arriola osteko haitzetan igeritan?» Baietz Teresak, berriro, buruarekin. «Uretan sartuta geundela, galerna itzela ekarri zuen, eta itsaso barrone-

rantz jo behar izan genuen, olatuek haitzetara eraman ez gintzaten, gogoratzen zara, ez da ba?» Manuelak, xamurtasunez, oroimeneko irudiek oinazeak ematuko zizkiotelakoan.

Teresak hamar bat urte baino ez zituen orduan, eta Manuelak inori ezer esan gabe eraman zuen igeri egitera. Izkutuan egin behar zen hau, eurak bezalako familia oneko andereñoek ezin baitzuten igeritan egin, ez behintzat hondartza aldean, denen begi bistan. Igeri egiteko, Arriola osteko haitzetara joan ohi zen Manuela, bakarrik, aldapan behera zihoan bidezidor bat hartuta, haitzartean irekitzen zen hondar zabalditxo batera. Han erropak eta gerruntzea kendu eta, barruko alkondara eta pantaloiak soinean zituela sartzen zen uretara. Teresak hamar urte bete zituenean, hondartzan igeritan ibiltzea debekatu zioten etxean, koskortuegi omen zela eta, holako umekerietan ibiltzeko. Egunak eman zituen negarrez, uretara nahi zuela deiadarrez, eta andereño gazte bat zela errepikatzen ziotenean, lasaitu beharrean, areago oldartzen ziren Teresaren negarrak. Azkenean, Manuelak ahopeka esan zion: «Neuk eramango zaitut igeritan, Teresa, baina ez inori ezer esan, aditu? Laga negarrok eta deiadarrok, zintzo-itxurak egin eta kalerako aitzakiaren batekin alde egingo dugu biok, neuk bakarrik dakidan leku batera». Arratsalde hartan joan ziren bada, etxean hariak eroatera zihoazela esanda.

«Bada irudika ezazu uretan gaudela, Teresa, Arriola osteko haitzetan. Irudika ezazu egun hartako galerna hark harrapatu gaituela osterera ere, eta haitzetatik ihes eginda itsas barrenerantz igeri egin behar izan dugula, maitea. Mina datorrenean, irudika ezazu olatu handi bat, itsas zabaletik datorrena, haitzen kontra dinbi-danba apurtzera. Minean murgilduta zaude, baina olatuaren kontra ezin igeri egin daitekeen legez, ez egiozu minari aurka egin, Teresa. Utzi egiozu minari bere bidea egiten, zure baitan, joan eta etorri.» Teresak begiak zarraturik zeuzkan, izerdizko

lanbro batek bustitzen zuen bere aurpegi gaztea. Manuelaren hitzei adi zegoen, buruari eraginik esaten zion baietz, baietz, holaxe egingo zuela.

«Esaidazu noiz datorren hurrengo olatua, Teresa, eta eskuak elkarki helduta igaroko dugu, galerna hura igaro genuen bezala.» Teresak eskua estutzen zion «Badator, badator» egiten zion hasperen, eta bekokia zimurtu, minaren indarrez. «Utzi egiozu minari zure baitan barrena zabaltzen, bihotza, utzi egiozu, lasai, minak zabalduko baitio umeari bidea. Irudika itzazu kalatxoriak zeruan, txilioka, eta itsasora isurtzen diren euri-tantak, galerna egun hartako ortzadarra, itsas bazterrean galtzen zena.»

Maria Zaharra eguerdi ostean heldu zen etxera, irribarrez, ohi zuen modura. Eskaratzean sartu orduko, belar ebaki berriaren usaina, eta zimaurraren hatsa, biak batera hedatu ziren aidean. Blusaren maukak gorantz bildu, beso gihar beltzaranak agerian utzita, eta eskuak harrian garbitu zituen xaboiak. «Teresa emakumea! Horixe izango da seintxu ederra gaur egingo duzuna! Ez jaramonik egin erditze-minei, ez batere jaramonik egin, trankil, amante!» Bere ahots indartsuak bazter guztiak betetzen zituen. «Hementxe daukazu Maria lagun, Teresa, nahi beste jaiotzetan ibilitako Maria Zaharra!» Hitz egiten zuela, Teresaren aurrean belaunikatu zen, hankak ireki zizkion, eta aluan barrena sartu zituen atzamarrak, sendo, baina begiramenik galdu gabe. «Honaxe! Hona zure seintxuaren burua, Teresa!» Barre-algara ozen batean esan zuen, Teresak ere irribarre egin behar izan zuen, minaren zimurrekin nahasten bazitzaion ere, samina eta poza biltzen zituen keinu bitxi batean. «Modu onean dator, eta bidea ongi irekitzen ari zaizu, Teresa! Trankil, bada, amante, seina ondo dator eta!»

Manuelari begiratu zion Maria Zaharrak, irribarre zabala aurpegitik kendu gabe. Eguzkiak hirurogeita urtetan jotako larruazal

beltzitu tximurraren erdian, begi biziak pozaren ditzira zabaltzen zuten. Maria Zaharrari umeak gustatzen zitzaizkion gehien, erdizte-lanetan laguntzea zen hark gustukoek zuen beharra. «Ederto dator seintxua, Manuela, ederto dator!»

* * *

Gizonen ahotsak entzuten ditu: kutxa eramatera datoz. Beilagelako otoitzen marmarra eten da, bat batean, eta zoladun zapatek behegaina jotzean egiten duten hotsa baino ez da entzuten orain. Inguruko emakumeak altxatu dira, errosarioak eta kandelak eskuetan. Manuelak aulkian jarraitzen du, Teresak azken momentuan itzultzea erabakiko ote.

Gizon bik kutxaren estalkia hartu eta zarratu dute. Egurrak egurraren kontra eztanda egin du, danba, Manuelaren belarrietan. Teresaren gorpua bistatik desagertu ahala, etsipenaren ziztada sentitu du zainetan eta, barrua urtzen ari balitzaio legezko ondoeza.

Kutxak gizonen sorbaldeetara igotzean egiten duen kirrinka, negar-zotina begitantzen zaio Manuelari, eta eramaileen arnasetuen artean, arima galduen intziri mingarriak datozkio nahastuta. Eskuak belarrietara eramaten ditu, burmuina zulatzen dizkioten antsia eta auhen zorrotzak isildu nahiean, baina barruan dauzka, garunak jaten dizkioten har gosetia dira. Kutxa atetik igarotzean, gela hutsik gelditzean, gortzerainoko indarra duten oihu dolugarri horiek guztiek, ildo sakon batean bilduta, eztarria urratzen diote, Manuelak bere bizitza osoan egingo zuen garrasirik ozen eta saminenean.

* * *

Maria Zaharrak beheko sua piztu zuen, behin ere hitzaren jarioa eten gabe: «Ez du hotz handirik egiten, ez, baina seintxu jaioberriak hozkirri izan ohi dira, eskaratza bero edukitzea kome-ni da». Urez betetako lapiko handi bat ipini zuen sutan. «Minak larriagora doazela, izan liteke zutik hobeto egotea, Teresa, edo eskaratzean gora eta behera ibilian. Zuk zeuk ikusi, baina saia zaitetz modurik erosoena aurkitzen.» Teresaren minek handiagora egin zutela argi irakur zitekeen haren betartean. Mariak hatzamar-rak sartu zizkion berriz ere. «Gero ta gutxiago falta da, Teresa, burutxua ikutzen dut erraz asko, eta bidea guztiz irekitzeko ez da asko behar.» Minaldi batek bere igaroa egin ondotik, Teresaren aurpegi izerditua lasaitu egin zen, eta oraindik indarrak gordetzen zituen ahots nekatuaz, «Zenbat falta da, Maria?» «Gutxi, amante, gutxi, egon trankil».

Galarreneko alargunak eskaratzeko atea ireki zuen, urduri samar, barkamenak eskatuz. «Mediku jauna laster helduko dela esan dit Perrariaren seme nagusiak, aita joan zaiola goizean zaldiz abisua ematera eta, gaua baino lehen hemen izango direla.» Eskaratzean sartuta zegoela, laguntza eskaini zien. Maria Zaharrak laudano bila bidali zuen Perrariaren etxera, eta bide batez goraintzi egin zezala bere partez. Teresaren minak goraka zihoazen «Gutxi falta zaizu, amante, horregatik doaz olatuak gora. Gutxi falta zaizu, laster hasiko zaizu seina bultzaka, laster».

Teresa zutik zegoen, eskuak zurezko arasari lotuta. Maria Zaharrak berriketan jarraitzen zuen, Teresaren burua minetatik aldentzeko asmoz. Arratseko orduak ziren jada, eguzkia gorritzen hasia baitzen. Halako batean, Teresak deiadar egin zuen, Manuelaren izena deituz. «Trankil, Teresa, trankil!» atzera erantzun zion Manuelak. «Seintxua bultzaka hasi zaizu, amante, eta zeuk lagundu behar diozu, bultzaka!» gehitu zuen ozenki Mariak, Teresaren txilioen gainetik. «Bultza bada, Teresa!, Bultza emakumea!» Hau

esanda, Maria Zaharrak hankak makurrerazi zizkion, eta berriz ere gogor bultzatzeko agindu, ia-ia abereei gurdia bultzatzeko agintzen zaien modura, hitzak ezezik hotsak oihukatuz. Hasarratu beharrean, baina, Teresak bultzaka ziharduen.

Manuelak atzetik heltzen zion Teresaren bularraldeari, haren gorputzari nolabait eutsirik. Aitzitik, atzekaldetik ezin gauza handirik ikusi. Maria Zaharra belauniko zegoen orain, Teresa makurtuaren aurrean, zertan Manuelak ezin igarri zehazki. «Hementxe, Teresa! Hementxe dator seintxua!» Deidar egin zuen Mariak noizbait, «Bultza bada!». Handik gutxira, dena aldi batean, Teresaren indar-orroak, Maria Zaharraren txilioa, «Hementxe dago seintxua!», eta jaioberriaren negar maukaria entzun zituen Manuelak, gizon gazte betaurrekodun batek eskaratzeko atea zabal-tzen zuela ikusten zuen bitartean.

Mediku jauna zen atetik sartzen ari zen ezezaguna. Betaurrekoek handitzen zituzten begi borobiletan harridura izutua nabari zion Manuelak; une hartan, Maria Zaharrak ume jaioberria heltzen zuen, ezkerrean haren buru beltzarana, eskuman orkatilatxoak. Teresak, nekearen izerditan, haurgintza minak behingoz bukaturik poz-irrika, eskuak luzatu zituen, umea besoetan hartzeko. Jaiotzaren lanetan murgildurik, ez zuten ez batak ez bestek medikuaren sarrera sumatu. Beren begi, beso eta gorpuzkerak jaioberri odolduarengana zuzentzen ziren, gainerakorik ez balego bezala. Manuelaren begiek egin behar izan zioten etorriberriari abegi, Teresa besarkatzeari utzirik zutitzen zelarik, «Arratsalde on, jauna» urduri bat boteaz.

Medikuak ordea ez zeukan, antza, patxadan ibiltzeko astirik: «Altxa behegainetik emakume hori, berehala ohean sar dadila!» agindu zuen, apaizak pekatari bi larrutan aurkituta erabiliko lukeen ahots liskarraz. Teresak eta Maria Zaharrak, amets gozo batetik esnarazita legez begiratu zuten gorantz, gizon gaztearen praka

beltzak aurkiturik lehenengo, eta goraxeago, bizar beltz laburrak inguratzen zuen aho ezpaingabea, betaurreko borobiletan gordezten ziren begi sutuak. Haurrak bakarrik ez zuen jaramonik egin, mau-mau negar zotinka jarraituz. Estreinako arnasak eta amaren titi aurkitu berria omen zerabiltzan harek gogo betegarri.

Hiru pauso luzek hots egin zuten eskaratzean, medikuak harri-
ra heltzeko behar izan zituenak. Aldean zekarren maletatxo eta
jaka beltza bertan utzirik, alkondara zuriko maukak altxatzen hasi
zen, tolosdura zapal eta berdin-berdinak eginik, kontu handiz,
mauka bakoitzean. Emakumeek, arasa ondoko zokotik begira-
tzen zioten, harrituta, benetakoa ote zen ezin sinesturik-edo.

Mediku jaunak, Manuelari ezin ulertuzko egiten zitzaion ha-
serrea erakusten zuen. Teresak ohera joan behar izan zuen bereha-
la, protestaka izan bazen ere. Logelarako bide guztian odolezko
aztarrenak utzi zituen. Umea kendu nahi izan zion hurrengo,
azaleko mintz odolduak garbitzeko, baina horretan etsi egin be-
har izan zuen, Teresak besoetan heldu eta inolaz ere emango ez
ziola jazarri baitzitzaion. Bestetik, medikuak emagin zaharraren-
gandik begiramena eta otzantasuna espero zuen arren, Mariak ez
zion ez bata ez bestea eskaini, eta Teresaren alde jarri zituen
indarrak: jaioberriak azaleko geruza odoldua gordetzea osasun-
tsua zela ihardetsi zion, berak ez lukeela uretan garbituko egun
pare bat igaro artean behintzat, amak arrazoi zuela, «berorrek
ikusita ikasiko du, jauna, emeak kumeaz erditzean berez jakin ohi
duela kumeari komeni zaiona zer den, inork irakatsi gabe ere».
Mediku gazteak ez zekien ongi atsoari nola egin, zerbitzari ote
zuen, ala kide. Hitzok erantzuteke igarotzen uztea erabaki zuen,
aurpegirik eman gabe. Hurrengo, belarrietatik zintzilikatu zuen
gomazko tramankulu bat jarri nahi izan zion haurrari bularral-
dean. Teresak ez zion hori ere egiten utzi nahi. «Bihotzaren taupa-
dak entzun behar dizkiot, baina, osasuntsua den jakiteko!», egoera

ezin sinesturik, gizonak. Aitzitik, taupadak entzuteko tramanku-lua ongi begitandu zitzaion Mariari, eta Teresa konbentzitu zuen medikuari eskua luzatu eta tresna haren zilarrezko muturra umea-ri azalean jartzen utzi ziezaion.

Medikuak emakume egoskor bi zeuzkan aurrean, eta egoera ohi-ezaren deserosotasunak aldartea estutu ziolarik, aginduak lis-kartuagotuz jokatu zuen. Manuelak bitartekari lanak egin nahi izan zituen burruka gor hartan: batetik, Teresa bere kutuna zen, eta Maria Zaharrarengan konfidantza guztia zeukan; bestetik, mediku jaunak estudioak zeuzkan, kanpoan eginak, eta jakituria handia, zalantzarik gabe. Tomasek arreta handiz aukeratu zuen Markinako hau, Mutrikuko Don Adolfo zaharrari muzin eginik. Alderik hartu ezean, bada, berak jasan behar izan zuen batik bat, baijaunaka, mediku berriaren aginduen gogorkeria: «Eskaratzeko ur irakina, hona, berehala!» edota «Bizarra kentzekoak, toaha garbiak, xaboia eta ur irakin gehiago!». Eskaratzean zebilen eska-riak betetzeko lanetan, kontuak baretzen hasita zeudelakoan, Ma-ria medikuari erditze-ondokoetan laguntzen ari baitzitzaion be-rak gelatik alde egin zuenean.

Handik gutxira, baina, Mariaren hitz hasarretuak entzun zi-tuen: «Sartu biezaio barrura jauna! Sartu biezaio bada, umontzia da eta!». Ezin izan zuen gauza handirik ikusi. Logelara itzuli zenerako, Maria Zaharra, negarrez, medikuari kolpeka ari zi-tzaion, gizonak besoak altxatzen zituela, aurpegia babesteko. Ma-nuela ur irakinarekin sartu zenean, Mariak jazarria eten zuen, eta lapikoa hartuta, Teresa garbitzen hasi. Betaurrekoen kristalak lurrunduta zituen medikuak, negar malkoen eragina ote. Galdera hura zintzilika ibili zitzaion Manuelari gogoan, egoera hartan axolagabekeria hutsa zela konturatzen zen arren. Medikuak, be-taurrekoak kendu, eta txalekoaren eskumako sakel txikitik astiro atera zuen zapi zuri batekin garbitu zituen kristalak, banan-ba-

nan. Bera kanpoan zegoen bitartean jazotakoak larria izan behar zuen, nahitaez.

Mariak azalduko zion, egunen buruan: Ume-ondokoak irte-
tean, kadenarekin batera umontzia bota zuen Teresak. Maria
Zaharrak ongi zekien holakoetan umontzia gorputz barrura sartu
behar zena, gainerakoa kanpoan utzita. Trebezia eskatzen zuen
lana zen, aritutako emagin batek ongi egiten jakin behar zuena.
Mediku jauna gazteegia omen zen, erditze gutxitan ibilitakoa
oraindio, edo beharbada ez zioten estudioetan erditze-ondoko
arriskuen arteko hura behar bezala irakatsi. Kanpora agertu ziren
mintz eta odol bilduen artean bereizten jakin gabarik, denak
hartu eta Teresaren gorputzetik banatu zituen, berehala, Maria-
ren eskari sutsuei entzungor eginaz.

Sinka handia ekarri zuen Manuelak, eta hara bota zituzten
irtendako denak. Odola, odol gorri bizia, isuri handian zetorren
izaretara, toahetara, odola eta odola. Mediku gaztearen haserrea,
ezin izkutatzeko tristezia larria bilakatu zen. Kaltea eginda zego-
ela ikusita, Mariak hitz sutuak utzi eta maratz ekin zion egite-
koari, seriocki. Biek elkarlanean ihardun zuten, ordutan, beha-
rrezko ziren hitzak baino ez, odolezko isuria garaiz agortzeko
ahaleginetan. Mariaren begi zaharretan, heriotza ezagun duena-
ren etsi nahi eza; mediku gaztearenetan, ordea, damuaren atseka-
be ezereztatzailea. Errukirik ezagutzen ez duen indar itsu erraldoi-
aren aurrean zeuden orain, atsoa eta gizon gaztea, ezinbestez bat
eginik, galtzeko ziurtasuna izanagatik ere bukaerararte batailatu
behar zuten gudu amaigabearen burrukan.

Teresa gertatutakoaz jabetu ote zen ez du Manuelak sekula
jakingo. Arratsak aurrera egin ahala makalago, ondoeza etorri
zitzaion azkenik. Alabatxo txikia besoetan zeukala joan zitzaien;
sena galdu arte, hitz eta ikutu gozoak eskaini zizkion. Pozik zirui-
dien. Hiltzen ari zen ote zekienik ezin esan.

II

«Irailaren hamaikagarrena, Jaungoikoaren 1911garren urtean.

»Neure bihotzeko Tomas:

»Lehenengo eta behin, beste ezer idatzi aurretik, berri on bat eman behar dizut. Alabatxo bat eduki zenuen duela lau egun, Irailaren zazpigarrenean. Osasuntsu jaio zen, Jaungoikoari esker-rak, eta jatun handia denez gero, osasuntsu hasiko dela itxura guztia du. Teresaren eskariz, Rosario izenaz bataiatu genuen, Irailaren zortziaren goizean. Teresaren eskariz baita ere, neu nauzu Rosarioren amabitxia, eta zure anaia Ramon aitabitxia.

»Luzeagora jo gabe, esan dezadan berri txarren eramaile ere badela esku artean daukazun gutun hau. Nahiago nuke, Tomas, aurrean bazintut zorigaitzeko berri hau emateko orduan, kontsolamendurik eskaini ahal izateko. Baina itsasoan urrun, zeruak eta urak biltzen diren nonbait zabiltzala, orain aurrean dudan paper-txo hau eskuetan duzula jakin beharko duzu, Tomas maitea, Teresak utzi egin gaituela. Umea jaio ondoan arazoak izan ziren, eta odol gehiegi galdu omen zuen. Ez zen minetan, joan, baketsu baizik, Rosario txikia besoetan zeukala.

»Soberan dakit berri honek bihotzean egin dizukene mina larria dela, neurea itzela delarik ere. Zure zorigaitzaren larritasunari, haatik, bakardadean jaso beharra gehitzen zaio, eta neuri ezin antzematekoa begitantzen zait samin horren neurria. Ez daukazu zeinek besoetan hartu, zeinek laztan egin, ez da hor etxekorik malko garratzak isurtzen laguntzeko. Zurea izanagatik neurea balitz legetxerik sentitzen dudan ezintasunak ito ez nadin, Teresaren heriotz igurukoak ahalik zehazkien kontatzea deliberatu dut,

kontakizunak gogoan daramazun lorra zertxobait bada ere arin lezakeelako esperantzan.»

Esaldia idatzi ondoren, Teresaren azken orduak etorri zitzaizkion gogora. Ezin ziezaiokeen Tomasi egia hutsa kontatu, ezin idatzi Teresak bizirik behar lukeela, Tomasek berak arreata handiz aukeratutako mediku gaztearen eskutik jaso zuela heriotza. Horrek mina areagotu baino ez lioke egingo. Zehaztasun batzuk bigunerago kamustea erabaki zuen Manuelak, hurrengo lerroari ekitean.

«Zuk agindu bezala, Markinako Don Alfonso mediku jauna etorri zen jaiotzerako. Akirretzako Maria Zaharra emagina ere bertan izan genuen laguntzaile. Nik neuk ikusita, egin zitekeen guztia egin zuten Teresa aurrera ateratzeko, baina alferrik, gure Jaungoiko Jaun Guztiahaldunak bestela erabaki baitzuen. Bere agintearen mende gaudelarik, apaltasunez onartu behar ditugu bidera erakusten dizkigun arantzak eta amildegiak, Tomas.» Don Bernardoren beila garaiko berbetalditik hitzez hitz hartu zuen azkeneko hura, izena soilik aldaturik. Entzun zituenean hitzok amorrazioa sortu zioten arren, Tomasentzat baliagarri zitezkeela eritzi zuen.

«Irailaren zortzian ehortzi genuen Teresa kutuna.» Manuelak lumaren punta tintontzian busti, eta eskua pausatu zuen, une batez, paperean ageri zitzaizkion hitzei begira. Orri mehe horitu hartan bildu behar zituen heriotzaren biharamonekoak, zertzelada guztiak letren kirru-bihurri biribiletan itsatsirik nolabait, tintaz loturiko hitzok Tomasi begi bihur zekizkion, hileta egunekoak gertatu bezala ikusi ahal zitzan, keinuz-keinu eta hotsez-hots errepikaturik, egunen buruan, munduko beste bazterren batean.

Letren arteko zirrikituetan sartu beharko zituen bada, egun hartako zeruan irristatzen ziren hodei itxuraldakariak, itsasotik lehorrera ihesean, eta haiek bultzatzen zituen haize indartsua,

elizarako bidean segiziokoen gona, jaka, mantoi, buruzapi, kape-
lu eta txapel ilunak jostailu ibili zituen.

Zer konta, zer konta ez: elizkizunetako isiluneetan ozenki entzun zitezkeen mediku gaztearen negar damutuak, emakume erostarien aihen-alaruen artean gailen; edota Don Bernardoren sermoian tartekaturiko haragikeriari buruzko mehatxu lekuz kanpokoak, errukigabeak. Bekatuaren alaba jaio zelako omen zetzan Teresa kutxan hilotz. Ez zuen hitzotan esan egin, baina entzuleek errezkiz ulertu zioten zertara zetorren haragiaren galbi-
deak aipatzea.

«Hil aurretik azken sakramentuak jaso zituen Teresak, Don Bernardorengandik, eta gauaz, beilan, urrunetik etorritako senide asko bildu ziren. Han zeuden mutrikuarrak, Isabel eta Juana beren senar eta seme-alabekin, Markinakoak ere den-denak agertu ziren azken agurrak egitera.» Kontu handia jartzen zuen Manuelak hitzak elkarri jostean, gertaeren arteko aukeran. Egiaren aurpegia arroz hautsaz pittin bat zuritu behar zuela begitantzen zitzaion, heriotzaren oinazea bestelako mingarrietatik garbituz, bera bakarrik ager zedin, hutsean, biluzik. Haatik, gutunak aurre-
ra egin ahala, kontakizuna jazoeretatik geroz eta urrutiago lerratzen zitzaioala igartzen zuen, hori nola gertatzen zen asmatzeko gauza ez zen arren.

«Zure amaginarreba Cristina ez zen beilara heldu, Azkoitia-
tiko bidea luzea baita, baina eguerdirako etxean zegoen, bihotza urraturik, alaba gaztearen gorpua ikusteko garaiz ozta-ozta.» Zer esan ote zezakeen Manuelak bere ahizpa Cristinaz, egiaren aurpegia guztiz desitxuratu gabe, gutun hau itsaso zabalean eta bakarrik irakurriko zuen gizonaren atsekabea akuilatuko ez bazuen.

«Hileta-elizkizunak arratsaldean izan ziren.» Cristina berandu heldu zen, kutxa elizan zegoela jada, jesarlekuak banatuta, hileta-
elizkizunak hasteko isilunea bere sarrera egiteko aukeratuz. «Eli-

za jendez gainezka zegoen, herri guztia bildu zela zirudien, nahita ere ezingo nizuke han agertu ziren guztien berri eman.» Soineko beltz dotorearen gona oparoak, tolos zabaletan dandarrez behegaina igurtzean hots egiten zuen, buru guztiak beragana bira eraginda; luma ilunez ornitutako kapelu landua zeraman, handik zintzilika aurpegia gordetzen zion estalki beltz brodatua. Erdiko pasabideetik sartu zen Cristina, urrats geldoetan duintasuna erakutsiz, kutxaraino heldu arte. Han gelditu zen, silueta beltz liraina kirio eta kala zurien artean zutik. Don Bernardo bera ere aldarean zain eduki zuen, isilik. Eskumako eskua pausatu zuen kutxaren gainean, eta egurrari laztan egin. Gero, premiarik batere gabe, ezkerraldeko lehen iladan belaunikatu zen, Manuelaren ondoan, burua makurturik.

«Teresaren kutxa lore koroez estalita zegoen, eta aldare-inguruetan ere, loreak ziren nonahi. Hileta-elizkizunak baino, itxura gehiago zuen maiatzeko ama birjinari eskaintza-eguna.» Kanposanturako aldapan gora, arrantzaleen kale estuetan oihartzun egiten zuten ehundaka urrats nekatuk. Kalea bukatzen zen partean, belardien mugetan, mazustez beteriko sasiak inguratzen zuten tontorrerako bidea.

Udaren bukaeran, aldapan gora nola abiatzen ziren gogora ekarri zuen Manuelak. Tontorreko ermitatik aurrera egiten zuen bidexka hartzen zuten gero, handik ikus baitzitekeen herria hobekien, mendiaren magalean kiribildurik. Belarrean jezarrita, zerura begira, orduetan luzatzen ziren elkarrizketak hariltzen zituzten, eguzkiak itsasoa jotzen zuen artean. Halaxe egin ohi zion Teresak agur udako sasoiari. Bidezko zen hor nonbait, era beretsuan agur egin ziezaion bizitzeari ere.

Segizioak zoroki itzulika aidean lagun zeramatzen ainaren txilioen artean, kontsolamendu apurra aurkitu zuen Manuelak: Menditontorreko aldapan etzanik izango zuen, betirako zain.

Gutunera bihurtu zituen gogoetak osterara.

«Ehorzketa ondoan, jendetza handia bildu zen etxeko eskaratzan afaritarako. Galarreneko alargunari eskerrak, bazen han denei maukadarik eskaintzeko beste janari, egarria eta nahigabea asetzen laguntzeko beste ardo.»

Hantxe ziren baita, eskaratzeko arasan txukun gordeta, Teresaren hiletara beharrean, ustez Rosarioren jaiotza ospatzera etorriak ziren senideek ama gazteari ekarritako Malagako ardo gozo botilak. Ez zituen inork sekula irekiko jada; Manuelak berak izkutatuko zituen, biharamunean, ganbarako bazter ilun batean.

«Teresari buruzkoak ibili genituen, goibel, afalorduan. Ramonek bertso triste baina ederrak bota zituen haren omenez, nahiago nuke orduantxe idatzi izan banitu, Tomas, orain hemen kopiatu ahal izateko, baina ez zitzaidan horrelakorik otu eta, orain ezin gogora ditzaket.» Manuelak paperean idatzitako gezur biribilari so egin zion, beste esku batek idatzi izan balu bezala. Bertso ederrak ziren zinez. Hitzez hitz gogoratzen zituen, hasi eta bukararaino. Ramonek, ordurako ardoak zertxobait jota, Tomasi buruzkorik ere aipatu zituen bertan, anaia zaharra jaiotza eta heriotza orduan emaztearekin ez egonaren arrazoiei buruzkoak.

«Ondoren Cristina altxatu zen bertso gile, eta alabaren izenean Ramonenak eskertu. Zuon ezkontza egunekoa bezalakoa izan zen Ramon eta Cristinaren arteko hau; oraingoan baina, ezkonberrien olez ezik, heriotzaren saminaz.» Berriz ere, ondo gogoratu arren, ez zituen Cristinaren bertsoak paperera ekarri.

Cristinak ez zuen ohargabeen Teresaren ahotik kantatzea aukeratu, pentsatu zuen bere artean Manuelak, mahaikide zituen senide batzuek, emakumezko batek bertsoak botatzen zituela ikusirik harritu plantak egiten zituzten bitartean. Ahizpak alaba zahararren lekua hartzen zuen bigarren aldiz, lehenengo txandarekin nahikoa izan ez balu bezala.

Etorri bikaineko bertsoak begitandu zitzaizkien afalondoan bildutako gehienei, «Ederretan ederrenak, amak bere saminaren saminetik ateratako urrea, Don Bernardok berak esan bezala». Ramonen aurpegian, aitzitik, Manuelarenaren antzeko gogoetak zerabiltzala ikus lezake jakinaren gainean egondako batek. Honek guztiak, mingarriegi izan behar zuen alargun berri baten belarrientarako, zenduarekiko harremanak nolakoak izan gora-behera. Egiaren aurpegia zuritzen jarraitzea hobetsi zuen Manuelak, idatzitakoak zeuden-zeudenean utzita.

«Afalondoa goizeko ordutara luzatu zen, aspalditxoan elkar ikusi gabeko senideek zer kontatuaren eskasiarik ez-eta. Don Bernardok meza eman behar zuen goizaldean, eta gurean gelditu zen, gau-beilan.» Don Bernardo, lagunartean beti pozik, elkarrizketan trebe, kontakizunetan bizkor. Gau guztian ondo-ondotik ibili zitzaion, itxuraz oinazean laguntzaile, Manuelari nekagarri egiten zitzaizkion laztan eta besarkada xamurrak eskainiz. Neska eskongabe izatetik neskazahartzera zihoan neurrian, gero eta gehiago hurbiltzen zitzaion Don Bernardo, urteak aurrera lotsaga-beago, baina inoiz agerian lizunki jokatu gabe, Manuelak protesta egiteko aukerarik aurkitzen ez zuelarik.

«Zure alaba jaioberria Akerritzara eraman zuen Maria Zaharrrak bataio ondoan, bere alaba Sarak haziko baitu han. Ez dauka zu horretan zertan kezkatu beharrik, lehendik ere inude izandakoa da eta.» Paper gainean pintaturik baileuden agertu zitzaizkion bataio inguruko irudiak: Rosario txikia, mantoietan bilduta, goizaldeko egunsentian elizara bidean. Haren negarrak, elizako pareta erraldoietan oihartzun, zurtz. Bataio urak bekokitik isurtzean, eskutxoak higitu zituen aidean, euskarri bila halakoxea. Manuelak atzamarra luzatu zuen, eta eskumako esku nimiñoak indarrez oratu zion. «Rosario ondo zainduta egongo da. Besoetakoa dut, eta neuk hartuko dut haren hezkuntzaren kargu.»

Gutun hankamotza zen, elbarria. Kontatu behar zituenak isildu egiten zituen: Teresak etxean utzitako isiltasunezko hutsunea, otorduetako bakardadea, eskaratzeko atean barreka agertuko zelako itxaropenaren garratza. Beharbada hobe zen horrela, hitz gutxitan, gehiegitan baino.

«Herriratzerik noiz izango duzun baldin badakizu, gaztiga iezadazu gutun baten bitartez, Tomas. Zoritxarrez, badira zenbait kontu zu etorri ezean ezin egin litezkeenak, batik bat notario jaunarekin zerikusi dutenak. Laster izango delakoan diotsut agur bihotzetik, neure loba maitea.

»Manuela Guenaga Erretolaza.»

Putz egin zuen paperaren gainean, tinta lehor zedin. Gero, lautan tolostu zuen eta azalean sartu. «Capitán Tomás Zubicaray Murueta, Castillo de Amaiur, Compañía Naviera Letona, Gran Vía 7, Bilbao, Vizcaya.» Noiz helduko ote zitzaizkion Tomasi berriak.

Mahaiko argia itzali, eta ilunpetan gelditu zen, begiak zabalik, beltzuneari so. Ez zuen nonbait Teresaren arima irribarrez ikusteko ahaleginetan etsiko oraindik.

Naukanari

Benetako aitoren alaba orok du lur ezkutu bat ukitu, ikusi eta usaindu daitekeen begien bistako mundu zurbil kolorge hau baino errealago dena; eguteran gorritzen diren gerezi-anpolaien eta hospolean atsedean hartzen duten masusten haraindian, muga arrazoizkoetatik lekora. Era benetako aitoren alaba horiek –erregezko edo nekazari, kapare edo lisatzaile– nagusi eta mendeko bakar dira inork ukitugabeko beren lur horretan. Lurra bera dira. Hai-zea eta ura. Ikatz irazekia.

Gauerdiro, mundua lo eta etxea isilpean dagoelarik, ohe ondoko mahaitxoaren gainean liburua edo jostorrazak utzi, izarak tolestu, eta asaplditik berarekin hitz-aspertuan diharduen alegiazko laguna agurtuz, kuku erloju zaharraren kanpaiaren hotsera bezala, bera-berea duen lur eremu aldera abiatuko da, ator xuri asko, etxetik irten, baratzea zeharkatu, eta ataka garai kirrinkari baten aurrean geratuko da. Hara ezkerro, ordea, atakak ez dio enbazarik egingo; gaintetik jauzi egin, eta zaldi xuria izango du zain bestaldean; euri mehe hankamotzak perlaturiko urki ttikien tartetik lasterka abiatuko da trostan, belaze ebaki berrietan aurrera.

1. Robert Graves-en *The secret land* olerkian oinarritu eta moldatua

Nahi duen lekura eramango du orduan zaldi xuriak. Pasaeran, belar-izpiak sorraraziko ditu lurraren erraietatik, altzumak lore bihurtuko ditu, loreak fruitu, estu-estu begiratze hutsez. Esne-erreketa arrainak eskuetara etorriko zaizkio hazkurri bila, oreinak eta orkatzak jarraituko zaizkio hurbiletik. Jenderik gabeko hiriak eraikiko ditu amets-ibarretan, eskuak mugitu eta ia besterik gabe. Lats-xirripen badiarako bidaia benedikatuko. Ur-negarrekin egingo du negar. Zorion negar. Zoriona dastatuko du geroean, begiak itxita, eguteraan gereziak janez, ospelean, masustak. Eguzkiloreak zabalduko ditu iluntasunik hertsienean ere. Eguna argituko da bere oin biluzien behartz artetik...

Begiak atzera zabaltzean, ordea, mundu zurbil kolorge hau izango du aurrez aurre, lo. Etxea isilpean berriz: kuku-erloju zaharra tik-tak, jostorrazak edo liburua ohe ondoko mahaittoaren gainean tolesturik. Hanka-punttetan, aspaldian berarekin hitz-aspertuan diharduen alegiazko laguna esna ez dadin, ohera joko du, irribarre zabala tolestu gabe izpirik.

Sekulan ez naiz ausartu naukanari galdetzera lur ezkutu horren gobernuaren gainean. Berea du. Ni naiz harena. Ez natzaio jaraitu atakaren mugetaraino xelatan. Baina agindu dit, hiltzen naizenerako, lekuño bat gordeko didala mundu ororen isilik, urki ttiki euriz perlatuen erdian, badietara bidaian doazen esne-erreka kantariak lagun, bere paradisu sekretuan. Benetako aitoren alaba orok gordetzen duen lur ezkutuan.

Kritikabideak



Antton Luku

1997an, Beloken Galeuzca Biltzarrean irakurritako testua.

Bidaia literaturan

Euskal idazleen izenean mintzatzeko kargua nuela gutunean irakurtzean, iparraldekoa izanki, Iparraldean barnealdekoa, eta kasik antzerkiak baizik ez argitaratua orain arte, bazterretik bazterrerat jin zitzaidan irudi hau: Afrikako autobus eztulkariaren gainean, teilatuaren gainean bidaiatzen diren horietarik bati emana izan zitzaiola bolantea.

Kargua iziarazirik, hasi nintzen izerdiz blai euskal literatura gainbegiratzen, eta mundukoa, ezagutzen nuen hori behintzat, gure euskal literaturaz irudi ona, intelektuala, erakargarria emateko. Azkenik abandonatzeko, ez bainuen alegiarik egin nahi. Ongi ezagutzen ditudan gauza tipien azaltzeko merkataritxarra izan naiz beti. Edo izan gara? Kontziente naiz beraz baditugula hemen urrundik jin direnak eta apetituan ezartzen duen gaia hartu ondoan, lurraren zabala ebokatzen duen bidaia hitzak eramanen dituela baratze-kantoi baten tamainako unibertso ñimiñorat.

Bidaiak XX. mende honen bukaeran biziki itxura ona du, idazle bidaiatuak are hobea. Frantses telebistan, frankofoniaren

mailan erreferentzia ekidiezina den Pivotren emankizunetan, as-tero zerbitzatzen digute berrogei urteko yuppie itxurako saiogile hori, munduan zehar ibilia, problemei begi unibertsal batez lo-tzen zaiena, gatazkak hertsikerien gain ematen baititu. Gure men-de-hondarreko *honnête homme* beteginaren panoplían sartzen da hau: etxetik aterea izatea. Hi eta ha ari dira Grezia eta Erromako harrien aitzinean senditu zirrarak ezin erdiz, eta ahalketzen zara beherala, zure kultura eskasa madarikatzen, infirmitatetzat hart-zen zure sentiberatasun eskasa, ez baduzu gauza bat senditu.

Duela hogeitau urte Alemaniatik gibeleratekoan, Italian gairi pasatu ginen eta Venezian gelditu. Jautsi orduko gondola bat pasatu zen ezteibidaian izan zitekeen bikote bat kargatu berria, nik horrela ikusi nituen behintzat, eta gondolari zorro handi batek lana nik lanean dudan buruarekin betetzen zuen, barnean magnetofono batek erromantze bat gora xanpatzen zuela. Iruditu zitzaidan hiria jada ikusia nuela beste bizitza batean, monumen-tuak ederragoak ziren nire oroitean, argazkitresnen iragazkiei es-ker dudarik gabe. Hastiatzen ditudan urtzoez baldintza txarretan ezarri ninduketen, eta markatu ninduen urrina izan zen. Ahalke-tu nintzen berehala, behar zela ezjakina izan Venezian izateko, historiaz eta ipuinez hain betea zen leku batean bere burua gauza horiez kutsatzerat uzteko. Uda honetan han pasatzen zen zine-maldiaren lekukotasuna ekartzen zuen kazetariak bururatzen zuen –filmeak txarrak iruditu zitzaizkion eta– ez zuela Venezia-tik deus atxikiko, urrinak eragindako nazkaz aparte. Egia ez zela bisitatzerat joan, baina lanerat.

Literaturan ez da berria bidaia. Kasik topikoa dugu. Jendea bizi guzian ez zelarik ondoko hiriko merkaturat baizik abian, idazlearen lana kanpoko hatsaren ekartzea zen, hari zegokion amesten ziren erresuma birjinen kondatzea, landare ezezagunen aipatzea. Ametsa du funtzio, eta elementuak gogoan sarturik,

gure buruan arramoldatzen da bidaia. Orain ere, urrunago azalduko ditudan kanbiamen guziengatik ere, funtzio honek dirau eta ostatu-kantoiaren probidentziak bi irakurle elkarretaratzen dituelarik, ametsetan ibilerazten duen liburua diote elkarri aholkatzen, itzurtzeko, gure inguramen hau baino hobea gorik badaitekeela 260 orrialdez sinetsiz.

Bidaiak, joateak bi zentzu ditu. Euskaldunek frantsesa ikasterakoan gaizki bereizten dute *aller* eta *partir*. Nolabait, zerbaitenganat abiatzea. Eta Montaigne-ren denboratik badakigu, idazlea ideien erdian borroka ari denetik, irekidura, berrikuntza, alderantzizkoa edo antitesiaren bilatzea duela lan.

Bidaiatzerat behartua dela segurtameneren kolokan ezartzeko, bestearen bila joateko, eta horren gainean da funtsean beste gizonetarik bereizten.

Bestearen bila joan da idazlea, baina Baudelaire-ren denboratik hemendik lekutzeko da bidaiatu. Beste *nonbait* horren beharrak hain indar handiz aldarrikatu du non argiago ikusten dugun utzi nahi zuen Bigarren Inperioko Paris horren kiratsa, biziko atal guzietan bilatu baitu ihesa, Jeanne Duval beltzaren amodioan ere. Ez du honek paisaiarik deskribatzen, ibiltzen den portuak bere buruan dira. Eta olerkiei darien usainak *musc et benjoin* finago eta exotikoago dira hitzez egiazki baino. Ez baitzaigu axolatzen zer diren ere. Escarpit-en Hazymbatek bere bidaietan Antilla guziak banilla usainez beztitu zizkigun. Hau dut usaintzen beti ere Xabier Letek kantatzen dituen Habanako putetxeetan bi algaren artetik.

Bidaiariek badakite uzten beren etxea, lagunak, bestak gure kasuan, badakite huts egiten. Bidaien lerroan ezarri behar da irakurtzea, bere burua irakurtzeari eskaintzen dion batek hautatzen baitu denbora anputatzea, denbora ez baita elastikoa, bere lagunen giroari uko egiten dio. Eri izatea, depresioaren sartzea

bidaiak dira. Bitoriano Gandiagak *Denborak galdu alde* liburuan kondatzen digun bezala, depresioa eta idazteko beharra anai edo ahizpa zaharrak dira. Guretzat Akitaniako eskualdeko prentsa frantsesa utziz *Euskaldunon egunkariaren* irakurtzeak adibidez, ohartu gabe planeta ezberdin batean bizi arazten gaitu lehen zentzuan.

Aipatu dudan idazlearen lehen funtzio horrek, orain, gero eta lehiakide gehiago atzematen du. Erran nahi dut gure buruak irudi hautatuez beteak dira, telebistak iragarriak eta profesionalek ezin hobeki muntatuak, idazle hoberenak ere ezin daitezke makina horren kontra lehia. Eta ez dute egiten. Erreferentzia amankomunak baliatzen dituzte, idazten dutenek konduan hartzen dute euskal irakurlea eta gero aipatuko dudan euskal-jendea aldatu direla. Aingeru Epaltzak ez du Sepulvedaren liburua arraegiten *Tigre ebizan*, kontsideratzen du irakurria dugula eta bere euskaldunen istoria idazten du, Amazoniako oihanetan, Hego Ameriketun migalak badirela badakigula aintzat hartzen du.

Tradizio batean zen idazlearen ofizioa erortzen da berez, hila da. Eta bidaiatu nahi du jendeak. Norbaiten bila joate horrek huts egiteko xantza guztiak baditu. *Tristes tropiques*. Levi-Strauss etnologia antietnozentrismaren fundatzailearen liburua honela hasten da: «Hastiatzen ditut bidaiak, eta esploradoreak ere bai». Hauek urrunago aipatuko ditut. Mementoko interesa gaitezen hiru arditeko teorema honi: Denak bidaiatzen direlarik bidaia turismoa da eta turismoa bidaiaren etsaia da.

* * *

Eskola publikoa eta beharrezkoari urteetan buru egin ondoan, populu xehearen ondokoek konprenitu dute ateratzen ahal zen abantaila non zegoen. Orain denek badakigu irakurtzen, analfabeto ahurtara batek salbu, horiek atxikitzen ditugu ezaren ordezkatzeko gisa, haurrei iziarazteko eta horiez mintzatzen garelarik autobultzatzen gara intelektualen heinerat. Ahanzten dugu prudentki iraultza industrialak behar zuen erreforma zela hau, eta teknika goiti joanez langilea dela irakurtzeaz jantzi, behar bada peontza baino lan gogorrago, krudelagoan hasiz. Baina peontza da depresioaz ordaintzen dena. Eta badaiteke hemen, Euskal Herrian, hainbeste idazleren izatearen arrazoia dela.

Bidaiari dagokionez, ihesaren haritik: «Hustua naiz, *break* baten beharra dut eta emaztearekin Balearretarat joanen naiz» eta «Zer, ez zarete nehorat joan oporretarat» irina berekoak dira. Bidaiatu behar da. Ibai hori ez daiteke molde anarkikoan ibil, kaotikoa litzateke. Orduan antolatzen da, bideak egiten dira, mundu guziek badute beren ekologia, zentzu mekanikoan hornitu behar dira bidaiari saldoak ur eta hazkurriz, eta txabolismoaren garai bururatua baita... Segida ezagutua da. Bidaia produktua da, saltzen dena, publizitateari, modari nehork ez dio buru egiten eta bagoaz.

Alabaina, intelektualak ez dira horrela ibiltzen, bidaiatzen dira besteak ez bezala, lortzen dute harremana. Lagun batek Turkian izanik, norbait ezagutu zuen kurduen problema aipatzeko, ez zen bera kurdua, asko bazekien horretaz, pilotatu zuen behar zuen lekuetarat. Arazo hori interesatzen zitzaion biziki. Ikusten dudalarik euskaldun ez direnak zein mailatan interesatzen diren euskal arazoari ez dut burutik ateratzen ahal hau polizia izan behar zela, eta bereberismoa saltzen den heinean herri arabiarretan, kurdis-moa ona izan behar dela mutur onetik lotuz etsaien artean ere.

Hauxe dut akats ene ustez. Gu Iparralde-kantoi ttipi honetan,

turismoleku batean gara. Gu bidaiarien miran, largabistaren objektiboaren pean. Onartzen dut izpiritu hertsia naizela, baina kontaktua atxiki behar banu mintzatzeko irrikaz heldu diren guztiekin, ez zerbaiten jakiteko baina beren buruen xuritzeko, berek besteak bezalakoak ez direla sinesteko, bidaitzeaz segur izateko, ibaitik at dabilzala besterik ez nezake egin.

Biziki teatrala atzematzen dut turisten korua, eta aski interesgarria pertsonaien aldetik turista/bidaiari mota guzaien agerteraztea. Opor pagatuen denborako fronte popularreko fosilen karikaturren ondoan –behin eta berriz aipatuak izan dira trufagai gure artean *Bécassine au Pays Basque* komikian agertzen diren ikuskitzun kontsumatzaileak, xistera-partidak, idi pare bat daukan postakarta, urtero ostatu berera doazen familiakoak izan nahi duten turistak– hauen ondoan ateratzen ari omen da beste udatiar edo bazkotiar mota bat, hegoaldekoak barne, turismoa aldatzen ari da leloarekin orkestratua. Sarriko utziko dut azken gutiengo ttipi bat ifernua bilatzen duena.

Turista berri horiek hobeki bidaiarzen dute, zerbaiti interesatzen dira, jakin nahi dute, mintzatu. Gure ahotan. Gure hori aipatzen dudalarik, duela hogeituro burkide abertzaleak aipatzen ditut, besteren eskasean orain turismoaz bizi. Ez dutelakotz bere buruari aitortu nahi kritikatzeko zituztenen lana egiten dutela, turistak desberdin atzematzen dituzte. Irakurtzen ikasi duten bidaiariak izategatik ere, ez du erran nahi beste batzuk direla. Gustua da aldatu eta mundu guzian hedatu den lirain izateko moda segituz, kolesterola emendarazten duen *foie gras* utzirik euskal disko bat erosten dute, beti bera, ongi saltzen dena eta kontzientzia xuri dute.

Xixterara ez dira gehiago joaten ez zaielakotz erraten beharrezkoa dela. Turismoliburu edo aldizkari argazkitsuek uda oro kopuru gaitzean ateratzen direnek, tonuaren aldetik bi gerlen

arteko artikulu berak dituzte publikatzen, gehitu dituzte hiru hitz, «ikastola» eta «herri-irratia», eta denak kontent, saltzaile eta erosle. Froga behar balitz bezala, berak direla tindatu poxi bat gaisetik.

* * *

Bisitagarri egon gaitzen, bizipidea dugu eta, letren mundura heldu naiz, berezitasuna behar dugu, populu berezi bat, diferentzia nabaria aste bateko egonaldi baten hunkitzeko neurrikoa. Euskaltzaletasun baten egiteko hunkitzen diren ezaugarri argiak behar ditugu. Kanpoko begiaren pean, autojustifikatu behar dugu diferentzia baten aldarrikatzeaz. Liburu-merkatuan, musika-merkatuan, Zabal liburudendan entzun nuen *Liberation* egunkariko kazetolari batek egin galderari «Zertan euskal rocka beste rocketarik bereizten da?», errefera eman nahi diogu hotz eta motz. Berezitasun honen bahetik herri integratua ez da interesgarri, nehork ez du Bordele bisitatuko, gure buruan lan eta ikasketen sinonimoa da eta ez beste *nonbait* hura.

Hortik dator etnologia behar dugula eta hola dut esplikatzeko Euskal Herri honetan etnologo andana hori ukatea. Iruditzen zaie atzematen dutela hor, euskaldun izateko arrazoia.

Méthode pour l'ethnologie PUF-en argitaratu liburuan egileak ohartzen gaitu, herri batetarat heltzearekin atzematen diren lehen informatzaileak ez direla kontutan hartu behar: edo merkatariak direla, edo beren herrian integratugabeak eta ez dugula hauekin gure zientzia hunkitzen: etnia.

Bortuan urteoro antolatzen dugun besta batera agertu zen delako aldizkari baten moldatzeaz arduratzen den garaztar argaz-

kilari ezeuskaldun bat, eta bere zapuzketa –konprenitu behar da erraten zidala publizitate gezurtia egin genuela, bortua, artzain, leku mitiko eta horien inguruko ikurrak manipulaturaz– haxe zen: ez zuen deus tipikorik atzematzen bere kameraren bazkatzeko. Segur naizenez egun hartan preseski fenomeno horien hurbiltzean zerbait berezi pasatzen zela, ez dut bakan baizik holako kunplimendurik entzun neure bizitza tristearen.

Ez dut uste gureak etnologia berezi batean sar daitezkeela, hemen diren gauzak beste lekuetan atzematzen dira, zerbait baldin badugu soziologia markatuagoa da, eremu ñimiño honetan beste parteetan baino gatazka gehiago biltzen baitira, eta oraino «lurren okupatze», «klaseborroka», «muga», «ezagutze-ezegutze», «popular» eta «populista» hitzek berehala atzematzen dutela ilustrazio. Gizarte honek daukan edena munduko beste parte guzietan ezagutzen dutenaren upel beretik hartua da. Eñaut Etxamendik salbatu zigun Maiatz elkarteko bilkura erdi ilortu batean erran zuelarik: «idazleak begi berezia badu sorginak bezala gaitzaren ikusteko. Gauza likidoa da ezin ikusizko hodieta dabilena, eta munduak itaxuraz betetako teilatua bailuen, kotera beti beraren gainean isurtzen da».

Zergatik bilduak gara hemen orduan Galiziatik, Kataluniatik edota Bizkaitik, zergatik hainbeste ezantza erre honen entzuteko? Tresna bat dugulakotz, tresna hau gure hizkuntza gutituak izanez, munduaren irakurtzeko betaurreko berezia.

Ez da Frantzia jakobinismoa nehoendako segetu. Ez dut hitza maite frantsesak errugabetzen dituelakotz. Funtzionariak igortzen dizkigu Patriak gure zorionaren egiteko. Arestiko turisten eran aldatzen ari dira, omen, memento honetan, gazteak ez dirateke berdinak eta bizpahiru urteren buruan zerbait aski argi erraten dute konfidantza egin zienen zapuzteko: «Ni ez naiz hemen euskaldunen xerbitxuko, Frantziar Estatuaren zerbitzuko

baizik». Eta bidaiari handia eta moda berrikoa baita arraza hori, Kairoko zabortegietan bizi diren azpigizarte osoak ikusi dituzte, hemengo problemak ez dira deus hangoei konparatuz, eta Ertafrikari bildu dokumentazioari esker badakite badela exodoa eta mundulaborantzaren arteko lotura. Hemengo euskal sindikatu batean militatzen duen laborari baten erranak hitzez hitz errepikatuko du bere kolegak ahoa bete hortz atxikiz, ondoko opor handietan Tibeterat joateko disko gogorra hustu aitzin. Ez dugu oroimen bizi bat baizik. Hemengo laboraria etnologiaren bahean faxista serbiarra da. Euskara entzun edo euskarazko liburu baten hunkitzean bigarren egunean bota zuen soa ikusiz ageri zen zer zen beste azalpenik gabe.

Soa ez da froga bat. Badira horrelako gauza ttipi anitz, ideia honen edo besteen inguruan harremana trabatzen digutenak, zoriontsu bizitzeaz oztopatzen gaituztenak eta literatura aipatzeko mementoan hauek zaizkit interesatzen.

* * *

Arazo hau, hizkuntza gutitu eta abar guzi hori Penintsula Iberikotik heldu zareten horiei gaintutua idurituko zaizue. Honat bidaiaz baitzarete eta nola ez zaituztedan turista berri horien erronkan atxikitzen, baina aski laster lotuko naizen gutiengo ñimiño horretan, kontaktu egitiaren lana egiteko prest natzaizue.

Hogei urte orain, Sarrionandiak *Maggi indazu kamamila* ipuina idatzi zuela eta *ipuin bakarrak* argitaratzearekin, idazten du Xabier Mendigurenek sekulako zirrara eragin ziola ipuinak garaian, posible iruditu zitzaiolakotz euskaraz idaztea, beste literaturatan den sinesgarritasuna gordez. Hauxe da arazoa: sinesgarrita-

sunak. Idaztea ongi da irakurleria batek segitzen badu, onartzen badu gurekin hegazkinera igatea, elkarrekin New Yorkaren bisitatzeko.

Goian aipatzen ditudan mundu-erreferentzia amankomunek laguntzen gaituzte, baina orain ekidiezina da ene ustez Euskal Herritik lekutzea teklen zapatzearen unean. Euskal jendea, eta gehiago idazlea baldin bada aldatua da. Peter Brook antzerkigile ingelesak Shakespeare-ri buruz zioen, poeta beste jendearengandik bereizten zela idazteko mementoan bere esperientzia osoa, baliagarri zitzaiolako. Proust-ek zioena: «Écrire c'est se souvenir». Sarritan entzun diot antzerki-publikoari erranik «konplexuegia haiz». Orrialde xuriaren aitzinean ez dira heldu gure baitan direnak baizik. Gaineratekoa teknika da: soiltasuna, argitasuna antzerkigile handien monopolioa da. Andolin Eguzkitza dugu euskal jende berri horren prototipoa. *Mila urte igaro...* bere poemaliburuak munduaren itzulia egitera eramaten baikaitu, Jon Kortazarrek alderdi erromantikoei edo deskribatzaileegia atzematen badio ere, taigako urkiek hemengoentzat dudak maitasun berbera ardiesten dute, ikusten dituen neska erakargarriek oneritzi dudu ezina. Liburutegientzat duen gustuak zaintzen du turista izateko arriskuaz ene fantasiako tesia frogatuz.

Sinesgarritasun hori ez dateke hain gauza sinplea. Iazko Donostia Saria ipuin-sailean ematean Arrietak azpimarratzen zuen orain euskal literaturak zeukan atzerrian garatzeko gaitasuna. Kostunbrismoari, ohiturismoari uko eginez. Kuban pasatzen zen ipuina. Kakotxen artean hau bidaia da edo Euskal Herria gure inkontziente kolektiboan?

Orain Ulises bezain zoriontsu, bidaia handia eginik iduri du Euskal Herrirat biltzen dela berriz egile gihartsuenen kondaketa. Jendearen inplikatzeko desiraz? Epaltzari ez zaio Hego Amerika interesatzen azukre eskasa bezainbat eta Larresorori Amazoniari

baino bihotz gehiago ematen dio, Saizarbitoriaren bazkariak biziki hemengo diren arrautza eta gerrateetan ibilarazten gaituzte.

Sinesgarritasuna ikuspegitik heldu da komunzki, euskal jendeak du kondatzen, pentsatzen, ikusten, euskaraz pentsatzen du, inplikatzeko du euskaraz dela kondaketa, hau aski engaiatua delarik, *Maité* filmean ez bezala, sinets genezake aise kubatar bat euskaraz mintzatzea.

Populu bidaiaria da euskaldunona. Eta ez turista. Azurmendiaren *Euskaldunak eta espainolak* liburuan argi uzten digu suitzar *lanzkenet*-ekoizleen gisan populu pobreek beren semeak igortzen dituztela misionest edo soldadu edozein erregetto menturazalaren morroi. Diasporaren altxorra idek bagenez, begenuke Amazonak bota ahala ur bezainbat liburu idazteko. Sistema martxarazi du Marc Legasse-k, eta Maskaradak turboa ezarri *Gastibeltzaren karabinek*, eta *Joxemi* eleberrian Pablo Sastrek musu gozoak Galiziako neskei emanez, munduaren itzulia egiten du Sarrionandiaren lagun zenbaiten eskaparazteko Espainiako ziegetarik.

Gizona bere bakardadean, Zeru horiek euskal burmuinetan pasatzen dira eta Katalunia ahizpa eta Euskal Herriaren arteko joan-jin batean. Hor dena posible da.

Sinesgarritasun-eta bidaia-istorio bat digu kondatzen Ur Apategik bere liburuan, bere migrazioak agertokian ezarriz, ikasleak Bordeletik Donostiarat, Baionatik kurriaraziz. Leku lanjerosetan ibiltzen dira hor heroiak, zail zaigu sinestea hauek tren batean euskaraz ariko direla. Baina euskaldun pur purra ateratzen du xapelatik Urek, Antton Baigorriarra, eta «barnekaldean euskara hobeki atxikitzen da» teorema aplikatzen baita, istorian sartzen gara. Barnekaldekoentzat salbu, baitakigu, barnekaldeko batek bere amarekin Baionan jaten duelarik, are gehiago hau dibortziatua baldin bada, frantsesez ariko direla diskrezioz. Baina ez da grabe, barnekaldean ez da irakurlerik. Hauentzat hizkuntza trans-

mititzen den bezala, *No* antzerki bat ematen ahalko dugu euskaraz denek sinetsiko baitute japoniera dela.

Eta behar bada pauso gisa –noizteinka baikorra izan behar dut, bestenez nehorik ez du konprenituko zergatik ez naizen pitrail batetik dilindan– transmisioaren zuloak edo etenak ordezka litzake liburuak, mundu biribil bat sortuz, birtualki euskaraz mar-txa daitekeen mundua. Hortan gabiltz iparraldean Etxamendi sortuz geroztik.

Baina, hemen aitortu beharra dut, bidaiaz hobeki eraman nauten liburuak barnebiribiltasun propioa dutenak dira: egiazko munduari itxiak, erreferentzia-ikurrak hartu eta berek liburua bera den mundu bat sortzen dute. *Obabakoak* eta *Haur besoetako*a hauetarik dituzue. Nire partetik leku geografikorik ez ezagutu arren, *Haur besoetako* liburuaren gizona bizi den jauregia ez dut kokatzen ahal ez Bidarten, ez Hendaian. Liburu hauetan Euskal Herria hobeki ezagutzen dut halarik ere *Kresalan* baino, bertan Ondarroa ontsa deskribaturik izanik ere.

Atxagak azaldu izan du ardura Faulkner-entzat duen mi-resmena, Mirandek Poeren alde. Eni ekialdeko antzerkia zait euskaldunena, Bohumil Hrabal-en testuek didate lotura eginarazten ene familiako migrarien eszeptizismo eta fatalismoarekin, Kantor-en mundu kafkiarrak hobeki erakusten hemen gurutzatzen ditudan txontxongilo bizidunak.

* * *

Hor digresio handia egin dut, eta lotura problema badut. Orain behar nuen aipatu sinesgarritasuna eta euskal jende-idazle espezie arraro horren artean sortzen diren arazoak idazteko pro-

jektuari lotzen delarik. Autozentsura sukar bat jausten zaiolako, esperientzia guziak ez zaizkiolako aipatzeko on agertuko, aurkakoak ere noizbait. Merkatuan bezala mintzatuz: Zer idatz?

Eta Iparraldeko ikuspegitik beti, bi literatura argi ditugu euskaraz, honek balio du narrazioan, poesian edo antzerkigintzan.

Sinesgarri dira absolutuan euskaraz idatzi testuak hemen Euskal Herri euskaldunean garatzen diren istorioak kondatzen dituztenean, euskal narratzaile batek erreferentzia endogenoak dituelarik. Hasten garelarik nehorik erabiltzen ez den esperanto birtual batean mintzatzen, euskal gizon *globe trotter* konplexu batek kondaturik, irakurleak hasten dira bakantzen. Baina bakantzen dira ere, eta zaluago, erreferentziak sobera hemengoak, ez oraingoak direlarik, iziarazten baititugu jendeak. Burutazio subjektiboekin ere gertatzen da. Konplexuegiak.

Lehen Urbian irakurri nuelarik sortu zitzaidan kexua ezabaezina baita ene oroitean hartuko dut arketipo gisa. Hau da definizio hau gauzatzen duen liburu sinesgarria. Ez dut sekulan sinetsiko izan direla Urbian, Donibane Garazin liburu honetan ikusten diren jendeak. Liburuak balio du bakarrik idazlea idazterat zerk akulatu duen bilatzeko: gerla-denboran edo frankismo-garaian pasatu gauzetaz garaztarren kontzientzia txarraren xuritzeko –hitz-jokoa bada– beharra, edo euskalkieci euskaltzainak pagatu behar zion zorra, haur erdaldunak ukateaz barkamendu galde egiteko. Zaila izanen zaio Dalidaren zorteari gure interesatzea.

Liburu hauek –eta hizkuntza guttitu guziena izanen da hau– dira irakurrienak, beste literaturak errekerperatu nahi duen irakurleria dute. Populuak edo publikoak hau nahi du. Antzerkia aipatuko dut eta honen publikoa adibide gisa, paralelo baten egiteko, batetik irakurleria baino gehiago ezagutzen dudalakotz, eta bestetik estakurua eskainia baitzait hemen sartzeko.

Antzerki publikoa Iparraldean 1.000 lagunetan kalkula daiteke. Hau da ikusleria potentziala. Antzerki amateurrek 30 aldiz ari direlarik aulkien betetzeko, zaharretxeen atea ireki behar dira eta talde horiek hobeki lituzkete dirulaguntzak eskatzea Segurantzia Sozialari Kultur Erakundeari baino.

Batek erraten badu gehiago direla, ez du gauza bera aipatzen. Pastoral-antolatzaileak adibidez duela urte batzuk, ikusten genituelarik emanaldiaren aitzineko astean erdi hilik ziren, eguraldiari so, gure Hegoaldeko anaia-arrebak jinen zirenez arranguraz, hauek gabe ez baitezaketen gostuak paga. Horrela dira urtez urte, sujet gisa harilkatu euskal saindu karlista guziak betarramismoz arrabaziturik.

Orain lasaiago dira barne-exotismoak lekukoa hartu baitu. Erretirora sartu da Algeria egina duen belaunaldi euskara-ehorzelea, frantses familia-alokazioneez erosi euskaldunak eta beren burua xuritzeko heriotzako orenean beila bat egiten dute erreserba indiarra, higitzen ez den, beraz utzi ez duten mundu batengana (gure buruarentzat bidaiatzen gara, ez bestearen bila). Hor dira Tarnosen ere, edo Hazparden lan egiten duten aita familiako gazteak beren haurrei maskaradaren edo toberaren erakustera jinak. Hauen aitzinean irri egiten dute ozenki ondorengoari erakusteko beren erroak ez dituztela galduak. Hor hamar mila jende bada, baina ez dira sekulan gurekin belauntzira iganen Miranderen itsas zeltikoan.

Normalean une honetan aditu behar nuke apez batek *Hiruak bat* taldearekin eman genuen antzerki baten ateratzean iruzkindu zuena: «Bo, intelektual txar batzuk». Edo bestenez zabalduagoa: elitista.

Barthes-ek azaldu du hau nik baino hobeki, *Le plaisir du texte* saioan. Bada eskuineko idazle bat, bere buruaz segur, galanta eta ederra, gozoa eta plazer hedonista sortzen duena, gauza jakinetan

oinarritzen da. Gibelerat so dagoen idazlea. Eta beste bat, ezkerrekoa, irakurgaitza, esperimentalta, bilatzen ari dena, ikertzen, geroa iragartzen du.

Isilduko naiz, jendeak uste ukanen du kexu naizela. Egiazki futitzen naiz. Hemen naiz bidaiaren aipatzeko eta eskuineko literatura horretan Amerikak eta Paris, diaspora errotua den erresuma guziak aipatzen dira, baina bidaia ez da abiatzen. Alderdi baten XIX. mendeko Euskal Herria aipatzen digu. Pierre Lotik kausitu bazuen bere bidaia ez gintuen berarekin hartu. Ateratu zelarik Mauleko zelaian *Abadia* ikusi nuen, eta ene gisa pastoral batzutan nigar gozoa egiten dutenek konprenituko duten urrats berezi haren konpasean, oholtzaren ingurua egin zuelarik, eraman gintuen Etiopiarat.

Fournier-ek erran zuen hautatu behar zela idaztea edo uros izatea. Nik beste zentzuan dut ikusten, idazten dela bere buruarekin ez delarik ontsa, maluros delarik. Uste dut bidaia egiazkoa (oroit zaitezte xantza bat eman dudala turistak ez diren gutiengo batez), ezinbiziaren aitzinean ihes doazenena dela, mirailaren bila doazenena. Horiek senditzen dute gizartearen edena eta ikusten dute isurtzen. Aski zaie akerraren errola hartzea, Venezian bere historiaz preso usteltzen ari den mendebalde honen sinboloa ikusteko.

Maiatz aldizkariaren ale zaharrak arrairakurri nituelarik Itxaro Bordak poesia palestinarraz egin itzulpenak arratzeman nituen eta bersenditu egin zidaten eragina.

Hawad poeta tuaregtarrak zidan esplikatu Bereterretxeren kantorearen funtzio soziala. Eta hemen nork eginen du gurea? Nork ditu sublimatuko senditzen diren seinale guziak, hemengo idazleek ez badute beren ifernuetarateko jaustea egiaz onartzen.

Kanpoko bidaiariek? Bakan gertatzen da Lacarrière-rena bezalako hautua. Greziaren bisitatzerat doa, gerla hasten da eta turista

gisa Frantziaratu nahi dutelarik erraten die honestatez, populuari buruzko leialtasunaz, ez zituela greziarrak hersturari uzten ahal eta han geratzen da. Iruditzen zait tregedia grekoaz ari delarik haren ideiek besteek baino indar poxi bat gehiago badutela.

Kanpokoek Euskal Herriaz eginek orain arte ez naute sekulan ene buruaren aitzinean ezarri, ez *Etxemendi* best-seller-ak, ez *Courrier du Pacifique* bezalako baletak ere. Ez Itxaro Bordaren trilogiak bezainbat. Gogoarazi dit Baktin-ek egin zuen liburu bat, agerian ezartzen baitzuen Rabelais-en obran bideak zuen munta. Galtzeko bidaia baitigu egiten ahantzi, segeteruz betetako ekialdeko Euskal Herri batean. Historiaren misterio epikoetan, Zuberoko underground-ean, tipikeria politikoz josia, kantaldien sarea jarraikiz. Asumarazi dizkit behar inizatiko gisa hartu pistafla gogorrenak konprenitzeko uros ez izateak badituela bere abantailak. Idazle sortzaileak geroko idazten du.

Mila seinale ttipi horiek, banaka emanak edo emeki emeki sistema eginak piska bat beherago jausteko. *Buruxkak*-eko pilota-partida *Ramuntxo*-renari erkatuz, salatzeko zer makur erraldoia kukutua izan behar den ohore behar horretan eskuak xintxikatze-ko arte bere buruaz pagatzeko. Zer pairamena bizi ukan duten alde bat ebanjelizatuak izan diren familiak *Batita Haundia*-k kondatzen dituen bezalakoek.

Eta egin ez direnak. Zer frustazioa Hiriart Urruty-ren *Alferrak eske*-k ez duelakotz kontrastemarik ukan. Ikus ditzagun Hazparne, Ortaize, Garaziko oskigileak, oletako langileak bideetan eskelari boteak, Argentinat joateko dirurik ez, iraultza industrialak buhametuak eta lurraren mundu xuria Brassens-en *croquantes et concantes*-z jantziak.

Buhameak. Iraganeko edo biharko gaia? Iñigo Aranbarrik *Jakin*-en Iparraldekoiei eman zizkien oraingo literatura baten egiteko aholkuen artean, lurmundu horretaz mesfidatzea zen lehena,

joatea. Oraingo haurrek, familia madarikatu horietan sortuak buhame izenez iraintzen dituzte laborari semeek eta besteek ere. Goarda-seme-alabek ikasten dute hilabete batez, euskara baino fiteago. Arrazismoaren kontra eskabideak izenpetzen dituzte auzo bidaiariak. Hau ez dute ikusten. Normal ez dira buhameak berrehun bat baizik. Andu Lertxundik *Akilimarro*-n pagatu nahi die zorra, deabruaren jakintza positibo bilakatzen zaiolarik buhamesari. Erdi Aroan pasatzen da desagertu benta mota batean. Alta biharko bidaiantzat josten ditu belak.

Elizak eta elizgizonek egin hautuek (besteak beste buhameak bi etsai ditu, laboraria eta apeza) mila aldiz sortu dizkiguten kexu ikaragarriak buru egiteko ez zuen Iratzederren barnejausteak baizik erraten ahal apez batzuk Jainkoaren baitan sinesten zutela. Indar horrekin. Gure artean zubi egiten duen euskaltasun horrekin. Itsaso hori gurea, bidaia guzien abiapundu, alpha eta omega, ona ala gaitza. Miranderen jainkosa zeltikoa, ametsetako paradisu urreztatuen babesle edo marrumaka Ziburuko Etxeberriren mari-nelak orroaz beldurrez atxiki zituen.

Mikrokosmoen idazleak izanen gara. Mundu berdinduak zapartzeko, poxikatzeko xantza guziak ditu, baina mikrokosmos bakoitzean kosmos osoa bada. Gaineratekoa lana da gauza horiek kontaktuan izan daitezen. Bidaia boz horien entzuteko gai izatea da. Ez da denei emana. Xipri Arbelbidek baulez du ikasi bere euskaltasuna.

Ekologistetan, ikertzaileetan diot, bi motakoak badira, planetak aipatzen dituztenak, han eta hemen ikusi espezie tipikoenak eta baratze-kantoi bat arakatzen dituztenak, eremu tipi horretan biziaren infinitua kausituz. Kontziente naiz bigarren kategoria honetakoa naizela. Sinesten dut ere bigarren mailako idazleen baitan, anitz baita nornahik ikusten duen xehetasun soil batean.

Aipatzen ditudan horietarik izanki ez da nornahi Lacarrière-

Palestinarat abiatuz xantza guti dut delako poeta horrekin batzeko. Ez da literaturan baizik egiazki bidaiatzen.

Ez nuke nahi pentsa dezazuen ez dela iparraldean parean duzuen hau bezalako mintzatzaile kaotikorik baizik. Baina arestian nioen bezala, norabait joaten delarik azaltzen den lehena ez da kontaktu ona. Bilatu beharko duzue gehiago zerbaiten konprenitzeko, ea turistak edo bidaiariak zaretenez.

Itzulpengintza



Tere Irastortza
Juan Mari Irigoien
Juan Kruz Igerabide
Xipri Arbelbide

Eskolako oharrak:
Euskal itzulpenaren norabide eta noragabeak

Komunikazioak beti behar du HARTZAILE eta ESATARI bat, MEZU batekin batera. Hala erakutsi zaigu, aspaldion.

Badakigu, jakin, eskema horrek aldagarri anitz eskaintzen duela: batzuetan mezuaren deskonposaezina eta ulertezina berak bihurtzen baitira mezu, eta beste batzuetan, igorle-mezuek hartzailearen deuseztapena eskatzen baitute.

Badakigu, jakin, literatur generoen azterketa bera ere eskema horretatik abiatuta ere uler daitekeela, epika, lirika eta dramatika bereiziz. Baina, gero, eskema horrek egituraketa jakin bat du. Gizarte bakoitzean birmoldaturik kausitzen dugu.

Euskal literatura deitzera ohiturik gaudenaren historia –ondo ikasirik geratuko zineten– euskal itultzaileen historia da neurri handi batean. Badira behin eta birritan itzuli izan diren liburuak, eta itzulpenaren ibilbideez jabetzeko datu hori ere garrantzizkoa da.

HARTZAILEAREN GAITZESPENAZ eta MEZUAREN TRANZENDENTZIAZ

Neurri handi batean, euskal literaturaren historiak eta, behar bada, itzultzaile guztienak, badute zerikusirik nork bere buruaren eta hartzailearen gutxiespenarekin. hau da, euskal literaturaren historia erlijiozko dibulgaziozko izateak badu zerikusirik gure eguneroko errealitatea ikustezin edo adieraztezina izatearekin. Esan nahi baita, euskal literaturatzat hartzen dugunaren gaiei begiratuz gero, oso gutxitan agertzen dela garaiko bizimoduarekin lotu-takorik

Aldiz, euskaldunen bizimoduaren berri (neurri apal batean) ematen zutenak, sarri, euskaldunen aurkako testuetan txertaturik agertzen dira. Eta konparazio argienetarikoa A. Picauden hitzak ditugu. Berak jasotako hiztegia amodio handiz ikasi dugu filologiako ikasle askok, baina, zein testutan txertaturik zegoen ikusiz gero, Picaudentzat geneukan begirunea izu bilakatzen da, De Lancrek torturatuei euskarazko aitortenak kopiatu balitu sortuko zitzaigukeen bezala.

Euskal Herriari buruz mintzatu diren esploradore euskaldunak ere izan ditugu, kuantu (Oihenart, Larramendi...) baina Euskal Herria arrotzentzat izan da beti interesgarri eta, orain bezala, Euskal Herria gai hartuta, euskara ez den beste hizkuntza batzuetara isuri dituzte beren gogoetak gure esploradoreek.

Egia da, prezeptibak inork uste baino indar handiagoz erasotzen diola errealitateari begiratzeko moduari, eta eguneroko bizimoduaz hitzegitea, neurri handi batean, arlotekeriak hitzegitea zela. Hori zela eta bi ikuspegi egon dira euskal herrietaz mintzatzera koan, alde batetik, ikuspegi komikoa eta bestetik ikuspegi hezitzailea.

Euskal Herriaren berri iritsi da sarri ikuspegi komiko batez, beste herri askotan gertatzen zen bezala (Zer ziren bestela Rabelai-

sen lanak edota Italiako XV. mendeko komediak). Eta komiko beharko herri baten aurkezpenak, ikuspegi sublimea eskaintzeko heroerik ez duen herri batean.

Komizitate hori izan da, aldi berean, idazleak bere inguruaz hartzen zuen distantzia. Neurri batean, idazteko gai zirenak beren burua herri xhetik bereizteko ahalegina egin nahi izan balute bezala.

Beste batzuetan, herri jentil eta hezigabeen jaiotakoen defentsa herri hori onbidera eramateko katekizatzeko bideak jartzea izan da, eta horrelakoetan, itzulpena behar beharrezkotzat hartu zuten euskal idazleek.

Baina kasu batean zein bestean, distantzia hori identifikazio ezetik sortzen da. Batzuetan, idazlea ezin da identifikatu, berez, hartzaile behar zuenarekin, bere herkideekin, herkide horiek ELEBAKAR izaki, bere elebakartasunean, kultur-maila letragabekoak izaki. Beraz, bere herkideek irakurriko ez dutenez idazleak sortutakoa, hizkuntzaz aldatu eta mintzagai bilakatu dute. Besteetan, hezi beharreko eta onbidera ekarri beharreko izaki, herkideak erlijioak agindutako ereduarekin konparatu eta, noski, ia beti aski figura tristea erakutsi dute.

Eta egoera honetan, zein da itzulpenaren papera?

Batzuetan, herkidea hezi alde MEZUAK transzenditu egin behar du igorlea bera eta baita hartzailea ere. Transzendentzia horretan dago batasuna. Hala gertatzen da erlijiozko testuen itzulpenetan. Gehienetan mezu jakin bat, arean, munduan barrena hedatua dagoen mezua jasotzea ahalbideratzeak altxatu, goratu egingo duelakoan sorterrria.

Baina gerta liteke beste egoera bat ere, gure garaian nahiko hedatu dena, eta zera da, hartzailea igorle bihurtzea. Hori ere, kuantu, herkidearekin identifikatu ezinagatik gertatzen dena.

IGORLEA BERA HARTZAILE DENEAN

Gatozen 60ko hamarkadan egiten hasi zen literaturara. Gatozen Pott-bandara, gatozen Krisellu taldera.

Hautan, *igorle-mezu-hartzaile* eskemaren aldenrantzizkoa, hots, hartzailea igorle bihurtzeko aukera, desesperazioz burutu-tako amiltzea izan zen, hein batean. Esan daiteke, hartzailea igorleak zer eskainiko zegoela eta eskainitako hori gustatzen ez eta igorle izatera pasa zela. Aurreneko aldiz, bazen euskaldun izatea aldarrikatzen zuen masa-kritikoa, eta aldi berean, igorleak bideraturako mezuarekin lotsatzen zena. Ez zen belaunaldi haustura bakarrik izan, distantzia, oraingoan, hartzaile kopuru horrek sortu bazuen ere.

Neurri batean haustura horrekin batera hartzaileak igorle izatera pasatu ziren, baina, mezua aldatu zuten arren, ez zuten ahal bezain agudo eskuratu hartzaile berririk. Igorle bilakaturik, beren buruentzat idaztera behartuta bezala aurkitu ziren, eta, beraz, denboraldi batez, euskal literaturaren eskema ez zen larregi aldatu. Baina igorle horiek, oraindik, hartzaile konzientzia handia zuten, eta behar zuten, igorle-lanean bere gainetik zegokeenik bere buruak indartzeko, eta orduan munduko literaturara hurbiltzeko egarria sortu zen, inguruko beste herrietan gertatzen dena baino askoz handiagoa.

Eta hala hasi zen euskal literatura modernizatzeko ahalegina, zeinetan euskaraz idatzitakoak beste espazio bat behar zuten: hiritarra; zeinetan, kultur modernizatuan euskarak beste erreferente batzuk behar zituen, Euskal Herriko modernitatearen parametroetan Euskal erreferentekide ez zegoenez. Beste horrenbeste gertatu bide zen artean ere, non errealismoak ez zuen euskal kutsurik eta euskal kutsua *country*-egi zen

Orduan geratu zen (eta ondo erabakior) euskara batuaren

auzia, aurkakoek ere erreferentegabetzat zeukatena, eta horregatixe izan zena mundu urbano batetarako baliagarri

Orduan, errealitatearen hustuketaren aurrean bakarrik gertatu zen inprimagarri euskal arima. Euskal arima erreferente gabe, galdekizunaren arima bilakatu da, galdegilearena.

Itzulpengintzaren ateka eta autobideak

Denak itzulpen egiten ari gara kasik sortu garenetik nire ustez, batere ohartu gabe, ingurumen erdaldun batetan bizi garelakotz.

Profesionalki nire lehen itzulpena egin nuen, lanik ez nuen garai batetan, zerbait aritzeko. Lana berriz aurkitu ondoan baizik ez nuen bururatu. Elkar-ek erran zidan nahi nuen itzulpena egin nezakeela. Oroit naiz abisatu nindutela, asko hasten zirela bainan bidean gelditzen. Bidean gelditzen diren haietatik ez nintzela izanen egin nuen. Lana bururaino eramane nuen. Eta hala izan zen. Gostarik gusta.

Zerbait itzultzekotan frantsesetik egitea zela egokiena iruditu zitzaidan. Oroitu nintzen, Algerian soldadu nintzelarik oso gustatu zitzaidala François Mauric Frantses idazle famatuaren *Thérèse Desqueyroux* eleberria. Idazlearen ezagunenatarik izanez, itzultzea balio zuela pentsatu nuen eta lotu nintzen lanari.

Orduan nintzen ohartu zer frantses bihurria zuen Mauriac-ek. Algerian, irakurtzea aski zen. Itzulpena egitea besterik zen! Per-paus menperatua per-paus menperatuaren gainera, erlatiboa erlatiboaren gainera ezin bururatzeko erranaldietan...

Zin egina nuen eta ez nintzen bidean geldituko. Izerdi ederrik bota nuela aitortu behar dut, bainan iduritzen zait geroztik hobeki ulertua dudala zer den erlatiboa euskaraz, geroago erranen

dudan bezala eta badakidala ere erranaldi baten itzulpena azkenetik egiten hasi behar dela eta ez hastapenetik, frantsesari jarraituz.

Geroago itzuli dut *Pete Aguerberry*, joan den mendean Ameriketara joan Zuberotarren istorioa. Inglesa ximplea zen eta ez dut ezin gaituzko trabarik izan bidean. Baziren ba, Amerikanen «argot» hitz zenbait edo Death Valley eta meategietako langileen hitz berezi batzuk, baina ez izerdiaren botatzekorik. Eta horrelakoetan, jakintsun bereziak aurkitzen dira eskuin edo ezker.

Azkenik, egun guziez irratiantzat berriak egitean, bortxatuak gara itzulpenak egitera, iturri gehienak frantsesez edo gaztelaniaz baitira. Libertate handia dugu, ez baitugu zuzenezko itzulpenik egiten bainan frantsesez edo españolez irakurtua edo entzuna, euskaraz ematen, kondutan atxiki gabe zer sintaxia edo zer hiztegi baliatua duen erdarak. Gure egina duguna, geure moldean botatzen dugu. Gertatzen den gauza bakarra, hitz bat edo besteren itzulpena ez ezagutzea eta hiztegi baten ez aurkitzea... edo itzulpena, erdarazko hitza bezain arraroa edo arraragoa izatea gure entzuleentzat!

OHAR OROKOR ZENBAIT

Itzulpenak egiteko bejar dira bi mintzaira menperatu: euskara eta beste mintzaira, frantses, gaztelania, ingles eta abar. Zoritxarrez euskara barnetik ezagutzen dugunok guti gara eta askotan, gehiegitan, itzulpenak fotokopiak dira, bigarren mintzaira horren fotokopiak.

Euskarak baditu bere berezitasunak bere aberastasunak. Eta nola gaztelania edo frantsesean murgilduak garen haurtzarotik, berezitasun eta aberastasun horiek arrotzak zaizkigu, behin ere ezagutu baldin baditugu! Adibide zenbait emanen ditut.

Har dezagun *gorria* hitza. Ez da bakarrik kolorea. Beste gauza asko ere erran nahi ditu.

Norbait beharrean delarik, frantsesez erraten da «il est dans la misère noire». Eukaraz berriz «*miseria gorrian dago*», «behar gorrian» eta ez behar beltzean edo miseria beltzean. Beltz hitz horrek bitxi egiten baitu euskaraz hemen, zenbatek ez dute itzultzen «behar handian» erdaratik urrun den itzulpen bat egin dutela segur! Bizkitartean, pasiboki ezagutzen eta ulertzen duten «gorria» horren erran nahia, ez zaie aktiboki gogora heldu beharra badutelarik.

Biluz gorri dela erraten dugu osoki biluzia den batentzat; nahiz biluz gorri denaren larrua baino seguruago zuria den... edo beltzaranak uda hondartzan pasatua baldin badu, bainan erranmolde hori asmatu zutenek ez zuten arratsalderik pasatzen hondartzan luzaturik...

Iruña hegoaldean bada *Mendigorria* deitu berri bat. Lurra ez da gorria. Hain segur, mendi biluzia zelakotz, zuhaitzik gabe, zeukaten «gorria» mendi hori, garai haietan.

Hortatik dator ere *ohe gorrian* lo egitea, mihiserik ez duen ohe batetan.

Haize gorria, erran nahi baita mozten duen haize bizi bat.

Balur gorria: osoki balurik.

Gerla gorrian dira: osoki hasarre.

Beranta gorria: oso berant.

Hona frantsesaren fotokopia adibide batzuk. Menturaz gaztelaniaz ere berdin da, baina ez dakit.

- Erran dit zaldiz etorri dela. Euskara garbian, erran dit nola zaldiz etorri den.

- Etorriko da ez badiote debekatzen = etorriko da non ez dioten debekatzen.

- Bakotxa beren etxetan daude = zein bere etxetan daude.

- Quoi qu'on dise: fotokopia = zernahi erranik ere.

Euskaraz: nahi duenak nahi duena erranik ere.

- On en peut les distinguer les uns des autres: fotokopia = ez daitezke bat besterik «distingitu» (!?). Euskaraz: ezin daitezke erran zein diren.

- Au gré des circonstances: gertakarien arabera edo «zirkunstanzien» (!?) arabera. Euskaraz: noiz nola.

- «Oportunista» da = noiz nolako haiatarik da; edo: tokian tokiko jendeen arabera mintzo da. Non nola, edo, nori nola mintzo da.

Hitzen erranahiaren eremua ere ez da batere berdina eta zoritxarrez frantsez edo gaztelaniazko hitzen eremua euskarazkoa baino hobeki menperatzen dugu. Har dezagun «eman» euskarazko aditza. Ez da bakarrik frantsesezko «donner» edo, gaztelaniazko «dar». Biziki zabalago da.

«Atsegin handia eman dit» erran behar lirateke eta ez frantsesaren fotopia den «atsegin handia egin dit» = il m'a fait grand plaisir.

- Munduan eman nau eta ez «ezarri nau» = il m'a mis au monde.

- «Suposa» (!?) dezagun = eman dezagun.

- Utzi bakean = emazu bakea.

- Bizkarrez agertu da = bizkarrez eman da.

- Erakustera emana du = il a fait voir.

- Emak aintzina = continue.

- Errege bati egokia zaion bezala = errege bati eman zaion bezala.

- Hemen pasatu denbora = hemen eman denbora.

- Meza erran du = il a dit la messe; Euskaraz = meza eman du.

- Mutxikoak dantzatu dituzte: mutxikoak eman dituzte.
- Preso ezarri dute = preso eman dute.

Esaera horietan denetan ikusten da «eman» euskarazko hitza-
ren eremua eta *dar* edo *donner*-renak batere ez direla berdinak.
Eta gauza bera litzateke beste hitz anitzekin.

ERLATIBOA

Beste puntu bat ere aipatu nahia nuke, «zein»-en erabilera
erlatiboen itzulpena egiteko. Lafitte-k idazten du bere grama-
tikan: «nous n'hésitons pas à condamner ce charabia». «Beha-
rrian min egiten duen hori kondentzen dugu den mendrenko
dudarik gabe» (gramatikaren 775 zenbakian). Bai eta, «ce qui est
atroce, quoique littéral». «Nahiz hitzez hitz egin itzulpena den,
min egiten du». (722 zenbakian.)

Zeintan, zeinek... galderazko izenordeak dira. Españolez erra-
nen duzue: el hombre que he visto? Edo frantsesez «l'homme quel
j'ai vu?». Berdin bitxi egiten du «zeintan» horrek erdararekin guti
torratu den Ezterentzubiko edo Behorlegiko Euskaldun zahar
baten beharrian. Biak logika berari jarraikitzen dira.

Erranen didate klasikoek erabiltzen dutela. Nire ustez ahal
bezala egin dute beren garaian. Ez da ahantziz behar lehen itzul-
tzaileak izan direla. Uste dut zenbait mendez urratsak egin ditu-
gula aintzina itzulpengintzan eta ez dugula duela hiru do lau
mendetako heinean gelditu behar.

Funtsean beste asko pundutan ez gatzaizkie jarraikitzen hala
nola hiztegi munduan. norik eman lezake bere libururari titulu
hau, gaur egun: «Arima penitentaren okupazione debotak» Tarta-
sek egin zuen bezala 1672an?

«Araueko erretoraz egina» idatz genezake ala, «Araueko erreto-

rak egina?», «Fait par la curé de Tartas» frantsesezkoaren esklabo da Tartas, ez baita ohartua euskarak ez duela pasiborik.

«Demoniak ikusirik saindu *generos* haren *konstantzia*, *atentziona* eta *deboziona*, oihu eta azantz *horrible* bat eginik...» Nork idatz lezake gaur egun gure klasikoaren erranaldi honen parekorik?

«*Nesezituaren artikulu* hartan *permis* dela fraide bati ebastera paubriaren salbatzeko» idatz genezake ala «Behar gorrian ebastea haizu da fraide bati paubriaren salbatzeko?» «Ebastea» eta ez «ebastera». «Ebastea» hitza tokiz aldatuz garbiago ageri da fraideak dezakeela ebats, Tartasen erranaldian iduri bailuke fraideari zerbait ebats diezaiokegula.

Bina erlatibotik abiatua nintzen... Hona Tartas-en ateraldi bat.

«Nahi dianak ikasi manera eta metodoa orazione mentalaren pratika, irakurt bitza PP. jesuista debotek, Coton, Caussin, Richeome, Binet, Pons eta bertze ainitz, *zoinek* dokteki materia haur traktatzen baitüte, *zoin* komunzki deitatzen baitira Jesüsen Konpainiako aitak, *zoinen* ordriaren lehen fundatzailiak izan baitira S. Iñaze de Lohiola eta S. Frantses de Jabier, biak Eüskaldün Eüskal Herrian sortü eta *zoinen* dizipülü diniek ohore eta abantaila handirik egün oroz emaiten baitüte Jesü Kristen elizari, popülü, nazione kristino diren orori, itsasoan eta lü idorrian, orienten hasirik okzidentera drano.»

Hona nola itzul litekeen ateraldi ber bera gatz eta biper frantsesa, gureaz ordaindurik.

Gogo-otoitzaren praktikari buruz, molde eta bide ontsa ikasi nahi dianak, irakur bitza gai hau oso ongi lantzen duten Coton, Caussin, Richeome, Binet, Pons eta bertze anitz, Jesusen konpainiako aitak direnak komunzki, beren ordenaren lehen sortzaile

izan direlarik Lohiolako Iñaki saindua eta Xabierreko San Franses, biak Euskal Herrian sortu euskaldunak, beren dizipulu oho-ragarriek ospe eta abantaila handirik ematen baitiote Jesu Kristoren Elizari, bai eta populu eta nazione girixtino orori, itsasoan eta lur idorrian, ekialdetik hasirik mendebaldera drano.

Hor ez da «zein» bakar bat ere. Erlatiboa itzultzeko badugu molde bat baino gehiago eta horietarik bat, hain zuzen, «zoin» hori erabiltzen dutenak, nahi ala ez, «zein» lauzkatzeko behar duten «bait». Zenbat idazle, ez baitute sekulan santan «bait» erabiltzen erlatibo bezala! Hain praktikoa delarik eta hain beharrezkoa!

Hona Lafitte-ren gramatikatik hartu zenbait adibide.

- Gizon bat ikusi dut ez baitzuen ile ondorik ere. Eta ez: gizon bat ikusi dut zeinek ez baitzuen ile ondorik ere.

- Gizon bat ikusi baigenuen zubiburuan, hura bera zen.

- Zikoitz bat ikusi baigenuen zubiburuan, hura bera zen.

- Zikoitz batzuk dira, harrigarriak, harmaren beldurrak ere sos bakar bat ez bailiezaieke nehondik ken. Eta ez: zikoitz batzuk dira harrigarriak, zeini beldurrak ere sos bakar bat ez bailiezaieke ken.

- Mutiko hori, haren aita ez bainuen behin ere ikusi. Eta ez: mutiko hori, zeinen aita ez bainuen behin ere ikusi.

- Andere bat zen, harekin oroit bainintzen lehenago mintzaturik. Eta ez: andere bat zen zeinekin oroit bainintzen lehenago mintzaturik.

- Zer da adimendua, hartaz baikaude guziz hantuak. Eta ez: zer da adimendua, zeintaz baigaude guziz hantuak.

Ohartuko zarete erranaldi horietan guzietan «zein» ez daiteke-ela erabil bait gabe. «Bait» aldiz bai, zein-ik gabe!

Hain da Euskaldun zaharren odolean sartua «bait» forma hori

non frantsesez «bait» erlatiboa eta «parce que» («porque»)ren arteko diferentzia ez baitezakete egin.

«Vous savez, l'homme parce qu'il est mort l'an dernier» erranen dute erranaldi honen partez «Vous savez, l'homme qui est mort l'an dernier». Euskaraz erraten delakotz: badakizu, gizon hura, jaz hil baitzen.

Irakasle batzuei ikastaldi bat egiten ari nintzelarik, «bait» hori aipatu nien erlatibo bezala. Bitxia egiten zien. osoki erdarazko «parce que» eta «porque»-rekin identifikatzen baitzuten. Beste zerbaitetaz ari ginela, ezagutzen nuen norbait aipatu zidaten, nihaur batere ez nintzelarik hartaz oroit. Irakasleetarik batek erran zida: «Ba! badakizu! bizar gorria baitzuen!», «Horra hor delako "bait" erlatiboa zuhauren ahotik», erran nion. Atsotitz frantses batek dio: «chassez le naturel, il revient au galop!».

«Zein» erabiltzen den aldiz oroz, «bait» behar da beraz. Eta hain zuzen «bait» hori, berenez erlatibo bezala erabilia da euskaraz. Bi erlatibo behar genituzke euskaraz, erdarak bat baizik ez dutelarik erabiltzen?

LUZETASUNA

Mauriac-en itzulpena egin nuelarik, frantseseko erranaldiak errespetatu nituen, beren luzetasunean, horrek sortu zitzaizkidan zailtasunekin. Bainan beharrezkoa dea hain erranaldi luzeak egi-tea? ezin daiteke frantses edo gaztelaniazko erranaldi luze bat bizpahiru laburragotan itzul euskaraz?

Uste dut beste mintzaira batzuetan, itzulpenak egiten dituzte-larik ez direla itzultzen duten mintzairaren esklabo gelditzen, guk egiten dugun bezala eta libertate gehiago hartzen dutela, beren mintzaira hobeki errespetatzeko. Ez ote genuke guhaurek ere bide bera hartu behar?

ITURRIAK

Itzultzaile ona izateko, behar genituzke hiztegiak eta gramatikak irakurtu eta guretu, hala nola Lhande-rena Iparraldekoentzat, hor ageri baitira gure mintzairaren berezitasunak eta erdararekilako diferentziak.

Behar genituzke ere irakurtu eta guretu Gotzon Garateren «erdarakadak», Koldo Izagirre-ren *Euskal Lokuzioak*, Mikel Azurmendiren *Euskal nortasunaren animaliak*, Patxiku Perurenaren *Euskarak sorgindutako numeroak* eta gisa bereko liburuak, bai eta Euskaltzaindiaren hiztegia edo *Diccionario Retana de Autoridades del Euskara*.

Behar genituzke atsotitzak erabili, gure liburutegiko maila gorenean edergailu bezala utzi gabe atsotitz-liburuak.

Hor sar gintezke gure hizkuntzaren mamian eta gure itzulpenak ez litezke beste mintzaira baten fofokopia hutsak.

Aholku on horiek, egia erran, baliagarri dira edozein idazlentzat eta ez bakarrik itzultzaileentzat! Bainan erdarara erortzeko arriskua handiagoa dela itzultzailearentzat, ezin uka.

Itzulpenaz eta hartaz (hartaz batez ere)

Hasi baino lehen esan beharra dut, kasik ustekabean egin nuela topo itzulpenaren munduarekin, eta ez naizela inoiz ere sentitu gai horretan espezialista. Eta mundu horretan sartu banintzen, nire sorlanetarako beste patxada bat eta beste lasaitasun bat behar nuelako izan zen, eta beta gehiago ere bai, eta hala utzi nion ikastolako irakasle izateari, eta bihurtu nuen itzulpengintza ogibide berri. Eta gehienbat Euskal Telebistarentzat aritu nintzen be-deratzi-hamar bat urtetan. Horregatik, ez dut orain artean literatura unibertsalean lehen mailakotzat izan dezakegun liburu horietakorik itzuli, eta itzuli ditudanak Roald Dahlen *Erraldoi On Miragarria*, *Sorginak* eta *Georgeren Medicina Miragarria* dira, Erein argitaletxearen eskutik. Hiru liburu horiek, besterik ez. Hala, bada, Tere Irastorzak deitu, eta itzulpenaren inguruko hitzaldi edo ikastaldi hauen berri eman zidanean, saiatu nintzen era diplomatiko batean ezetz esaten, baina ikusten duzue zertan bukatu ziren nire diplomaziak eta gainerako graziak: ezertan ez.

Esan nion, nekien guztia bost edo hamar minututan esan nezakeela, eta berak erantzun zidan: «Ordubete». Galdetu nion benetan ari ote zitzaidan, edo berak esandakoa itzultzen ibili behar ote nuen, itzulpeni buruz aritu behar nuenez, zeren guztiok baitakigu orduak ez direla beti bat han eta hemen, eta Europan, esate baterako, normala dela jendea ordu baterako geratu eta guztiok ordu horretarako doi agertzea, eta Hegoamerikan, aldiz, ordubete geroago. Eta noiz eta espero bainuen Hegoamerikako

orduaz ari zitzaidala, eta noiz eta pentsatu bainuen erraz bete nezakeela horrela ordu hura, zeren eta ordubete geroago iritsita ere guztiz bete bainezakeen agindutako orduarekin, eta deus ere esan gabe gainera, aitzitik, Terek ihardetsi zidan: «Europako ordua. Greenwichekoa». Ez nuen ihesbiderik.

Baina, esan bezala, ni ez naiz itzulpenaren munduaz asko dakien horietakoa, ez metodologiaz ez dialektologiaz, eta ez naiz, halatan, jakintsu teoriko burutsua eta, horregatik, gogoratzen zaizkidan gauzak botako ditut bata bestearen ondotik, datozkidan moduan, inongo ordenarik gabe. Bestalde, hurrengo eleberri prestatzeko eta hura girotzeko liburu mordoa irakurtzen ari naiz, eta haietan itzulpenei buruzko iruzkinen bat edo beste ere aurkitu dut, eta horien aipurik egin gabe ere ez naiz joango.

1. Hasteko, esango dut nire sorkuntza-lanak ere, nondik begiratzen diren, itzulpentzat ere har daitezkeela. Zeren eta itzulpena hizkuntza batetik bestera egindako traslazioa besterik ez da, edo mundu batetik bestera egindakoa, hizkuntza bakoitzak bere mundua duenez. Baina gaizki ari naiz. Izan ere, Tere Irastorzak aipatu ordubetea tartekatu zait une honetan. Eta Europako ordua ez da Hegoamerikakoa, eta nire ordua ez da zure ordua, ezta beste harena ere, nire sagarra –maitañoak umetan eman zidan sanjuan sagar ahanztezin hura, zeren eta lehen musua ez baita inoiz ere ahanzten– zure sagarra ez den bezala –zuk zuhaitzean zintzilik utzi behar izan zenuen errege sagar hura, amets baten antzera gogoratzen duzuna, baserritarra oihuka etorri zitzazulako eta ihes egin behar izan zenuelako–, ezta haren sagarra ere, sagardo bihurtua, Astigarragako Zapiain edo Petritegiko nagusiaren baitan. Eta euskaldun guztiok *sagar* deitzen diogu sagarrari, baina euskaldun bakoitza bere sagarrak bizi du; edo hori esan dit behintzat belarri-
ra, neure hurrengo nobelako protagonista izan daitekeenak. Horregatik, hizkuntza, bakarra delarik ere, aniztuna da, zeren eta hitz

bakoitzak eta esamolde bakoitzak bere forma eta bere kolore propioak hartzen baititu norberaren baitan. Eta horregatik ere, irakurle bakoitzak, bere hizkuntzan ari delarik ere, irakurraldi bakoitzean bere itzulpen propioa egin behar izaten du azken finean, ohartuki eta jakinaren gainean ez bada, oharkabean. Bai, badakit entzule batek baino gehiagok esan dezakeela urrunegi joan naitekeela noan bidetik, eta horrela hasiz gero, kale-kantoi bakoitzean Babel-dorre batekin topa gaitzkeela, eta hala da, baina nik ordu osoa bete behar dut, eta nire orduak ez dira Tererenak, eta ez daukat beste erremediorik asmatzen ibiltzea baino.

Halarik ere, nioen, nire sorkuntza-lanak, nondik begiratzen diren, itzulpentzat ere har daitezke. Eta adibide gisa, nire lehen bi nobelak aipatuko dizkizuet: *Oilarraren promesa*, eta *Poliedroaren hostoak*. Izan ere, egun batean Hegoamarikara joan eta hango mundua edo hango munduak ezagutu ahal izan nituen. Eta ezagutu nituen gorputzaren begiz, batera eta bestera bidaiatuta, eta ezagutu nituen arimaren begiz, bertako idazleen liburuak irakurrita. Eta idazle haietatik bi izen gailendu zitzaizkidan aldi hartan: Gabriel García Márquez eta Juan Rulfo. Eta nola mundu haiek liluratu baininduten, hala bururatu zitzaidan mundu haiek nola edo hala neureganatzea eta euskararen mundura ekartzea, eta hala sortu ziren bi liburu haiek. Baina sortu aurretik ere, banuen eredu bat, pinturaren mundutik zetorkidana: Artetarena. Izan ere, zer egin zuen gure pintore handiak bere begiak mundura zabaldu baizik, mundua ere bere egin ahal izateko, baina beti ere bere euskal erroetatik? Zer egin zuen, kanpo-begiek ikusia barne-begiek bizi izandakoari txertatu baizik? Eta nola kanpora begira dauden begiak ez diren barne-begien hizkuntzan mintzo, hala itzuli zuen eta egokitu munduan ikusi zuena bere mundura eta bere berezko hizkuntzaren mundura, eta korronte unibertsal hura partikularizatuz egin zen bera ere unibertsal.

Bestela, badakit gutxienez bi teoria edo bi aukera ditugula itzuli beharreko liburu baten aitzinean: bata, zurruna, *ad litteram* dei diezaiokeguna, edo *ad verbum*, hots, hitzez hitz eta literalki egin beharrekoa; eta bestea, malguagoa, hitzen eta esaldien izpirituari begiratu liokeena, eta jatorrizko hitzak edo esaldi osoak ere beste era batean emango lituzkeena itzultzerakoan, baldin eta ordaineko beste hitz horiek eta beste esaldi horiek jatorrizko izpiritua hobeki adieraziko balute. Ni, egia esan, bi teoriak baliatu izan naiz, eta abiapuntua lehena izan bada ere, zeren ahal izanik jatorrizko testuari heldu behar baikenioke hitzez hitz eta esaldiz esaldi, jatorrizko hitzen itzulpenak euskarazko munduan motz utzi izan nautenean, ez dut zalantzarik izan, eta beste bide batzuetatik abiatu izan naiz, izpiritu hura hobeki islatu ahal izateko. Eta hori, kasu guztietan: arruntetan eta berezietan. Eta arrazoia sinplea da, zeren eta neuretzat nahi izaten dudana besteentzat ere nahi izaten dut. Eta zer nahi dut nik, noiz eta testuren bat itzultzen baitidate? Nahi izaten dut testu itzulia ahalik eta dotoreen gertzea itzultitako hizkuntzan eta, horregatik, askatasun handia eman izan diet itzultzaileei. Eta, horrela, itzultzaile batek eskas eta gatzik gabe baleritzo jatorrizko testuaren ordainean egindako tradukzio hitzez hitzekoari, eta haren ondoan eta haren parean, itzulpen lana hobetzeko asmotan, bizpahiru aldaera-edo bilatzen ahaleginduko balitz, nik ez nioke inoiz ere trabarik ez oztoporik jarriko zuzenekoa eta hitzez hitzekoa bazter lezan, baldin eta aldaera haietakoren bat ederragoa eta distiratsuagoa balitz: aitzitik, eskertu egingo nioke. Eta, alde horretatik, esan daiteke nik gehien maite dudana eta miresten dudana itzulpena beste sorkuntza-lan bat dela. Bai, badakit bide honetatik arrisku bat dagoela, eta gauzak bere lekutik ateraz gero, guztia bihur daitekeela zehaztasunik gabeko jolas bat, eta itzulpena hitzen su-festa huts, eta itzuli beharreko liburu beste liburu bat, baina horrekin batera ez genuke ahantzi behar beste faktore bat, eta faktore hori zentzua

da, hain komuna ez den zentzuzko zentzu hori, neurriaren berri emango ligukeena. Edo beste era batean esanda, itzulpena zentzua eta irudimenaren arteko konbinazio orekatua da niretzat, edo hala beharko luke.

Lehen kasu arruntak eta bereziak aipatu ditut, eta hauen artean hitz-jokoak-eta leudeke nabarmen. Eta, ildo horretatik, nik egindako itzulpenetatik *Erraldoi On Miragarria*-rena azpimarraitu beharko nuke, zeren eta jatorrizko testua –eskuetan, zoritxarrez, ez dudana– zirtoz eta hitz-jokoz beterik aurkitu bainuen eta, halatan, oso itzulpen libre a egin, eta agerraldiren bat edo beste ere aldatu behar izan nuen, jolas horien mesedean eta zerbitzuan, zeren eta liburua, bere mezua eta bere izpiritua bideratzeko, jolasgiro hartaz baliatzen baitzen, bai sakonean eta bai azalean, batez ere bere protagonistaren –*Erraldoi On Miragarriaren*– hizkeran. Eta oker ez banago eta oroimenak traizionatzen ez banau, uste dut hitz-joko horietakoren batean *hamaika* eta *Jamaika* nahastu nituela, eta handik aurrera Jamaikatik bideratu behar izan nuela agerraldi osoa, nahiz eta jatorrizkoan Jamaikarik ez zen azaltzen. Baina, esan bezala, tokiak eta lekuak baino gehiago jolasgiro berezi hura zen han inportanteena, eta berezitasun hura nola edo hala islatzea, eta horretan saiatu eta ahalegindu nintzen. Zalantzarik gabe *Erraldoi On Miragarria*-rena izan zen, nik itzultitako Roald Dahlen hiru liburuetatik, lanik akuilagarriena eta tradukzioirik sortzaileena. Beste biak askoz ere normalagoak egin zitzaizkidan, edo halaxe gogoratzen ditut une honetan bederen.

Badira itzulpen lan nekosoak eta aspergarriak, eta badira beste batzuk, zeinetan baitirudi goi-argi batek argitu eta goi-haize batek ukitzen gaituela, eta nola ahalik eta gutxien gogaitu nahi zaituztedan, bigarren motako itzulpen baten gora-beherak ekarriko dizkizuet hona, Jorge Luis Borges-en lumaren eskutik. Eta horretarako hark idatzitako artikulua bat itzuli dizuet –*El enigma de Edward*

Fitzgerald–, itzulpenean izan ditudan zalantzei gainbegiradaxo bat eman diezaiogun. Hona hemen testu itzulia:

Edward Fitzgeralden enigma

2. «Umar ben Ibrahim izeneko gizona Pertsian jaio da, kristau aroko XI. mendean (berarentzat, Hejirako bosgarrena), eta Korana eta tradizioak Hassan ben Sabbah-rekin –Hashishin edo asasi-noen sektaren fundatzailearekin– ikasten ditu, eta Nizam ul-Mulk-ekin –Alp Arslan-go bisirra izango zenarekin, eta Kaukasoren konkistatzaile–. Hiru lagunek, erdi serio erdi txantxetan, zin egiten dute ezen hiruetatik inork ez dituela besteak ahantziko, baldin eta zorrea eta halabeharra inoiz alde izaten baditu. Urteen buruan, Nizamek bisir kargua eskuratzen du: Umarrek txoko bat eskatzen dio, haren zoriontasunaren gerizpean, lagunaren prosperitatearen alde otoitz egiteko eta matematiketan meditatzeke. (Hassanek goi-kargu bat eskatu, eta erdietsi egiten du, eta, azkenean, bisirra sastarazten du). Umarrek Nishapurko Altxorretik hamar mila dinaretako pentsioa jasotzen du urtero, eta ikerketei ekin diezaieke, gorputz eta arima. Astrologia judiziarioari ez dio federik, baina astronomian murgiltzen da, sultanak bultzatutako egutegiaren erreforman eta berrikuntzan parte hartu, eta algebra-tratatu ezagun bat moldatzen du, lehen eta bigarren gradukoko ekuazioei zenbaki-soluzioak ematen dizkiona, eta ebazpen geometrikoak hirugarren gradukoei, konika-ebaketen bidez. Zenbakien eta astroen sekretuek ez dute haren arretarik agortzen; bere bibliotekaren bakardadean, Plotinoren testuak irakurtzen ditu (Platon Egiptoarra edo Greziar Maisua da Plotino Islamen hizkuntzan), baita Garbitasunaren Anaien Entziklopediaren berrogeita hamarretik gorako epistolak ere, heretikari eta mistikari buruzkoak, non arrazoitzen den Unibertsoa Batasunaren emanazioa dela, eta Batasun hartara itzuliko dela... Batzuek Alfarabiren

proselittoa zela diote (gauzetatik at forma unibertsalik ez dagoela zioen Alfarabik), baita Avizenarena ere, zeinak irakatsi baitzuen mundua betikoa zela. Kronikaren batek jakinarazten digu arimaren giza-gorputzetik piztienetarako transmigrazioan sinesten zuela edo jolas hartan jolasten zela, eta behin batean asto batekin solastu zela, Pitagoras zakur batekin bezala. Ateoa da, baina Koraneko pasarterik gaitzenak eta zailenak era ortodoxo batean interpretatzen daki, zeren eta gizon jantzi guztiak telogoak baitira, eta hala izateko ez da beharrezkoa fedea.. Astronomia, algebra eta apologetikaren arteko txolarteetan eta etenaldietan, Umar ben Ibrahim al-Khayyamik lau lerrotako konposizioak lantzen ditu, zeinetatik lehenak, bigarrenak, eta azkenak errimatu egiten duten; eskuizkriburik oparoenean bostehun koplaz zahar horietakoen egiletzat jotzen dute: urritasun hori ez da haren loriarentzat lagungarri ez mesedegarri, zeren eta Pertsian (Lope eta Calderonen Espainian bezala) joria eta ugaria izan behar baitzuen poetak. Hejirako 517an, Umar *Bata eta Anitzak* izeneko tratatua irakurtzen ari da; ondoez batek edo bihozkada batek eten egiten dio irakurraldia. Zutitzen da, markatzen du orria, haren begiek berriro ikusiko ez dutena, eta Jainkoarekin berradiskidetzen da, Jainko harekin, zeina existitu egiten den apika, eta zeinari, algebraren orri korapilotsuetatik, laguntza eskatu dion arrenka, egun hartan bertan hil zen, ilunabarrean. Urte haietan, Islameko kartografoek ezagutzen ez duten ipar-mendebaleko uharte batean, Norvegiako erregea garaitu duen errege saxoia garaitzen du duke normandiar batek.

Zazpi mende iragaten dira, beren argi eta agoniekin eta beren aldaketekin, eta Ingalaterran gizon bat sortzen da, Fitzgerald, Umar bezain intelektuala ez dena, baina bai tristeagoa eta sentiberagoa, agian. Fitzgerald dek bere benetako patua literatura dela badaki, eta hartara entseiatzen da, irmo eta soraio. Quixotea irakurtzen eta berrirakurtzen du, zeina kasik libururik onena iru-

ditzen baitzaio (baina ez du bidegabe jokatu nahi Shakespeare-ekin eta *dear old Virgil*-ekin), eta haren maitasuna hiztegitara hedatzen da, non hitzak bilatzen dituen. Ariman musikaren bat gordetzen duen orok bizitzan hamar edo hamabi aldiz bertsifika dezakeela uste du, astroak alde izatekotan, baina ez du pribilegio txiki hura neurritz kanpo erabili nahi. Pertsona ospetsuen laguna da (Tennyson, Carlyle, Dickens, Thackeray), eta ez da haiek baino eskasagoa sentitzen, bere apaltasunaz eta bere kortesiaz bestera. Berak idatzitako elkarrizketa itxuroso bat argitaratu du, *Euphranor*, eta Calderonen eta greziar tragiko handien hala-holako bertsioak. Espainieratik pertsiera ikastera jo du, eta itzulpen bat hasi du: *Mantiq al-Tayr*-ena, errege Simurg-en bila dabilzan txorien epepeia mistikoarena, zeinean txoriek aurkitzen baitute, zazpi itsasoen atzean dagoen erregeren jauregira iritsi eta gero, beraiek direla Simurg eta Simurg beraietako bakoitza dela. 1854ean-edo, Umarren konposizioen bilduma eskuz idatzitako bat uzten diote, errimak ordena alfabetikoaren arabera taxutuak, besterik gabe; Fitzgeraldek latinera itzultzen du bat edo beste, eta ohartzen da liburu jarraitu eta organiko bat ehun dezakeela, non goizaren, arrosaren eta urretxindorren irudiek hasiera emango dioten, eta gauarenak eta hilobiarenak bukaera. Asmo sinesgaitz bezain uste ez izateko horri eskainiko dio bizitza gure gizon soraio bakarti maniatikoak. 1859an *Rubaiyat*-en lehen bertsioa argitaratzen du, zeinari beste batzuk jarraitzen zaizkion, aldagarrietan eta eskrupuluetan aberats. Mirari bat gertatzen da: poesiari atsegin eman nahi izan zion astronomo pertsiar baten, eta Ekialdeko eta Hispaniako liburuak guztiz ulertu gabe irakurtzen dituen ingeles ezentriko baten ustekabeko elkartzetik eta bat egitetik, ezohizko poeta bat sortzen da, bion antzik ez duena. Swinburnek idazten du, Fitzgeraldek «Omar Khayyami betiko tokia egin diola Ingaltarrako poetarik handienen artean», eta Chesterton sentiberak, liburu paregabe honi darion erromantikotasunari eta klasikota-

sunari men eginik, ikusten du «ihes egiten duen melodia bat dagoela bertan eta iraun dirauen inskripzio bat», biak batera. Kritikalari batzuek uste dute Fitzgeralden *Omar* hori poema ingeles bat dela, izatez, pertsiar kutsua duena; Fitzgeralddek interpelatu egin zuen, doitu, hobetu eta asmatu, baina badirudi haren *Rubaiyat*-ek pertsiarrak eta antzinakoak balira bezala irakurtzea eskatzen digutela.

Kasuak jite metafisikoa duten iritziak ematera gomitatzen gaitu. Arima gorputz askotatik iragaten deneko dotrina platonikoa eta pitagorikoa sinetsi eta aitortu izan zuen Umarrek (hori bada-kigu); berea, mendeen buruan, Ingalaterran berraragiztatu zen, beharbada, matematikek Nishapur-en zapaldu zuten literatur patua betetzeko, latinez pikardatutako germaniar hizkuntza urrun batean. Isaak Luria Lehoiak irakatsi zuen hildakoaren arima zoritxarreko arima batean sar daitekeela, hari eusteko edo hura hazteko eta hezteko. Umarren arimak, ausaz, Fitzgeraldenean hartu zuen ostatu, 1857aren aldera. *Rubaiyat*-etan irakurtzen da Jainkoak sortzen, antzetzten eta kontenplazten duen ikuskizuna dela historia unibertuala; espekulazio honek (zeinaren hitz teknikoa panteismoa den) pentsarazten digu ingelesak pertsiarra birsor zezakeela, biok ere, funtsean, Jainko zirelako, edo Jainkoaren instanteko aurpegi. Naturaz gairikiko suposizio hauek baino interesgarriagoa da, eta miragarriagoa, aldi berean, zori eta asturu onaren hipotesia. Hodeiek, batzuetan, mendien edo lehoien formak itxuratzen dituzte; analogikoki, Edward Fitzgeralden goibeltasunak, eta Oxfordeko Bodleytarrean ahantzitako eta paper horian eta purpurazko letretan izkiriaturako paper hori batek, eratu eta itxuratu zuten, gure onerako, poema.

Misteriotsuak dira elkarrekiko laguntza guztiak. Ingelesaren eta pertsiarraren arteko hau, beste edozein baino gehiago, biak ere oso desberdinak zirelako, eta ez zirelako, beharbada, garaikideak

izan balira, elkarren lagun izango; eta heriotzak eta denborak eta gainerako gorabeherak balio izan zuten elkarren berri jakin zezaten eta poeta bakar bat izan zitezten».

3. Historia hain iruditzen zait ederra, non hitz bakar bat eranstea bekatutzat hartuko nukeen, eta jarrai dezadan aitzina.

Seguru nago ziklo honetan parte hartu duten edo parte hartuko duten beste idazle hizlari guztiek italierazko esaldi hura aipatuko zutela edo aipatuko dutela: *Traduttore, traditore*, itzulpen bakoitza traizio bat dela, alegia, zeren itzulpen guztiak dira maila batean edo bestean ezinezkoak, eta ezinezkoari aurre egiteak beti dakartza berarekin deserosotasunak eta desegokitasunak. Izan ere, hizkuntza bakoitzak bere berezko arnasa eta bere berezko izpiritua du, baita bere erritmoa ere, batzuetan oso markatua izan litekeena, beste hizkuntzen kontrastean, eta kontraste horietatik, jakina, halako zehazkabetasunak sor daitezke eta sortu sortzen dira, eta, horrela, idazleak jatorrizko hizkuntzan esan edo ulertu nahi izan zuena, guztiz beste aldera uler dezakete itzulpenaren ordaineko hizkuntzan irakurtzen dutenek, baldin eta zehazkabetasunak nagusi badira. Baina horrek ez gintuzke gehiegi kezkatu behar, lagunok, zeren eta hizkuntza berean ari garenoi ere eguneroko bizitzan besterik ez baitzaigu gertatzen... edo ez al zaizue zuei gertatu inoiz, esan uste duzuenaren aurka, besteek beste gauza bat ulertzea? Ikastolako bilera haiez gogoratzen naiz, zeinetan, gauzei hamaika buelta eta errebuelta eman ondoren, bakoitzak nahi zuena ulertzen baitzuen azkenean. Eta heltzen zen hurrengo eguna, eta Urliak esaten zuen: «Baina ez al genuen atzo zera esan...?»; eta Sandiak: «Ez, beste zera hura esan genuen, oso oker ez banago...»; eta Berendiak: «Ez, ez. Garbi geratu zen zeraren beste zera hura aztertu behar genuela». Zeren eta, bai, bakoitzak azkenean nahi duena ulertzen baitu. Eta itzulpenak, eta

gure arteko elkarrizketak, teorian zubi batzuk izan badaitezke ere, elkarren berri jakiteko eta elkar komunikatzeko eraikitzen ditugunak, gero, praktikan, noiz eta zubi horiek zeharkatzen baititugu, atzeraka egiten ditugu maiz, eta hala egiten dugu, finean, gure mundutik gure mundura, besteen mundura egin dugula iruditzen zaigun arren, zeren eta garrantzizkoena ez baita non jartzen ditugun oinak, baizik eta begiak nora begira ipintzen ditugun: gure begiak eta gure behakoa. Eta horregatik ere, nola, itzultzen duguna itzultzen dugula, aurkakoa ulertuko diguten, hala, ez dakit izango ez ote litzatekeen onena itzuli beharreko idazleari hasieratik beretik kontzienteki traizio egitea, eta jatorrizko testuan dioenaren aurkako itzulpena egitea, irakurleak, era horretan, aurkakoaren aurkakoa jaso dezan, finean: interpretazio zuzena, alegia.

Hala ere, txantxak aparte, ezintasun horretaz, poesian batez ere, askotan mintzatu izan da idazle bat baino gehiago, eta nik egunotan irakurritako XVII/XVIII. mendeko ingeles idazle baten pasartea gogoraziko dizuet, ikus dezazuen afera hauek aro guztietakoak eta betikoak izan direla: «...oso zaila da bi hizkuntza desberdinetan izkiriaturako poesia juzkatzea, honako bi arrazoi hauengatik. Lehena, hamar mila pertsonaren artean bat bakarra ere ez dagoelako, beste hizkuntza batean perfekzioa irits dezakeenik eta hizkuntza haren ederra berean bezain ongi ulertzera hel daitekeenik. Bigarrena, bi herrialdetako poesia-arauak, nazioen izaeraren arabera, batzuetan, darabiltzaten hizkuntzak bezain desberdinak izaten direlako, halako moldez, non, maiz, bataren faltak eta hutsak bestearen edertasunak izaten diren. Eta kasik ezinezkoa da jendeak atsegin har dezan, aldi berean, ohizkoarekin eta ez-ohizkoarekin». Une honetan poemarik ez, baina bertso bat, bai, oroitzen dut, akasgabea iruditzen zaidana: Domingo Kanpañarena. Baina euskaraz erabat biribila dena, nola geratuko litzateke beste edozein hizkuntzatan? Triangelu bihurtuko ote litzai-

guke zirkuluaren biribiltasuna zuena... edo karratu, beharbada, eta zirkuluaren koadratura frogatuko ote genuke era horretan...? Eta, Poesiatik abiatu arren, Zientzietarako Nobel saria emango ote ligukete asmakizunagatik...? Auskalo...

Eta, azkenik, Euskal Telebistarekin izandako esperientziaren berri emango dizuet.

Bederatzi-hamar urte eman nituela esan dizuet, filmeak-eta itzultzen eta egokitzen. Batera egin beharreko lan bikoitze horretan, nola itzuli ez ezik egokitu ere egokitu beharra dagoen jatorrizko testua, hala, filmeko esaldi guztiak denbora jakin batean sartu beharra dago, protagonisten ezpain mugimenduen eta haiek egiten dituzten pausen arabera. Eta horrek, alde batetik, mugatu egiten ninduen, zeren eta, lehen esan bezala, hizkuntza bakoitzaren erritmoa eta arnasa diferenteak baitira, eta, horrela, esate baterako, ingelesezko esaldiak, normalean, laburragoak dira euskarazkoak baino. Eta askotan ezin sartu izaten nuen denbora horretan informazio osoa. Zer egiten nuen orduan? Esaldiaren muina hartu, eta hura euskaraz lantzerantz entseiatzen nintzen, ahalik eta erarik airosoenean, euskal teleikusle balizkoa beti ere go-goan.

Oso garrantzitsua iruditzen baitzait gure lanen hartzaileak –literatur irakurleak eta teleikusleak, nire kasuan– aintzakotzat hartzea. Edo beste hitz batzuetan esanda: gure irakurleak eta gure teleikusleak atsegin hartzeko ditugu, eta guk haiei atsegin ematen ahalegindu behar dugu. Eta jatorrizko testua astuna eta zamatsua bada, zenbait literatur lanetan edo telebistako zenbait dokumentaletan gerta daitekeen bezala, guk ez diogu zama estrarik erantsi behar. Eta honekin gauza bakarra esan nahi dut: itzulpenik zailenetan eta korapilotsuenetan ere ahalegindu beharra dugula gure hartzaileak lehenengo irakurketan edo lehenengo entzunaldian testua uler dezan. *Itzulpenik zailenetan eta korapilotsuenetan ere*

bai esan dut, eta ez nabil oker. Eta horrekin topiko bat baztertu nahi nuke, zeren baitirudi ezen batzuentzat euskara esaldi bakun eta laburretan eman beharra dagoela, hortik aurrera ulergaitz egiten delako. Baina hori gezurra da, eta gezur handia. Ez dut esan nahi honekin euskara mota hori, perpaus menpekorik gabea eta esaldiak bereizteko puntuz josia, landu behar ez denik eta zenbaitetan beharrezkoa ez denik, baina bide horretatik hanka-motz geratuko ginateke beste mila alorretan –zientzian edo filosofian, adibidez–, eta euskarak aspaldi pasa zuen haurtzaroaren froga, baita heldutasunarena ere, Axular handiarekin. Bere garaian –orain dela hogeita hiru bat urte– Axular hitzez hitz aztertzeo aukera eta suertea izan nuen, lau hilabetez, eta orain ere berarekin bueltaka nabil, XVII. mende amaieran eta XVIII.aren hasieran girotua dagoen eleberri batean buru-belarri sartua nagoelako, eta, haren idazkerari eta hizkuntza tratatzeko moduari dagokionez, hauxe besterik ezin esan dezaket: zenbat eta haren *Gero*-a gehiago aztertu eta arakatu, hainbat eta handiagoa iruditzen zaidala geure erretore saratarra, zeren eta kasik ezerezetik sortu baitzuen mundu monumental hura, hain konplexua alde batetik, eta hain logikoa eta hain ongi egituratua bestetik, non, bospasei juntagailuz baliaturik, zaila dirudiena erraz bihurtzen duen edo ez hain zail bederen, erakusten zigaririk, bide batez, euskara edozein gauza adierazteko gai zela, zeren berak zioen bezala: *Orai badirudi Euskarak, ahalke dela, arrotz dela, ez dela jendearen ausart, entregu, bithore, eta ez trebe; zeren, are bere herrikoen artean ere ez baitakite batzuek nola eskiriba eta ez nola irakur. Baldin egin balitz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen Euskara ere; eta baldin hala ez bada, euskaldunek berek dute falta eta ez Euskarak.* Eta gurea da, bai, errua, euskaldunona.

Eta berriro telebistara etorririk, esango nuke bitan bana daitekeela errua. Alde batetik, esatariena eta gidoigileena; esatariak,

jakina, denetik dira, baina iruditzen zait gauza batzuk, hainbeste urteren ondoren, onartezinak direla; atzo bertan entzun nion norbaiti, euskal derbya zela-eta, «Jesukristorenak esan zizkiola» ez dakit Realeko entrenatzaileak Athleticekoari, edo alderantziz; eta halakoak jakin beharko luke giro bakoitzak bere erregistroak dituela, eta teleikusle gehienak etxean daudela eta etxeko giroa ez dela tabernakoa; ezta elizakoa ere, hainbeste jokalditan batzuk eta besteak «barkatzen» ibiltzeko; gidoigileen artean, berriz, batzuetan txalotzeko moduko lanak egiten badituzte ere, beste batzuetan, aldiz, errazkeriatik abiatzen dira, batez ere ikusleengan irria edo irribarrea eragin nahi dutenean, jotzen dutelarik, hartarako, erdal mundura, edo, iparraldeko bizilagunen ikuspegitik are okerrago dena, gaztelerakora, eta, horrela, mundu horretako «graziak» zuzenean itzultzen dizkigute maizegi, gure desgaziarako, euskaraz barre eragiterik ez balego bezala. Baina garbi dago euskal munduak euskal senetik abiatu beharra duela nagusiki, baita irriarekin edo irribarrearekin lotutako mundu horiek adierazteko ere, eta hortxe ditugula Azkuek edo Mokoroak eta beste hainbatek bildutako atsotitzak eta esaera jatorrak, guk noiz miatu eta noiz arakatuko zain, batzuk oraindik bizi-bizi ditugunak, besteak ez hain bizi, baina guztiak ere biziberri ditzakegunak eta birmolda, aldaera ausart bezain ongi eginen bidez (adibide bat jartzeagatik, badakizue lehen aipatu dizuedan «Bakoitza bere sagarrak bizi du», «Bakoitza bere zoroak bizi du»-tik datorrela... baina gure mundu modernurako «Bakoitza bere ordenagailuak bizi du» ere bilaka daiteke, edo «Bakoitza bere Walt Disneyk bizi du», e. a.); eta irudimena da horretarako bitartekoa eta tresna; eta orduak sartzea: Tere Irastorzaren orduak, jakina. Erruaren bigarren zatia, berriz, agintean dauden euskal politikariei egotziko nieke, beren axolagabetasun kulturalagatik; gogoratzen dut, alde horretatik, nire esperientzia filmeak itzultzen eta egokitzen, eta zer inbidia pasatzen nuen, noiz eta esaten baitzidaten Katalunian ez dakit

zenbat begirale zituztela han itzuli eta egokitutako filmeak gainbegiratzeko eta zuzentzeko, guk hemen inortxo ere ez genuen bitartean. Kalitate-kontrol egokirik ez zegoela, alegia. Baina dirua behar zen horretarako, eta euskal abertzale batzuentzat euskara ez zen eta ez da euskara lehentasun kultural bat ondikotz, eta zer egingo diogu, bada...! Eta ez aipatu diru-arazorik, dirua beti baitago nahi den gauzetarako. Anekdotak bat kontatuko dizuet. Nire lehen pelikula izan zen. Western bat zen. Lanerako-eta gizon estua naiz, izatez, eta neure lehen lan hura hiru aldiz erreparasatu nuen gutxienez. Orduan ez zegoen erizpide garbirik gure artean –filmeak euskara «naturalean» itzuli behar ote ziren edo euskal ikusleari euskara «irakatsi» behar ote genion–, eta hala egin nuen hanka sartzea. Eta behin, eta bi aldiz sartu nuen hanka gutxienez. Bata, nahi gabe, «ikastola» hitza ipini bainuen oharkabean, «eskola»ren ordeiz; bestea, berriz, inguru haietako nekazari baten ahotan honako esaldi hau jarri nuelako: «Jarrai zakizkit», zego-kion erregistrotik guztiz kanpo, euskal teleikusleari euskara «irakas-teko» asmotan-edo... Nire atzetik zetozenak ere –zuzentzailea, bikoizleak eta zuzendaria– ez ziren, antza, hanka sartze haietaz ohartu. Filmea telebistaz ikusi nuenean, berriz, halako disgustua izan nuen, non neure gainetik zegoen arduradunari esan bainion: «Aizak, hau eta hau gertatu duk, eta bi esaldi horiek gutxienez aldatzea nahi nikek, neure poltsikotik, jakina»; euskara kontuetan ni bezain estua zèn arduradunak, jakinik hura ezinezkoa zela enpresak egituraturatutako produkzio prozesu hartan, esan zidan: «Lasai, Joan Mari...» Eta hala nago, harez geroztik, pena harekin. Baina nola porrotetik eta gaizki egitetik are gehiago ikas daitekeen, sarritan pentsatu izan dut hanka-sartze haiek ezin hobeki etorri zitzaizkidala, zeren eta, itzulpen bakoitza ibilbide bat da, semaforo bat ere baduena, eta hanka-sartze horiek semaforoaren argi hori keinukaria piztu baitzidaten betiko, erne ibil nendin eta kontuzago, handik aitzina. Ondo begiratuta, hala ere, ez dut

zertaz kexatu beharrik: izan ere, auskalo Ikastoleen Konfederakundeak merezi dudan merezimendua aitortuko ez ote didan, ausaz, egunen batean, mendebaleko lur haietan lehenengo ikastola erakitzeagatik...

Eta bukatzeko, aholku bat emango dizuet, niri aspaldi eman zidatena. Euskal prosa eredugarrien bila, autore zaharrak aztertu nahi nituela-eta, joan nintzaion aholkulariari (ez naiz gogoratzen nor zen), eta hark ziur eta labur erantzun zidan: Axular, Asteasuko J. B. Agirre eta Tartas. Gehiago ere badira, baina hasi hiru horiekin. Baina ikusten dut ez dudala zuen jakinmina guztiz ase, eta zuen aurpegiari irakur dezaket hurrengo galdera edo eskaria: «Emaiguzu XX. mendeko norbaiten izena, bakar batena...». Ongi da. Oraintxe emango dizuet: Koldo Mitxelena. Modan dago, gainera, egunotan...

Sei galderari bost erantzun

1. Euskaldunoi itzultzea egokitu zaigu. Baina nori ez? Gaur egun munduko kultura guztiak daude harremanetan eta elkarrengandik edaten dute. Elkarren arteko bidea itzulpena da. Horixe da guztia. Beraz, kultura bat (eta literatura kulturaren parte da, jakina) eraiki nahi bada, itzulpena nahi eta nahiezkoa da.

Orain, denok hasi behar ote dugu itzultzen? Bada, halaxe ari gara. Etengabe itzultzen ari gara. Batzuk itzultzaile profesionalak dirateke, baina beste batzuk kulturaren eta zientziaren arlo guztietan etengabe ari dira itzultzen. Eta nola! Belarriek kirrik-karrak! egiten dute horko eta hango idatziak begiztatu ahala.

Kultura ez da perretxikoak bezala bertan jaiotzen den berezko zerbait. Kultura gizakiak orokorki egin dituen aurrerapenen eta gogoeten sintesia da. Gaur egun, orokortasun horrek mundu osoa hartzen du. Eta sintesia gizaki multzo bakoitzak bere hizkuntzaren eta historiaren erara osatzen du. Sintesi hori egiteko, itzuli egin behar du bere errealitatera ondare unibertsala, alorretan orotan. Lan horretan, jakina, unibertsitateak eta kultura-munduak lehen mailako ardura dute. Sintesi kultural emankor eta indartsu bat sortzeko, ongi itzultzen ikasi behar da, maila guztietan. Eta gurean ere tradizio bat sortzen hasia da; gaur egun oso itzultzaile onak agertzen ari dira, kanpoko hizkuntzetarik euskarara. Hala

ere, itzultzaile horien eta gizartean oraindik ere orokorki egiten den itzulpenaren artean zulo izugarria dago. Lehen pausoa, ordea, emana dago.

Beraz, kulturaren eta zientzian emaitza bat (literaturan, adibidez: poema bat, eleberririk bat) gauzatzen dugunean, kultura unibertsaleko zenbait eduki itzultzen ari gara, nola edo hala. Hortik dator esatera idazleak oro itzultzaileak direla, ohartuki nahiz oharkabean.

Benetako itzulpena, hausnarrean jardutearen antzeko da. Aurrena irentsi egiten da, eta gero pixkanaka berriro ahoratu, hobeto murtzikatzeko. Horixe egiten du idazleak: kultura unibertsalaren sintesi bat bereganatu, eta idaztean ahora itzuli, eta bere kultura propioaren forma eman.

Beraz, orain arte esandakoarekin, lehen galderari nolabaiteko erantzuna prestatu diot. Idaztea, gaur egun, itzultzea da. Horretaz gainera, idazlea besteren obrak bere hizkuntzara itzultzen aritubada, gorago adierazi dudana hausnarrean aritze hori ohartuki egingo du, eta gehiago sakontzeko aukera izango du. Itzultzen ikasi duenak, idazterakoan marro eta klitxe askotatik ihes egiteko aukera du; nolabait, beste hizkuntzekin parekatuz, bere hizkuntzaren nortasuna (horrela dei badakioke, behintzat) lantzen trebatzen da. Hots, ekarri kulturalaren digestio edo egoste propioa egiten ikasten du, ohartuki. Berriro diot, idazleek orok horixe egiten dutela, nahiz ez ohartu.

Badago, hala ere, beste alde bat. Gaur egun kultura *feed back* edo joan-etorri etengabeaz elikatzen da. Kultura propio bat erakitzeko, itzulpenaren bidez kultura unibertsala irakurri behar da, eta sintesi bat egin. Baina sintesi hori etengabe elikatu eta birmoldatu behar da, eta hori egiteko joan-etorria (edo eraman-ekarria) behar beharrezkoa da; alegia, itzulpenaren bidez geureganatzen

duguna, itzulpenaren bidez kanporatu ere egin beharra dagoela. Bestela, *feed back* hori hautsia gertatzen da.

Bigarren alde horri dagokionez, oraindik ahul gabilta. Itzulpen-tradizio sendo eta trebea eraikitzen ari gara. Kanporatzeko itzulpena, ordea, oso ahula da oraindik. Oso zaila egiten zaigu, euskaratik erdaratara itzulpen txukunak eta funtzionatuko dutenak egitea. Idazleak berak egin behar izaten ditu ia beti, gaztelarrera edo frantsesera, (Iparraldekoen kasuan, baina are urriago). Gainerako hizkuntzetara saioak egin diren kasu urrietan, gaztelerrako testua hartu da oinarritzat. Hori, jakina, ulertzekoa da; non bilatu euskara menperatu eta xede hizkuntza ia (edo *ia* gabe) ama-hizkuntza gisara erabiliko duenik? Bide horretan, urte askotan erabili beharko da gaztelera nahiz frantsesa bitartekari gisa, eta denbora gutxi barru ingelesa ere bai. Harreman kulturala sendotuz doan heinean, eta bertan itzultzaile trebatuak agertuz doazen heinean, hizkuntzen sarea gehiago zabalduko da, eta itzulpenak zuzenean egiteko aukerak ere handiagoak izango dira.

Bada beste puntu bat ere ukitu nahi nukeena. Itzulpenean trebatzeak, hiztegia zein egitura sintaktikoa zehaztasun handiagoz erabiltzera behartzen du idazlea. Horrek idazkera argitu egiten du, zehatzagoa egiten du, eta aldi berean malguagoa. Beste alde batetik, normalean norberaren diskurtsuan erabiltzen ez diren egiturak eta esamoldeak erabiltzera behartzen du itzulpenak; horrek idazleari estiloa aberasten dio. Maiz, idazleak esan nahi lukeena esan beharrean, esan dezakeena esaten du; horrek pentsamendua aizundu egiten du. Itzultzean, ordea, ez dago ihesbiderik: han jartzen duena adierazi behar da, eta fidela izan behar da, bai edukiari dagokionez, bai estiloari dagokionez. Horrela trebatu-riko idazleak, esan nahi duena esateko bidea egingo du; bide errazetik ez jotzeko diziplina ederra da itzultzailearena.

2. Niri dagokidanez, itzultzea ez da nire ogibidea. Irakasle aritzen naiz. Hala ere, nire ikasgaiari (Euskara Teknikoa deritzo) itzulpenak berebiziko lekua du. Erizaintzako gaietan, itzulpen zientifikoa nagusi bada ere, badago alde humanistiko bat, gero eta gehiago indartu nahi dena (teoriaz, behintzat). Horretan guztian, itzulpena nahi eta ezko eginbeharra da.

Giro horretan, nik neuk ez dut hautatzen itzuli beharreko alorra, baina hein handi batean saiatzen naiz nire gustuko lanetan sartzen. Adibidez, Hipokratesen aforismoen edizio bat prestatu nuen (Elhuyarren argitaratua), eta literaturara hurbiltzen saiatzen naiz aukeratzen ditudan gaiak (Jean Etxeparen mirikuaren idazlanak, adibidez, aztertu izan ditut, beste zenbait testuren artean).

Argitaletxeen giroan, berriz, normalean argitaletxeak berak adierazten dizu zer itzuli nahiko lukeen, eta lan hori eskaintzen dizute. Itzulpen gehienak horrela egin izan ditut, batez ere haur eta gazte-literaturaren alorrean. Zenbait kasutan, libururen batek txunditurik, proposatu izan dut haren itzulpena. Adibidez, Felipe Juaristik pasa zidan Txingiz Aitmatov-en *Jamilia*. Bioi gustatu zitzaigun izugarri. Orduan, ikusi genuen Elkarren Aitmatov-en beste liburu bat atera zutela, *Maisu zaharra*; horrela, *Jamilia* itzultzea ere egokia zitekeela adierazi genien Elkarrekoei. Hortik etorri zen liburu horren itzulpena; aurrena J. Lasari eskaini zitzaion, hark egin baitzuen *Maisu zaharra* -rena; hark ezin zuenez, niri eman zidaten lan hori.

Gehienak, beraz, eskatuta eginiko lanak dira; zenbait kasutan alde aurretik aholkatuta izan bada ere.

Aldiz, gustuz eta ariketa gisa egin izan ditudan itzulpenak, gehienak ez dira argitaratu. Gogoan dut adibidez, zer nolako gustuz eta gogoz egin nuen Quirogaren *Oihaneko ipuinak* liburuaren itzulpena. Hitz egin ere hitz egin nuen Pamielakoekin liburu ateratzeko. Ateratzera gindoazela, beste itzulpen bat ager-

tu zen Desclée-n, eta bertan behera utzi behar izan genuen lana. Hala ere, itzulpen hark eragin handia izan du geroztik asmatu edo birmoldatu ditudan haurrentzako ipuinetan. Niretzat eredu bihurtu zen hura.

Antzeko zerbait gertatu zitzaidan poema txinatar batzuekin. Ideia hura ere Felipe Juaristik utzitako liburu batetik jaio zen. Txinatik frantsesera itzultitako poema-antologia bat zen, zenbait dinastiatako egile anitzena. Gero, gaztelerazko bertsio batzuk ere topatu nituen, baina ez frantsesezkoa bezain zainduak. Haietatik euskarazko antologia bat osatu nuen. Txineraz tutik ere ez dakidanez, Rafa Egigurenengana jo nuen; hark ere bazeuzkan zenbait poema itzuliak, zuzenean txineratik, gainera. Haren materiala eta nirea biltzekotan ere egon ginen, baina estiloz eta eitez oso desberdinak gertatzen ziren, frantsesak sintaxiaren aldetik asko borobiltzen baitzuen jatorrian lehorragea zena. Horrelaxe geratu zen lan hura; ez da argitaratu, ez harena, ez nirea. Hala eta guztiz ere, poema haiek, hainbeste denboran txukuntzen eta taxutzen aritu nintzenak, zantzu ugari utzi zuten nire poesian, batez ere *Sarean leiho*-ko poemetan, edo Karlos Linazasororekin batera egin eta oraindik argitaratzeaz dagoan *Kartapazioko poemak* deituriko gazteentzako liburuan.

Horrela egin ditut, bada, itzulpenik gehienak. Bada, hala ere, bereziki aipatu nahi nukeen liburu bat; hots, Apuleioren *Urrezko astoa*. Liburu hori itzultzaile elkartean proposatu zen Literatura Unibertsala izeneko bildumarako. Anjel Lertxundik zuen horretako aurkezteko asmoa. Baina, garaia iritsi zenean, gizona galtzabete lanarekin zebilela eta elkarrekin egiteko proposamena egin zidan. Abisatu nion, nik ikasitako latin urria herdoilak jota zegoela, baina berak dena zehatz-mehatz gainbegiratuko zuela agindu zidan. Lortu genituen, hiru-lau itzulpen, gaztelera eta frantsese-koak, eta bertsio guztiak originalarekin parekatuz, itzultzeari ekin genion. Zailena lehen kapitulua egin zitzaigun; kosta zitzaigun

ederki tonua eta esaldiaren ordena eta erritmoarekiko hainbat eta hainbat kontu erabakitzea. Hori eginik, hurrengo kapituluak askoz ere arinago egin genituen; tonua hartua zegoen, eta arazo nagusietan erabakia geneukan nola joka. Adibidez: Apuleiok etengabe aldatzen du aditzaren denbora. Lehenaldian ari da kontatzen, eta bat-batean, eta inolako sarrerarik gabe, orainaldian jarraitzen du; jo berriz lehenaldira, eta orainaldira berriro, eta horrelaxe etengabe testu guztian. Hori euskaraz oso gogorra egiten zitzaigun. Badago, bai, tradizioarik orainaldi historikoan kontatzeko, baina tradizioan «hona zer esan dion» eta antzeko markak erabiltzen dira; bestela, oso bortitza geratzen da. Ikusi genuen, beste hizkuntzetako bertsio gehienek ez zituztela denbora-jauzi horiek errespetatzen. Guk erdibide bat hartu genuen; narrazioan, gehiegikeria astunean erori gabe, egokiera zegoenean egin egiten genuen, baina beti sarrerako «hona zer» eta horrelakoak erabiliz. Beste arazo bat perpausen ordena zen; latinez perpausen eta perpauseko atalen ordena oso librea da, eta Apuleiok esaldi luzeak eraikitzen ditu, ordena anitzetan, eta erredundantzia askorekin. Hasieran, saiatu ginen, itzulpen literal samarrari eusten, baina, hurrengo begirakadetan, arintze aldera, ordena bigundu eta erredundantziak leundu egin genituen, irakurtzeko lasaiagoa eta gustagarriagoa gerta zedin. Hots, narratibotasunari, eta ipuinaren jarraipenari eman genion lehentasuna, eta ez zehaztasun filologikoari.

Beraz, nik izan dudana esperientzia nik neuk bilaturiko bidea baino gehiago izan da giro baten barruan egokitu diren eginbeharrei eta eskaintzei erantzunez eginiko lana. Modu askotan gauzatu da, eta honako arlo hauetan laburbil daiteke: Haur eta gazte-literatura, Literatura unibertsala (poesia eta prosa batez ere) eta Hizkuntza tekniko (osasunaren alorrean).

3. Bigarren eta hirugarren galderei batera erantzun diedalarik, hurrengoari ekingo diot orain: itzultzea aditasun berezia eskatzen duen irakurtzeko modu bat al den galdetzen da, hots, itzultzea idazteko beste modu bat ote den.

Goiago esandakoari helduta, idazte ororen oinarrian itzulpen-ahalegin bat legoke. Beraz, itzultzea idazteko modu berezia baino gehiago, idatz-generoak itzultzeko modu bereziak direla esan genezake; bestela esanda, edozein generotan, aldez aurretik irentsi-tako kultura hausnarrera itzuli egiten dugu, aldi berean une sortzailea gertatzen delarik, sintesi berri baten itxuran.

Itzulpenak berak, batez ere literatur itzulpenak, sormenetik asko du, testuak oro idazteak sormenetik baduen bezala. Idaztea sormen-ekintza da; ekintza horrek literaturtasun (irakur bedi arte-maila) jasoagoa edo txiroagoa izan dezake. Literaturaren itzulpenari dagokionez, idazkera aldetik sormen-lanak bezainbateko ahalegin estetiko eskatzen du, nahiz eta sormen-lanak badituen itzulpenak ez bezalako alde irudimenezko nahiz estetikoak.

Literatura-itzulpen on bat egiten denean, itzultzailea idazle-sortzaile bilakatzen da. Ez da maizegi gertatzen, baina, batzuetan, itzulpena originalari gailentzen zaio; eta horrek itzultzailearen idazle-maila erakusten du.

Gaur egun, gure artean oso itzulpen onak egiten ari dira. Itzultzaile horiek, nahiz eta gehienek beste generorik ez landu, idazletzat jo behar ditugu, eskainitako fruituen arabera. Ondoren etorriko diren idazle sortzaileen belaunaldiek itzultzaile horiek eginiko ekarpenetan ez badira hezitzen, aukera handia galduko du gure literaturak aurrerakada nabarmen bat egiteko.

Literatura batek itzulpenaren bidez zehaztasunean irabazi eta erreferentziak zabaltzen baditu, horien ekarriak bereganatzen ez dituen idazle sortzailea atzeraka hasten da; eta ez du soilik beraren

estiloak sufritzen, baizik eta generoa eraikitzeko modu osoak. Lehen, hor geneukan zuloa gazteleraren bidez betetzen genuen (edo beste hizkuntzen bidez); zenbait gai lantzeko, zehatzago izateko, erderara jo. Hori gaingiditzen hasteko itzultzaileen lana ezinbestekoa bihurtu zaigu.

4. Egin ditudan itzulpenek nire sorlanetan izan duten eragina-ri buruz, hauxe esan nezake:

Haur literaturaren alorrean, Quirogaren, Rodariren, haiku japoniarren eta beste hainbaten eragina bete-betekoa izan dela uste dut. Esate baterako, haiku japoniar batzuk itzultzen hasi nintzen eskolan, haurrekin poesia lantzeko; arian-arian haien antzekoak sortzen joan nintzen helburu berarekin, eta lan horren emaitza izan zen *Begi-niniaren poemak* izeneko liburua. Nire ustez, Quirogaren eragina nabaria da *Egunez parke batean* ipuin-liburuan eta beste zenbaitetan, eta Rodarirena ere ipuin eta poema anitzetan antzeman dakidake. *Kasiopea* izenburuko eleberritxoak ere izan du eraginik nigan; oso gustura itzultitako istorioa izan zen, eta geroztik sexuari buruz nire ipuinetan eskaini ditudan erreferentziek zerikusi handia dute harekin, giroz eta gaiari ekiteko moduz behintzat.

Poesiari dagokionez, bai haikuen itzulpenak, bai poema txinatarren itzulpenak eragin handia izan du nire estiloan. Hortik (irakurketen eraginarekin batera, jakina) aforismo eta testu llaburretarako joera indartu zait.

5. Orain arte behintzat neure lanak erdaratzea neure kontura egin behar izan dut. Oraindik hasten ari den kontua da, eta ez da lan horri erantzungo dion idazle-multzo trebaturik, bat edo beste kenduta. Alde batetik, erdarara oso gutxi itzultzen da, eta horrek berak dakar trebatze falta; bestetik, kultura-munduak eta botere

politikoak ez du serio hartu lan hori, eta bultzadarik gabe zaila da gauza horiek berez irtetea.

Nire kasuan oso gauza gutxi eta txikiak dira erdaratuak. Bi bertsioen artean, ipuinetan ez dut halako alderik ikusi, ñabardura batzuk gora-behera; adibidez, idazkerak zenbait oihartzun galtzen ditu erdaratzean, eta batzuetan sentipen-indarra galtzen da; hala ere, oihartzun horiek beste batzuez aldatzen dira, eta gaztelerak (nire kasuan gaztelera zen xede-hizkuntza) haur-erreferentzi-azko topiko gehiago eta urtetan landuagoak eskaintzen ditu, eta badirudi prosa xaloagoa edo arinagoa egiten dela (eta hori haur literaturan abantaila da). Poemak itzultzea, aldiz, oso bestelakoa egin zait. Azken batean, beste poema bat ateratzen zaizu. Batez ere pieza txikiak direnean, galdu edo irabazi jokatzeko duzu, eta batzuetan testuak zertxobait galtzen du, baina gertatzen da poema erdaraz euskarazkoa baino ederragoa geratzea, behin edo behin.

Topa-hitzak



Arantza Urretabizkaia

Edorta Jimenez

Enkarni Genua

Juan Mari Irigoien

Juan Mari Lekuona

Xarriton

KarmeLe Esnali

Ramon Saizarbitoriaren esku ederretik ezagutu nuen KarmeLe, duela hogeita bost urte. Ez dut orain gogoan zer eskatu genion, baina bai zerbaiten eske joan ginela Karmelerengana, zerbait idatz zezan.

Ez dut ahaztu arratsalde hura Karmeleren etxean, orain ezinezkoa dirudien elkarrizketa euskara batuari buruz eta batasunaren aldeko jarrerak zekartzan kalteez.

Baina hori baino gehiago axola zitzaidan, eta zait, beste kontu bat: KarmeLek frogatu zidan posible zela, emakume heldua izanik, kultur munduan lanean jarraitzea. Zentzu horretan, KarmeLe itsasargi bat izan zen, eta da, niretzat.

Orain bezala, gutxi ziren orduan KarmeLe bezalakoak, gutxi gara eta atzetik datozenak ere ez dira ugariak.

Hainbeste urteren buruan, ni neu itsasargiarena egiten hasi naiz, igarri dut gazte batzurengan nik Karmeleri luzatu nion begirada bera.

Eskerrik asko, itsasargiarena egiteagatik. Esan diezaiegun atzetik datozenei, emakume izatea suertatu bazaie, kultur zaletasuna ez dela gaztaroarekin desagertzen, bidea zaila dela, baina ez ezinezkoa.

Jose Antonio Arana Martija, «liburu-anabasa»

Hitzak hitza dakar.

Ekarriaren ekarriaz, horra hor liburu anabasa.

Anabasa ordena bihurtzeko esku trebea behar da

eta hori izan da zure urteko lana

Jose Antonio Arana.

Lan hori ez da edozertara egin daitekeena:

tentua behar da,

ordena eta asmamena,

hots, musika bera dena.

Musikaria ere bazara,

eta gogoan dut zure Euskal Musika irakurri nuenekoa,

nire poza eta nire kexa, ez bainuen

zuk aipatutakoak entzuterik.

Orain badut.

Gure naziotasunaren oinarrietako bi,

hizkuntza eta musika, bat eginik bizi dituzu,

zorionez.

Baina beste ezeren gainetik, zu, hor dagoen Begoña Bilbaorekin

batara,

Busturialdeko, orain Urdaibaiko, bi mutur

–Bermeo eta Gernika–

hari ikustezin baten bidez lotu dituzuelako

ez naiz askotan hain bakarrik sentitu.

Tamalgarría da gure eskualde maitea,
hain euskalduna izan dena oraintsu arte,
gehiagoren sorterría ez izana.
Zuk hor egotea, ba,
garrantzizkoa izan da gu denontzat.
Honengatik guztiagatik,
topa egiten dut, Jose Antonio:
Osasuna eta Askatasuna!

Begoña Bilbaori

Begoña Bilbao!

Hitz gutxirekin esanda...

Euskerazale...

jatorra...

langile fina...

emakume ausarta...

Bermeotarra...

Alajaina!

Poz haundia hartzen dut nire kopa zure ohorez altxatzerakoan. Emakume xehea zarelako, baina langilea, konformagaitza, ausarta. Eta zu bezalako pertsonak dira, azken finean, Begoña, herri bat aurrera egiten bultzatzen dutenak.

1965. urtea zen, Bermeon, herri guztiz euskalduna, dudarik gabe. Horrela bazen zergatik euskara kezka bihurtu? zertarako? zer dela eta? Gehienak konformatu egingo ziren, baina zu ez. Aita Garitaonaindia eta Felipe Eizagirrereren inguruan sortu zen euskara bultzatzeko taldean hasieratik parte hartu zenuen. Euskara lantzeko... hizkuntza aztertzeko... herriko lagunak alfabetatzeko... maite zenuen bizkaiera aberasteko eta era berean euskara batuari (hamaika izerdi botata) Bermeoko ateak zabaltzeko.

Hasi zinen euskara lantzen... jarraitu zenuen Euskal Herriko lehenengo euskaltegia sortzen, eta ez zenuen etsi zuen 54 urte ederrekin Euskal Filologian lizentziatu arte.

Hasi zinen zure 2 alabei sehaska-kantak kantatzen ere, baina ez zinen horrekin konformatu eta jarraitu zenuen zure alaba Luperi bere kantuetarako letrak idazten.

Beraz ziur nago, literatura zure amorantea delako, Esteban, Luzia eta Karmen, zuen fiziozko seme-alabak ez direla denbora luzerako bakarrik geratuko, zure lumatik beste istorio gehiago laster sortuko direlako.

Horregatik gaur nire kopa pozik altxatzerakoan, zuri eskaintzen dizut nire topa, baina, zure baimenarekin, baita gure hizkuntzarako gurutzurte horietan ere, dohain, borondatez, gogoz eta ausardiaz, kostata eta ospe handia jaso gabe, gure kroniketara pasatuko ez diren, baina gure historia, euren izerdiarekin idatzi zuten hainbat eta hainbat gizon-emakumeei.

Zu bezalakoak Begoña Bilbao,

Hitz gutxirekin esanda...

euskerazale...

jatorra...

langile fina...

emakume ausarta...

bermeotarra..

Alajaina!

Ez dakit laudoriozko odak modan ote dauden, edo ene oda honek moda berria ekarriko ote duen, Andoni, baina zuri oda bat eskaintzeko gogoa dut, bai, eta badakizu: gogoa dagoen lekuan, aldaparik ez. Eta badakit, halarik ere, bide aldapatsuan sartzera noala, zeren eta, euskara eta euskal mundua hain barrutik eta hain maitekiro defendatu izan duen zu bezalako gizon bati oda bat eskaintzea, modaz pasea ezezik, arriskutsua ere izan baitaiteke... aspaldi honetan gure aurka bideratzen ari diren *gurutzada ez* baitugu, ez, txantxetakoa, zenbait intelektual organikoren eta hainbat irratitako tertuliano distiratsuren onespenerekin...!

Tertulianoak aipatu ditut, eta hiztegiara jo dut. Eta, bat-batean, beste Tertuliano batekin topatu naiz, Erroman ikasi eta kristautasunera egin zuen I. mendeko Quintus Septimius Florens Tertullianus, Kartagoko filosofo eta teologo ezagunarekin. Eta irakurtzen hasi, eta ohartu naiz gure Tertuliano kristautu berriak kristau sutsuak zituela batez ere gogoko —edo, bere esanetan, *fededun pneumatikoak*—, Izpiritu Santuarekin hari zuzena zutelako. Eta nola zu ni baino filosofoagotzat eta teologoagotzat zaitudan, Andoni, hauxe galdetzen dizut: fededun pneumatikoez ari zelarik, irratietako tertulianoez ari ote zitzaigun maisu kartagoarra, zeren eta hauek ere, dirudienez, Izpiritu Santuarekin hari zuzena baitute...? Larri ibili...

Baina galduta gaude jadaneko, adiskide...! Izan ere, intelektual organikoak eta tertulianoak aipatu ditut, pneumatikoak aipatu ditut, eta ikusten ari naiz astebete baino lehen irratietatik lau haizeetara zabalduko diguten berria: «Escritor vasco incita a las plumíferas hordas de la región, en una comida de homenaje a otros escritores antediluvianos, a que quemem los neumáticos de cualquier medio de locomoción perteneciente a nuestros valientes intelectuales o a nuestros no menos brillantes tertulianos de radio, y les incita, asimismo, a que, en caso de que se opongan, les mutilen y extirpen sus órganos».

«Berdin da, Andoni.

Beste horiek errotik kendu nahiko liguketen munduak lotzen
baikaitu gu,

eta mundu hori da gure poza eta gure zauria.

Eta pozaren eta zauriaren izenean eskerrak ematera natorkizu.

Izan ere, *Lekuona* zara zu, eta leku ona izan duzu gorputza,
euskarak zure baitatik noiz atsegin eta noiz atsedean har zezan,
eta aurrerantzean ere har dezan;

leku ona zure arima,

euskarak zure baitatik hats har dezan;

leku onak zure begiak eta zure begietako zeruak,

non sorginak eta lamiak oraindik ere hegaldaka ikus ditzakegun,

baita intsisuak ere, edo San Nikolas Txikia, berdin;

leku onak zure mihi-ezpainak eta zure eztarria,

nondik bertsolari anonimoen koplak zaharrak zure ahotsaz berpiztu
eta garai bateko historiak –artzainenak eta laborarietak– mintza
daitezkeen;

leku ona zure azala,
sorgin ameslarien etzaleku,
non Oiartzungo haizeek –Urkabeakoak eta Arkalekoak, Aiako
Harrikoak eta Bianditzeakoak–
elkar maite duten noiznahi,
ziztu eta hasperen;
leku ona zure eskua eta zure eskuko luma,
libururen baten eta artikulu askoren egile,
nekagaitza beti ere, ekaitzetan zein barealdietan,
domuit vascones guztien gainetik eta *aldeanos de segunda* guztien
azpitik;
leku ona zure ukabila,
nondik atzoko eta gaurko langileak eta betiko langile euskaldunak
oraindik ere bere duintasunari euts diezaiokeen;
leku ona zure bihotza,
Euskal Herriak zure baitatik maite dezan.
Leku ona zu, Andoni...»

Zuoi esker

Gazte ginan aldi hartan
ez zen argirik inondik;
etsipenaz genioen:
«ia guriak egin dik».
Baina urteen buruan
zerbait muskildu da handik;
gaurko idazle emaitza
katean dator gugandik.
Egia bat esan gabe
ez naiz joango hemendik:
euskal txalupa hor doa,
olatu zitalen gaindik;
hondoratu ez izanak
poz handia ematen dit.
Zuoi esker esan leike
bizi garela oraindik.

Txomin Peilleni

Euskaltzaleen mundu honetan adin batera heltzen diren idazleei omenaldia egiteko ordua heltzen zaielarik, gazteago batek egin ohi dizkio kunplimenduak zaharragoari. Aldi honetan ordea, zaharrenari dagokio omen-hitz goxo bat eskaintzea gazteagoari. Zergatik ez funtsean? Ez ote nau aspaldiko oroitzapen batzuen gogoratzeak ni haur gazteagotuko?

Ez dakit zuzen noiz biek elkar ezagutu genuen, Txomin, zuk eta nik, Parisen. Saint-Germain Boulevard-eko zure etxean. Ala nire Pariseko lehen egonaldian, 50eko hamarkadan, ala bigarrenean, 60ekoan? Dakidana da 50eko urteetan hasia nintzela oharitzen *Euzko Gogoan*-n, *Gernika*-n, *Egan*-n, eta geroxeago, 1962an Hazparneraino heltzen zitzaizkidan ortodoxoen *Gure Herria*-n eta heterodoxoen *Igela*-n, agertzen ziren zure lehen olerki, artikululu eta ikerlan bereziei. Nola ez erran ordukotzat eman zenigula Jusef Egiategi Ziberotar idazle galdu eta berraurkituaren berri? (*Egan*, 1963, 75-77. orr.).

Zure lehen liburua, uste dut, 1964eko Txomin Agirre saria irabazi zuena, *Gauaz ibiltzen dena* eleberria izan zela. Zarautzeko Itxaropenaren «Kuliska sorta»-n, 1967an, agertu zelarik, erosi nuen eta atsegin handiz irakurri, nahiz ez naizen polizia nobelazale. Bainan nobela hau Parisen jaio zuberotar seme batek gipuzkera errazean idazten zuen eta Baiona tipian kokatzen. Gainera Juan San Martin-ek Egan-en idatzi zuen bezala, ikusi nuen nik ere,

Peillen-ek bazuela dohainik aski nobelagintzarako. Eta euskal literatura, horren premia handia zegoela.

Beste eleberririk idatzi da eta idatzi duzu, zuk ere, geroztik, Txomin: *Gatu Beltza, Itzal Gorria, Aldjezairia Askatutua, Kristina Bolsward* (1989ko Txomin Agirre saria), eta beste zenbait liburu! Ez oro hemen lerrokaturik ere, ez nagoke aipatu gabe, Jon Mirande zure adiskidea edo Allande Elixagarai zure askazia eta haien idazlanak ezagutarazteko idatzi dituzun obra baliosak.

Badakigu oraino zure Parisko irakasle eta idazle lan guztien artetik izan duzula Anatomiako euskal hiztegiaren gaia lantzeko eta doktorego-tesia aurkezteko adorea Bordeleko Unibertsitatean. Horri esker baitzara, Marie Thérèse zure andre maitagarriarekin Euskal Herriratu, zuen eta gure atseginerako.

Gaur beraz, Unibertsitatean irakasle, Euskaltzain oso, edo osoki Euskaltzain eta beti berdin langile porrokatua zara, Txomin, agian luzerako! Hartzen duzue halere astia, senar-emaztek, «Canadian Pacific» deitu tren konpainiak proposatzen zuen xedea ongi betetzeko, hots, batean Andetara airatuz, bestean Anatoliara edo Indonesiara, badirudi «mundu honen itzulia nahi duzuela egin, bestearen ikustera joan aitzin». Zorionak zuri, adiskidea!

Azkenik ordea, gutartean Iparraldean bizi zarenetik, Txomin, eta beraz hurbilagotik ezagutzen zaitugunetik, beste zerbait erratea zor dizut oraino.

Bazter askotan entzuten da gaurregun, euskara beheiti ari dela Iparraldean. Erran nahi nuke, aspaldiko gaitza dela hori gutartean; gure gizarteko euskaltzale ala abertzale euskaradunak ohi-tuak garenaz geroz, gutartean erdara jartzen lehen mailan eta gure ama-hizkuntza, euskara, bigarren mailan uzten.

Bainan zu, Txomin, Parisko euskaltzale eta abertzale fina, Euskal Herriratu zarelarik eta ikusi duzularik Iparraldeko euskal-

dunen ohitura deitoragarri hori, ez zara izan herabe zure harridura adierazteko nonahi eta nornahiri. Badakigu orain denok, zu euskaldunekin zarelarik, beti euskaraz ari eta ariko zarela. Hori da Parisko eskolatik ekarri diguzun irakaspen lehena eta beharrena. Eskerrak zuri, Txomin, bihotz bihotzetik, eta jarrai gaitezen guztiok, zure bideari!

Liburu-iruzkinak



TONY HILLERMAN

INGEBOR BACHMANN

JUAN BAUTISTA ELGEZABAL

JON ARRETXE

FÉLIX DE AZÚA

ANUNTZI ARANA

Tony HILLERMAN-en *Navaho Jim*
edo Basamortuan ere bada itxaropena

Haurretan amestarazi gintuen istorioak gogoratzen dizkigu Jim izenak, zinerik ezean irрати iragarkietako «Cowboy sagua»ren doinuaz eta «Jim Phoscao» mutikoaren bidez ipar-amerindiarren ezagutza egin genuenei bederen. Ez genuen hartan ikasi zer izan den Amerikako sarraskia, baina basoan jolaste orduan lumez (eta ez kasakaz) apaintzeko aukera eman zigun urrean, harik eta adin zozora helduta «gure-sexuari-doakion-jarrera»ra makurtu ginen arte. Guztia *Dances with wolves* baino askoz lehenago, bistan dena. Oraingo Jim honen deitura, Chee, ez da txokolate-marka, eta gizona ez da sasi-sioux bat, benetako navahoa baizik. Arizona eta New Mexikoko basamortuko pista txarretan zehar ibiltzen da, zaldi barik, «pickup truck» batean (atzealde irekia duen kamioneta), neguan elurrean irristatzen, udan hauts gorritzko hodeiak eragiten.

TONY HILLERMAN

Pertsonaiaren sortzailea Tony Hillerman da, sortzez navaho izan gabe, nazio horretako kide izateko ohorea erdietsi duen idazlea. Aleman jatorrikoa, 1925ean jaio zen Oklahoman eta bertako «Indian Territory»ra deportatuak izan ziren Potawatomi eta Se-

minolen artean hazia izan zen, barnetegi indigena batean zortzi urte pasaturik.

Kazetaria izanki, 1970ean argitaratu zuen *The Blessing Way* eleberria, Arizona, New Mexiko, Utah eta Coloradoko bilunea den Four Corners eskualdean kokatua. Joe Leaphorn da protagonista, bere herriaren bizimodu eta tradizioari era eszeptikoaz begiratzen dien Navaho tribu-poliziako tenentea. Thriller etnikoa landu zuen orduan Hillerman-ek, maisutzat daukan Arthur Upfield australiarraren urratsetan, hura baita generoaren sortzailea; eta geroztik ere lan ugari argitaratu du, beti poliziako klasikoak, ADNaren herexen azterketaren moda etorri aurretikoak esan nahi da, eta ingurune berean kokaturik. Eskualde problematikoa, zinez, baina, ikusiko dugunez, arazoen aurrean ez dio engaiamenduari muzin egingo idazleak.

Tenentea baino hamar urte geroago etorri da Jim Chee sarjentua, hura ere navaho polizia eta eleberri askotako protagonista. Lehen hiruak batez ere aipatuko ditugu hemen: *People of Darkness*, *The Dark Wind* eta *The Gostway*. Generoan tipikoak diren gorabeherak, krimenak, istripuak, inkestak eta jazarpenak ez dira salatzeak, norberak dastatuko du suspentsea irakurtzen ditueanean. Ahalaz lehen liburutik hasiz, pertsonaien bilakaera igartzeko, Jim Chee-rena batik bat.

JIM CHEE

Navaho poliziek, besteez bezalatsu, bereziki beren herritarrekin gogorrak izateko fama dute (*PD*, 21; *GW*, 17).* Jim Chee ez da horietakoa, eta ez da txakurra, Itxaro Bordak behintzat ez lioke horrelako deiturarik emango, harekin baso bat edatea baita Amaia Ezpeldoi detektibearen ametsa (*Bizi nizano munduan*: 18).

Alta, inoiz ez duzue garagardoaren aurrean harrapatuko gizona: alkohola erreserban debekaturik eta, kafea du gustuko, bereziki haren urrinak betetzen dionean bere *mobile home*-a (*GW*, 7). Egoitza horri esker etxean dago beti, mendebaldeko Tuba City-n zein ekialdeko Crownpoint-en destinaturik denean. Horren oihartzuna eskaintzen digu Bordak bere azken liburuan (*Amorezko pena baño*): Bill yankee-ak, CIA-ko agente eta nobelako gaiztoak, Bardeetako basamortuan jarri du karabana, handik bere bihurkeriak ontzeko; eskerrak detektibe amikuztarrak neutralizatuko baitu, «western-kalderete»ko giro arriskutsuan: «Redios Amaia, atera ezan colta!... Erna hadi tuntuna! Bestela biak kalituko gaitin!» (173-175 or).

Gaurko gaia, ordea, ez da Amaia, Jim baino. Erreserban jazo txandrioak argitu ez ezik, konpondu ere egin behar ditu batzuetan. Ez dabil hobendunaren bila justiziaren eskuetan ezartzeko eta zigortua izan dadin; navahoentzat hobenduna zigortzea baino askoz garrantzitsua da *hozro* deitzen dutena, guk ments dugun kontzeptua, edertasunez eta harmoniaz eratua den zerbait, gauzeekin, ingurumenarekin eta jendeekin ados edo bakean izatea nonbait (*PD*, 24). *Hozro*-tik ahalbait hurbilen egon gura du Cheek eta ondorioz nahiko modu bitxiaz betetzen du bere polizia-lana, gure gozamenerako bazterbideak hartuz maizetan; hainbestearino non gerta baitakioke eoliana itsusi bat sabotatzen laguntzea zaintzeko ordez, horren truke hilketen misterioa zulatzeko behar duen informazioa eskuratzearren. Baina gehiegi esan dut, horixe baita *The Dark Wind* nobelaren ustekabe bat.

Arazoak ez ditu eskas, bai nagusiekin, bai bere buruarekin. FBI-n sartzeko azterketak gainditu izan arren, galdezka dabil ez ote dituen hango maila eta soldata hobeak bazter utziko bere herritarren aldean egoten ahal izateko; bitartean, izugarri gustatzen zaio FBI-rako inkestetan sudurra eta eskua sartzea, herriko

giroa eta ohidurak ongi ezagututa, besteek baino datu gehiago daukalako. Eta dena korapilatzeke, neska anglo-saxoi batekin maitemindu da. Horiei guztiei buruzko gogoetak darabiltza buruan, droga-trafikatzaileen edo hiltzaile profesionalen atzetik dabilelarik.

NAVAHO ETNOGRAFIA

Garrantzi handia ematen dio Hillerman-ek bere eleberrien alderdi etnikoari, eta berdin egingo dugu guk, arlo horretan ikas-teko aukera atsegina ematen baitigu. Frantsesera itzuli aleetan beti bada mapa bat oso lagungarri protagonisten joan-jinak jarraitzeke; eta hiztegitxo bat, navahoen ohiturei, erlijioari, historiari, geografari buruz. Horri esker ongi ulertzen dira osterantzean zentzurik ez luketen gauzak, hainbat pertsonaiaren egintzak eta motibazioak.

Zinez gozagarria da navahoen berri jakitea topiko arruntetatik at. Haien etiketa eta kortesiazko araudi zorrotzek, kasu, gogorazten dute jendetasuna ez dela mendebaldeko hiritarren aurkikuntza eta monopolioa, 'urbanitate' hitzak sinestarazi nahi digun bezala. Hona zenbait adibide. Nork bere burua aurkezteko, filiazio eta familiaren berri ematen du, ez izen-abizenak eta lanbidea (*PD*, 12). Solasetan, mintzakidearen isiluneak errespetatzen dira, haren adierazpenak bukatu arte hitza hartu gabe egoten (*GW*, 2): hala egin behar da batez ere adineko jendeen aurrean (*DW*, 10). Norbaiti etxera joaten zaionean, ez zaio atean joka hasten, ezpabere agerian jartzen, bisita duela jakin dezan eta errezi-bitzeko prest denean atera etor dadin; bitartean kanpoan itxaron, pertsonen intimitatearekiko begirunez (*PD*, 22 eta 28).

Beste alor batean, pasarte ederra eta aipagarria da ehiztariak bere burua nola prestatzen duen deskribatzekoa, edertasunean

nagusitzen ahal izateko bere harrapakinari, gizon bati kasu hone-tan (*DW*, 27). Sorginak ere azaltzen dira, gizonak gehien bat; osterantzean gureak lakoxeak dira: abere itxura hartu eta hegan egiten dute; hilotz-hautsa bota ohi diete jendeei, kaltetzeko asmoz (*DW*, 6).

Errealitate tristeagoak ere ikusiko ditugu: aberastasun handiak gordetzen dituen norberaren lurreen pobre izatea, marginazioan bizitzea, anglo-saxoien jendartean sartzeko tentazioa, edo nahi eta ezina, alkoholak eragiten dituen desmasiak (*GW*, 6); haren men-pean dauden gaixoek beren tradizioko ederbidea galdu dute, zu-rien bizimodua erdietsi gabe (*PD*, 11). Ez zaigu aipatzen hizkun-tzaren arazoa, gauza harrigarria guretzat, jakinik egoera larria dela.

Navahoak 180.000 bat dira gaur egunean eta gehienak 6,5 milioi hektareako erreserban bizi dira. Iparraldetik etorri berriak ziren espainiarrak hara heldu zirenean. Bertan zeuden askoz lehe-nagotik 'pueblo' deitzen diren herriak (Hopi, Acoma, Zuni, Rio Grande-koak...): sedentarioak eta herrixketan bateratuak bizi zi-relako eman zieten izen hori, hain zuzen; nekazariak ziren, orain bezala, artoa, indibaba, piperra eta kuia landatzen zituzten batik bat. Etorkinak, aldiz, aski nomadak ziren XVI. mendean orain-dik, eta ederki erasotzen zituzten laborariak; hortik espainiarrek eman zieten izena: «apaches de navajo», esan nahi baitu puebloen hizkuntzan, «soroen suntsitzaileak»; apatxeei lehen zatia egokitu zitzaien eta bigarrena navahoei.

PUEBLO ETA HOPI ETNOGRAFIA

Navahoenaren erdi-erdian kokatua da hopien erreserba. Pue-bloek ez dute hargatik ahanzten Colorado-ko Grand Canyon-tik Rio Grande-raino hedatzen zela haien tradizioko eremua, eta

beren zirimonietako behar dituzten arranoak hartan harrapatzeko eskubidea eskatzen dute, nahiz hegaztiak babestuak izan eta lurra navahoena edo federala den orain. Desertuan artoa lantzeko ezinbestekoa dituzte udako uharrak, eta otoitzen bidez lortzen ei dute. Hots, Amerikako tradizio askotan (eta gurean ere zerbait), hegazti handiak dira ekaitz-uraren nagusiak, *thunderbird* ospetsuak, eta haien bitartekaritza beharrezkoa dute zeruko bedeinkazioak lortzeko; sugeak ere erabiltzen dituzte, baina horiek zorionez edozein harripetan aurkitzen dituzkete, noski. Ugariak dira, beraz, eremu eta mugengatiko kalapitak, eta iturburu oso sakonekoak. Ez da Hillerman-en lana suari olio botatzea, bai ordea auziaren berri jasotzea eta hartatik hartzea intrigarako elementuak.

The Dark Wind eleberrian erakusten du hopiak eta navahoak zein desberdinak diren, nola pikoak botatzen dizkieten elkarri: navahoei *tuvasuh*, «etsaien buru-apurtzaile», deitzen diete hopiek (*DW*, 1). Eta aldi berean bietako poliziek konplizitatez lan egiten dutela, haien arteko mokokaldiak ez direla deus FBI-koek egiten dizkieten txakurkerien aldean.

Oso jarrera desberdina dute bi herriek heriotzaren aurrean. Navahoek ez dute hilaren izena aipatzen (*GW*, 4), ez dira gorpuaz arduratzen, lehenbailehen hartaz libratu nahi dute, ahalik eta gutien ikutuz, beldurrez. Puebloak, berriz, zurien ohituratik hurbilago dira, zenduak «behar bezala» lurperatzea gustatzen zaie. Horregatik biziki eskertuko dio Chee-k lankide hopiari bere gain hartu izana hilotz baten altxatzea (*DW*, 3). Auzoekiko komunio lirikora ere iritsiko da batzuetan gure navahoa, haien otoitzei esker dakarren euria denentzako zer bedeinkazioa den aldarrikatzen duenean (*DW*, 21).

Sacred Clowns eleberria ere *pueblo* herrietako baten girotua da, *khoshare* deitu maskaratuen inguruan. Pertsonaia horiek, beti

zentzuz beteriko iseka eta gehiegikerietan, antza handia dute Europako ihauteriko batzuekin, maskaradetako kauterekin eta toberetako zirtzilekin, esaterako. Baina ez da harritzekoa, desberdintasun apurren gainetik, munduko kulturak hurbil direla egiazta-tzea.

ANGLO-SAXOI ETNOGRAFIA

Montaigne-ren *kanibalen* eta Montesquieu-ren *pertsiarren* il-dotik, arrotzen begiradaren baliabidea erabiltzen du Hillerman-ek: navahoak hopien arabera, hopiai navahoen arabera eta, azpimarraturik, zelangoak diren anglo-saxoiak navahoen begietan. Adibideak ugariak izanik, bakar batzuk aipatuko ditugu. Gure justiziaren ideiak harritzen ditu navahoak, zein oinarrizko zaigun Talion legea; halaber, ulergaitza zaie dirudun batek lapurretan ibiltzea, beharrik gabe bere buruari kalte egiten diolako: horrela dabilana «haize ilunak» joa, burutik joana da, *hozro*-tik eta edertasunik urrun; egin duen hutsa bezain astakeria da hura zigortzeko gogoa (*DW*, 18).

Amerindiarren ispiluan anglo-saxoiak isladaturik aurkeztea ariketa dibertigarria da, trufatzeko parada. Horra zatitxo bat: «Gaztea zen doktorea, azal larrosa, eta berriz ere harritu zen Jim Chee: zergatik zuriek *azal-gorri* deitu zieten indioei?» (*PD*: 25). Bestalde, ustekeriak oso mingarri zaizkie ikutzen dituztenei. Lurrean utzitako aztarnak irakurtzen biziki trebeak ohi zirela indiar-*rrak* diotsa abokatu zuri batek Chee-ri; horrelako peillokeriengatik ez gaitzitzea saiatzen zen hura, baina gutitan lortzen; orduan egonarri handiaz azaldu zuen bere mintzairan ez zela hitzik 'indiar' esateko, badirela navahoak, hopiai, uteak, apatxeak... anglo-saxoiak *belacani* direla eta mexikarrak *nakai*; batez ere, aztarnak irakurtzen jakiteko ikasi besterik ez dela, edonork egin dezakeela (*DW*, 6).

Beharrik zuri guztiak ez dira zozoak, ez eta navaho guztiak argiak. Unibertsitatean amerindiarren zibilizazioa ikasten zue-
nean konturatu zen Chee neska zuri asko matrikulatzen zela
hartan erruduntasunak bultzatuta, eta mitologiak baino areago
sexu maskulinoko indiarrek erakartzen zituela, izan ere, galdera
hau igartzen baitzitzaien begietan: ea ikaskide berri haiek ohiko
lagun ile-horiengandik oso desberdinak ziren (*PD*, 12). Neska
ile-horiak, bere aldetik, gauza bera somatu du navahoarengan:
«Anglo-saxoia naizelako duk interesa nirekin... Soziologo batek
galdezkatu bezala sentiarazten nauk» (*PD*, 22). Beraz, parti-
duaren bukaeran, biok berdin. Eta kontua ez dateke berria, jada-
nik kuriositate bera zukeen Romeok Julietaren eretzean.

Kultura desberdinen etnografiak estakuru, antropologia egi-
ten du Hillerman-ek eta, erreflexio-jokoaren bidez, jendekiak oro
antzekoak garela adierazi nahi diguke, funtsean. Ez baitzaigu
itsusi.

Nago Amaia Ezpeldoik ere pozik irakur litzakeela bere heroi
kuttunaren abenturak euskaraz. Noiz egingo digute oparia euskal
itzultzaileek?

(*) Aipamenetako siglak eleberrien izenburuen laburdurak dira (*CD* = *People of Darkness*; *DW*
= *The Dark Wind*; *GW* = *The Gostway*). Zenbakiak kapitulura bidaltzen dute eta argitalpen
guztietako balio dute.

AIPATU LIBURUAK

HILLERMAN, Tony.

1980. *People of Darkness (Ilunpeko herria)*. Warner books.

1992. *Le peuple des ténèbres*. Rivages.

1982. *The dark Wind (Haize iluna)*. Warner books.

1992. *Le vent sombres*. Rivages.

1984. *The Gostway (Mamu-bidea)*. Warner books.

1992. *Le chemin du fantôme*. Rivages.

1993. *Sacred Clowns (Zirtzil sakratuak)*. Penguin books.

1994. *Les clowns sacrés*. Rivages.

BORDA, Itxaro.

1996. *Munduan bizi nizen*. Susa. Donostia.

1996. *Amorezko pena baño*. Susa. Donostia.

People of Darkness (PD)

PD: 3-34 (Uda bukatzen denean hasten da «la Saison-où-Dort-le-Tonnerre»)

189. Ceux du Dinee n'aiment pas parler des morts, ni des sorciers. Prononcer le nom d'un sorcier mort est doublement dangereux.

PD: 22-179. un professeur qui expliquait Shakespeare prétendait que Roméo avait un devoir à faire sur les Capulet (Montague zen) pour son cours d'études sociales, que tout ce qui l'intéressait c'était de savoir comment le cerveau de Juliette fonctionnait.

bilatzeko: enfasiak eta begiradak ez dira politesia

The dark Wind (DW)

PD: 5-56 Navaho bat etxe ondoan lurperatu du zuri batek: les blancs ont quand même de drôles de coutumes. Il ne parvenait pas à saisir l'attitude des blancs à l'égard du cadavre.

PD: 12-100: Erdi navajo eta erdi akoma den batek dio hiltzei dagokienez navaho dela eta ez duela bere aitaren gorpua nahi, baina amak segur izan nahi lukeela behar bezala lurperatua izatea.

PD: 17-148. Erizainak dio: «En règle générale les indiens ne veulent pas qu'on pratique l'autopsie. Chee ne la contredit pas. Mais la majorité des navahos considèrent les autopsies avec encore moins de répugnance que les blancs. Ce sont les Pueblo qui ont tendance à s'y opposer, leurs morts doivent être enterrés pendant le cycle solaire de leur décès; il leur faut entreprendre un voyage de 4 jours, impétrativement pour conduire leur âme vers l'éternité. Mais pour la plupart des clans navajo la mort ne produit guère qu'un fantôme éphémère et malfaisant, pis la conscience de l'homme disparaît dans un oubli éternel. Ils ne font guère de sentiment à l'égard des morts». (Eta ez dute haien izenak esaten.)

280. Desertua airetik eta gauaz, linternen argietara lurrartzea: Upfield oroitzapena?

Hasiera (1, 2 eta 3): 1) Navaho hila, atzamar eta behatz mamiak kendurik. 2) crah: ekintza bat huts egina -crash- eta mementu horretan bestera pasatu. 3) haizerrotaren sabotaia, Trading Post-eko lapurketa.

338 (DW: 9) Hopien iturri sakratu bat Walpi herriaren lurreen dela dio hopi batek. Navahoen ustez lur horiek hopi eta navahoentzat amankomunak ziren, baina ez zuen ezer esan, ez zen lur amankomunei buruzko kalapita pizteko ordua.

DW: 5-300 Navaho eta Hopi-en artean badira kalapitak, baina ez dira ezer zuriekin dituztenei aldean: FBIkoek navaho polizia gaizki tratatzen dute, jo ere bai. (ikus geroago)

DW: 6-304 Navahoen ustez sorginak zakur edo ontza bilaka daitezke, hegan egiten dute, eta kalte egitea dute helburu, eta hilotz hautsa erabiltzen dute (Black Mesako zolan dagoen gizon zahar batek bere hoga-en teilatuak zaratak entzun eta tximiniako zuloetik zerbait erortzen ikusia zuela, beharbada edozein zikinkeria, baina beharbada hilotz-hautsa, sorginak botata...)

DW: 6-306 Hopien ustez bihotz bikoitza dute, jendeena eta animaliena.

DW: 6-312 Ghisi familiako burua emakume bat da.

DW: 10-344 Sherif-orde hopiak zahar bati galdegiten dio ea ezagutzen duen aurkitu duen gorpua. Haren erantzuna: «Navaho guztiak...» hasi zen, zeguraski «berdinak direla» buka-tzeko. Geroago (373-16) sherif-orde hopiak: «Arazoa da navaho guztiek elkarren antza dutela eta ez dakigu nor atxilotu behar dugun».

DW: 18-386 Hopi Cultur Center-ko moteleko zebitzaria neska gaztea da, turistak gogatzeko, baina Chee-ren ertzean ez zuen alegin berdina egin: hori da hopiek navahoeekin duten jarrera. Chee, besteak beste, etnien arteko liskarretaz pentsa-tzen ari zen. Navaho eta hopien arteko abstrakzio batean oinarritua zen, mitoetan, baina lur amankomunak zirela eta, konkrezio oso zehatzena haragitua zen. Auzitegi Gorenak epaia eman zuen, hopiek irabazi eta 9000 navahok gogora-tzen zuten herri bakarra galdua zuten. San Francisco mendia bera biezkatzen zen sakratua, izpiritu Katxinen bizilekua hopientzat, beren eremua mugatzen duten lau mendietako bat Navahoentzat.

DW: 21-420 Desegokitzat zuen Hopiek aukeratu bizimoldea, elkarren ondo-ondoan metaturik, herri txikitxuetan, arnasteko ere lekurik gabe. Bere herriak justu alderantziz egiten. Naturaren legea, dohakabe: Hopiak bildurik eta Navahoak barreiaturik... (Mendebalerantz zetoarren ekaitz-hodei gris-beltza, arratseko eguzkiak gorri-arrosaz tindaturik: horrelakoak Hopientzat sinbolismo sakratuz beterik zatekeen, Navahoentzat ederra besterik gabe).

Ingeborg BACHMANN. 1987. *Tres senderos hacia el lago*.
 Madril: Alfaguara.

Tres senderos hacia el lago

Austrian jaio zen, 1926an, eta Erroman hil, 1973an. Baina utz diezaiogun berari bere burua aurkezten: *Nire gaztaroa Carintian pasa nuen, hegoaldean, muga, bi izen dituen haran batean -izen aleman bat eta esloveniar bat. Eta nire arbasoak -austriarrak eta alemanez mintzatzen ziren esloveniarrak-, belaunaldi askoren ondoren, bizi izan ziren etxe hark oraindik ere izen atzerritarra du. Horrela, mugatik hurbil beste muga berri bat: hizkuntzarena... Nik uste dut haranaren hertsitasunak eta mugaren kontzientziak urru-neko herrien mina sortu zuela niregan.*

Bestalde, zein idazle gustatzen zaion edo noren eragina duen galdetzean, honako hau erantzun zuen: *Azken aldiko idazleen artean... Gide, Valéry, Eduard eta Yeats... Baina... batez ere mitotetan hain aberatsa den nire aberriko mundu hori... hizkuntza asko mintzatu eta muga ugari dituen mundu hori.*

Ingeborg Bachmann-ek 1946an argitaratu zuen bere lehenengo istorioa aldizkari batean, eta handik bi urtera lehenengo poemak. Ordutik aurrera, poema ugari (ehunen bat), bi eleberri, zenbait istorio, antzerki eta abar.

Thomas Bernhard-ek Alemaniak mende honetan eman duen poetarik argien eta garrantzitsuentzat izendatu zuena gazte-gaztetatik bihurtu zen gerra osteko idazle ospetsu, eta sari ugari jaso

zituen bere bizitzan zehar: 1952an *Groupe 47* deiturikoarena (talde horrek garaiko zenbait idazle biltzen zituen, hasi berriengan eragin nabarmena izan zuelarik), 1956an Bremengoan, 1964an «Georg Biehner» sonatua eta 1968an Austriako Estatuak ematen duen Sari Nagusia, besteak beste.

Kritikarien iritziz, bestalde, Ingeborg Bachmann-ek –Celan Aichinger eta beste batzuekin– aro berri baten hasiera markatzen du, hau da, neorrealismoaren bukaera eta Alemaniako literaturak Europako modernotasunarekin izango duen lotura.

1950. urte inguruan idazten dutenak faxismoan inolako erantzunkizunik izan ez duen belaunaldi batekoak dira, eta hor koka-tzen da, dudarik gabe, idazle hau. Faxismoaren ondoren, belau-naldi horrek aldaketa sakonak espero zituen, baina euforia garaiak gutxi iraun zuen, eta ostean etsipena nagusitu zen. Idazle gazteok ez zuten izan nahi beren gurasoen epaile, baina oraindik ez zien eskaintzen etorkizun hobe baten seinalerik. Horrela, beren ga-raiko errealitatearekiko konpromezua bilatu zuten, estetika berri bati helduz. Esan daiteke, beraz, estetika moderno horren teknika eta prozedurek halako funtzio liberatzaile bat izan zutela idaz-leontzat.

Adituen ustez, Ingeborg Bachmann-en hizkuntzaren (eta erreali-tatearen) ikusmoldeak Wittgstein eta Heidegger dakarte gogo-ra (Bachmann-en doktorego-tesia Heidegger-en filosofia existen-tzialistari buruzkoa izan zen). Eta, hain zuzen ere, beraren grina existentzialak bereizten du garaikideengandik. Bachmann-ek egia esatea du kezka nagusi, behin artikulua batean zioen bezala.

Bi ardatz nagusi ditu haren obra guztiak: denbora eta hizkun-tza. Denborari dagokiolarik, beraren kezka ez da denbora biolo-gikoa bakarrik (*bakarrik nago nire hiltzailearekin, Denborarekin*, zioen batean), bizitzea egokitu zitzaion denborak ere kezkatzen baitzuen.

Zer esan, bestalde, hizkuntzaz? Nire ustez, azpimagarriena bakoitzarekin duen harreman erotikoa: ironia, hitz-jokoak, hitzen jatorrizko esanahia kolokan jartzea... hori da Ingeborg Bachmann-ek atsegin duena. Horretan da irakasle nagusi idazle austriarra. Honako liburu honetan, berriz, lehengo ardatz horiei beste bat gehituko nieke: inkomunikazioa

Thomas Bernhard-ek honela definitu zuen behin Ingeborg Bachmann: «Beti zegoen ihesean, eta beti ikusi zituen gizonak benetan diren bezakakoak: masa obtuso bat, izpiriturik, takturik eta eskrupulurik gabea, zeinarekin hautsi beharra baitzegoen». Aurrerago, berriz, honela zioen: «Hark, nik bezala, oso azkar aurkitu zuen infernuko sarrera, eta infernu horretan sartu zen, garaiz aurretik galtzeko arriskua izanda ere».

Eta infernua izan behar zuten idazle honentzat emakumeen eta gizonen arteko harremanak. Nola esan, bestela, honako hau: «Faxismoa ez da hasten erortzen diren lehenengo bonbekin... Giza harremanetan hasten da. Faxismoa gizonen eta emakumeen arteko harremanetako lehenengo elementua da... Gure gizartean beti dago gerra. Ez dago orain gerra eta gero bakea, ez dago gerra besterik».

Horrela zioen egileak, baina istorio hauetako protagonistek (emakumeak guztiak) amorrua baino gehiago etsipena sentitzen dute, inkomunikazioa nagusitzen baita maitasun harreman guztietan.

Liburuari izenburua ematen dion istorioa 1970ean argitaratu zen; honako bilduma hau, bestalde, 1972an, hil baino urte bete lehenago.

Bost istorio biltzen ditu liburu honek, zenbait elementu amankomun dituzten bost istorio.

Hasteko, protagonista guztiak emakumezkoak dira; emakumezkoak eta nahikoa atipikoak: miopia arazoak izanda ere gauzak

oso garbi ikusten dituen bat; zeregin handirik ez eta bizitzako unerik hoberenak ileapaindegian ematen dituen beste bat; edo interpretari lanetan aritu eta hizkuntzek ezer esaten ez dioten hura.

Bestalde, planteiatzen diren bikote-harremanak ere nahikoa bereziak dira: protagonistetako bat homosexual batekin ezkon-tzen da, adiskidetasunean oinarritutako harremana sexuan oina-rritutuakoa baino iraunkorragoa izango delakoan; beste batek, berriz bere herriko mutil bat ezagutu eta asteburu bat pasatzera gomitatzen du, nazkatuta baitago, interpretari lana dela eta, berea ez den hizkuntzetan mintzatzen.

Lehen esan dugu Erroman hil zela, eta ez zen kasualitatez gertatu. 1950an, Austrian, errestituzio politikorako aro berri bat sortzen da, baina aurreko faxismoarekiko hausnarketarik egin gabe; ez zen onartzen inolako erru edo erantzunkizunik. Ingeborg Bachmann ez zen oso eroso sentitu egoera hartan; horregatik, 1953an Italiako bidea hartu zuen. Alemanez idazten zuten beste idazle askok bezala, idazle austriarrak herbesterako bidea hartu zuen. Antzaenez, hil zen urtean Austriara itzultzeko asmo sendoa erakutsi zuen, baina Heriok ez zion bere ametsa betetzen utzi.

Frantsesera itzulia:

Trois sentiers vers le lac. 1992.
10/18 Domaine étranger.

Iñigo ARANBARRI, Koldo IZAGIRRE. 1997.

Juan Bautista Elgezabal «Batxi».

Donostia: Susa.

Idazle errimeea

Literaturaren historian gutxitan gertatzen dena da, itxuraz, iraganari buruz diren orrialdeei ezer berririk gehitu beharra. Horrez gainera, zeozer gehitu beharra izaten denean ere, idazle jakin baten lanaren alderdi ezezagunen bat argitaratu delako izan ohi da, eta ia inoiz ere ez da izaten egilea bera ezezaguna izan delako. *Ordura arte ezezaguna* esan nahi dut. Bada, halako egile baten berri jakin genuen iragan urtean, Juan Bautista Bilbao Elgezabal. «Batxi» dugu gure literaturaren orrialdeetara etorri den azkenaurreko *ezezaguna* «Hau mundu arrano hau» da haren lanari eman dioten izena, hura hil eta laurogei urte beranduago ezarria.

Batxiren lana argitara ekartzearen erantzunkizuna hartu dutenak Iñigo Aranbarri eta Koldo Izagirre izan dira, liburuia gainbegiratu duen edonork dakien legez. Esan beharrekoa da, bestalde, azpimarratzekoa den beste alderdi bat dagoela, alegia, egin duten lana beste lan zabalago baten emari *ustegabekoa* izan dela. Oso eskuragarri ez dagoen *Gerraurreko literatur kritika*, Labayru Ikastegia eta Amorebieta-Etxanoko Udalaren artean argitaraturiko liburu funts-funtsezkoa prestatzen zihardutela, Batxiren berri izan zuten Gipuzkoako ikerlariak. Eta harritu ere egiten ziren, hitzaurrean dioten legez:

Nor ote da hildakoan Kepa Enbeitak lantua jotzen dion hau? Nor ote da euskal literaturaren historiak egin diren liburu guztietan aipurik ere merezi ez duen idazle hau? Nor ote da bera ez dagoelako euskal idazleen lehen batzarra atzeratu egiten duten hau? Nor ote da libururik gabeko idazle hau? Nor ote da kirikiñok «idazle errimeak» esaten dion hau? Nor ote da Batxi? (*Hau mundu arrano hau*, hitzaurrean).

Literaturaren historiako eskuliburu guztietan laster agertuko den fitxak ez du Batxiren datu lar jasoko, egon ere apenas baitago halakorik. Badakigu 1887an jaio zena, Arratzun. Gernikatik hurbil. Gazte-gaztetan hasiko zen itsasora, bai, hogeita hamar urte bete gabe hil zen gizon gazteak «hamazpi daroadaz ur gainean» baitiotso Kirikiñori. Hortik atera kontuak.

Adinaren kontuak eginda, ezinbestez datorkigu burura itsasora hamabi urterekin, hortxe hortxe, hasitako hura *buruikasía* behar zuela. Derrigorrez. Eta izan ere, halaxe da. Euskarazko kazetaritzaren historian, eta horren ariketa-liburuetan ere, leku eske diharduen Batxik bizkaiera eder jantzi batean idazten zuen. Argitaratu zituen lan gehienak Euzkadi egunkarian daudela eta, «janzte» lan horretan Batxi ez den beste inoren baten eskua ere sumatzen delakoan daude Aranbarri eta Izagirre. Zelan ere den, digante baten taxua hartzen zaio, lan egitearen moduaren aldetik behintzat, Batxiri.

Esan dudan legez, itsasora oso gaztetan hasi zen, txo edo multixiki ziur asko, nahiz eta kronikak idazten dituen aldian hornikari edo maiordomo zereginetan ziharduen. Bada, goizaldeko orduak erabili ohi zituen bere burua jakintzaz janzteko eta zeredozer idazteko. Horretara, euskara eta gaztelera ezeze, beste hainbat hizkuntza ere ikasi zituen, bere kronikak irakurriz jabetzen garenaekin bat. Irudikatu egin behar da, gero, gizon gazte hura, hamazortzi urtekin aita izana eta ontzian ere ardura handiko

zereginean ziharduena, bere ganbarako bakardadean lanean. Izan ere, abertzalea zen eta, abertzaletasunak ematen ote zion indarra? Ezezkoan nago. Batxiren kemenaren iturbegia kizkuntzarekiko maitasunean dago, nik uste. Maitasun horrek eragiten dio beste guztia.

Badakit hizkuntza maitatzearena eta halakoak aipatuz gero bide irristagarrian sartzen naizela, zorioneko maitasun hori hartu baitute aitzaki Batxiren beste muturreko idazleak direnek, hots, euskaraz *folka* egin dutenek, hala nola, Kirikiñok berak zenbaite-tan. Batxik euskarari dion maitasunak hizkuntzaren barne-ezintasunak eta oztopoak gaingiditzez arren ahaleginak egiten laguntzen dio, Arratzukoak denean eta denetarako gai nahi baitu euskara. Ez dabil, bada, mundu zabalean harat-honat itsasoak hausten? Beraz, itsasote horietan gertatuak inguruko beste edozein hizkuntzatan idatz daitezke eta, zer dute beste hizkuntza horiek euskarak ez duenik? Horrela galdetuz gero, «Langile porrokatuak», erantzun-go luke Batxik, ia ziur.

Goiko planteiamendu horrekin, munduko portuetan ikusten duenaren berri ematen dio Batxik irakurle garaikideari, hots, Lehen Mundugerrateko 1914-16 urteetan bizi denari. Haatik, eta idazle sena arnastu zuen lehenengo haizeak eman ziolako edo, kroniketan literatura egiten du. Eta zein literatura ederra den Batxirena.

«Hau mundu arrano hau!» eleberria balitz moduan irakurtzen da kasik. Hasteko, kroniken irakurketan aurrera egin ahala narra-tzailearen beraren erretratu osotuz goaz, idazlearen asmoa horre-la izateko pentsatu zituenentz ez dakigun arren. Bigarrenik, bizi dituen giroak paperera bizi-bizi ekartzen daki. Hirugarrenik, ez du falta, ez, kronika jakin bat edertzearren han-hemen sarturiko zertzeladarik ere, hots, gertaerak eta bere subjektibotasunetik eto-rritakoak polito uztartzen ditu, asmatu egiten baitu, bai, eskuar-

tean duen lanaren mesedetan asmatu behar denean. Bada, txertatze-eta sortze-lan horretan hainbat pertsonaiaren erretratu laburbizikiak eskaintzen dizkigu. Egiteko modu horren gailurra, asmatuaren eta jazotakoaren arteko jokoaren gorengo maila, «txapel» ezizeneko baten erretratuaren bidez iristen du, nik uste. Baina, azkenik, Batxiren lanean bada beste ezaugarri bat ere, «Hau mundu arrano hau!» liburuari eleberri-kutsua edo, gutxienez, oroitzapen-liburu biziarena ematen diona, hurrengo lerroetan azaltzen saiatuko naizenarekin bat.

Esanda utzi dut nortzuk ekarri diguten Batxiren berri eta aipatuztat jotzen dut horiek liburuari jarri dioten hitzaurrea ere, hortik atera baititut idazleari buruzko fitxako datuak. Bada, fitxa hori ganoraz osatzeko behar diren datu horien artean heriotzarena izango genuke faltan iruzkin honetan. Hala eta guztiz ere, nahia-go dut datu hori hemen eman ez eta irakurleari berari utzi bilatzen. Bilaketa horri zuzenean ekitea gomenduko nioke nik edonori. Liburua hartu eta Gibraltar-tik (1914ko urtarrilean) izeneko irakurriz hasi, Aranbarri eta Izagirreraren hitzaurrea irakurri gabe, horrela egin dut nik. Eta, *hau mundu arrano hau!* oroitzapen-liburu erdiragarri baten moduan irakurri dut. Gero, irakurketa amaitutakoan, hitzaurrera jo dut. Eta labur eritzi diot. Jakina, hor esaten dena baino gehiagorik ez dakigu. Oraingoz behientzat.

Jon ARRETXE. 1997. *Ostegunak*.

Donostia: Elkar.

Bost Ipuin

Nork zioen euskal literaturan umore eta ironia gutxi erabiltzen zenik? Azken urte hauetan, bederen, uzta ugalduz joan dela esan dezakegu, Xabier Montoiaren *Emakume biboteduna* bikain eta gazi-gozotik hasita, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* arrakastatsuaeren «boom»-erarte, nahikoa bide ezberdinetatik abiatzen diren bi bakarrik aipatzearren. Ildo honetan kokatu beharko genuke *Ostegunak* hau, nahiz eta ez duen lortzen, inondik ere, ez aurretik aipatu-takoen maila, ez eta, nire ustez, egileak berak ipuin hauek idazte-rakoan agian zeukan helburua bera ere.

Liburuaren hasiera bera susmagarria da, eta soberan dagoela esango nuke: bertan agertzen diren kontakizunek mindu dezake-ten talde eta pertsonen zerrenda egin ostean (ipuinak aski laido-garriak izan ez eta egileak agian minduko ez direlakoan), azpima-rratzen digu ipuinetan azaltzen diren iritziak ez datozela bat idaz-learekin. Jakina! Ez digu Arretxek irakatsiko Cervantes Mantxako Quixote bezain ero ez zegoela, ez eta Dashiell Hammet-ek bere detektibeen biolentzia eta hilketarako grinarik ez zuela. Ez dut uste zeregin literarioak halako sarrera-makulu zabarrak behar duenik.

Ostegunak bost ipuinek osatzen dute. *Tuna-fish komandoa* dugu lehenengoa, akaso liburuko hoberena. Gasteizko Soin-Hezkuntzako ikasleen eta tunoen arteko liskarretan oinarritua,

indarrez beteriko hasiera du, ironikoa, irakurtzen jarraitzera bultzatzen duen horietakoa, nahiz eta kontakizunaren garapenak ez duen agintzen zuena guztiz betetzen. Ni bezala Gasteizko gauak EKIkoa izan gabe bizi izan zituen batentzat ikasle haien txandalarrekiko grinari garrantzi gutxiegi ematen badio ere, *divertimento* bezala aski ondo funtzionatzen duela esan daiteke. Ipuinari ematen dion konponbidea bortxatuegia gerta badaiteke ere, liburu honetako beste ipuinek pairatzen duten sinesgarritasun falta nabarmena gairatzen du, umoreari esker hain zuzen ere.

Teletienda: amodiozko istorio labur bat eta *Unibertsitateko harakinak* oso gai desberdinetako liburu honetako bigarren eta laugarren ipuinak izanda ere, elkarrekin iruzkinduko ditut, besterik gabe, txarrak iruditzen zaizkidalako. Literarioki intraszendenteak, ez diote ezer berririk ekartzen ez ligatu-ezinean-dabilen-euskal-ikasle-gizagaixoaren gaiari (aipatu lehenengo ipuina), ez eta ekaineko azterketen azpigeneroari ere (bigarrena). Zertxobait lasaituko nintzateke, baina, Arretxek gartzaroan idatziriko ipuinak direla jakingo banu, zaila iruditzen baitzait hogeita hamar bat urterko pertsona batek halakorik idaztea.

Malagueña salerosa hirugarren ipuinak, lehengai hobeagoak izanda ere, ez du liburu salbatzen laguntzen. Narrazioaren koherentzia edo trinkotasunari min egiten dioten xehetasunak alde batera utzita (zein da, adibidez, Ozpin pertsonaiak betetzen duen errola? Soberan dagoela dirudi eta, edozein kasutan, ipuina, luzatzen baino ez du laguntzen), Besteen (hots, euskaldunak ez direnen) topikoekin jolasean ibiltzearen arriskuak aski ondo islatzen ditu; kasu honetan, ligatzeko sasoiak dabilzan andaluziar edo malagar neskeen topikoak. Ipuinak ez du aski interesgarriagoa iruditzen zaidan euskaldun oporzaleen lohikerian sakontzen eta, gainera, kontatzeko erak nolabaiteko misoginia-punttua ere badu. Baina, noski, alde honetatik lasai egon gaitzke, Arretxek liburu-hasiera-

tik abisatu digulako «ipuinetan azaltzen diren iritziak ez datozela bat, derrigorrez, (...) idazlearen iritziekin...».

Atsoak-k ematen dio liburuari amaiera: lehenengo kontakizunean bezala, sinesgarritasuna da nagusi, umorea bera ere gailenduz kasu honetan. Ez dut esan nahi bertan deskribatzen zaigun ikasle-etxea bezalakorik egon ez denik: agian guztiz errealak diren gertakizunetan oinarritutako ipuina dugu. Baina kontatzeko erak kontrako ondorioa lortzen du: ikasle-bilduma, arketipoz beterikoa, zabalegia da; gertakarien hariak multipleegiak dira; etxeko jabeen senidea den atsoaren etorrera bera sineskaitza da; Txabiren istripua eta aldaketak, ordea, azalpen sakonagorik merezi duela deritzot... Une pozgarriak baditu ere, orohar «Atsoa» hau ere ahalegin *raté* bat bezala kontsidera daiteke.

Liburuak nahikoa arrakasta izan omen du: nik, bederen, fakultateko ikasle batek gomendatuta (eta gogoz) erosi eta irakurri nuen: bere alde, motza eta arina dela esan beharko nuke. Edozein ere, halakoak ez dira soilik gure artean gertatzen. Edozein herrialdetako liburu salduenen zerrenda begiratzea aski da konturatzeko horien artean literatura *ona* salbuespena dela. Gil Berak esaten duen bezala (*Ostia* 9, 23.orr.) «edozein literaturan gehiena zaborra da», baina gure literatur-mundu nimiñoan ez dugu literatura ona, ez hain ona eta kaskarra desberdintzeko ohiturarik, ez horretarako tresna ikonografikorik (bilduma ezberdinak, adibidez). Lagun batek esan zidan, behin, euskal literaturak abenturazko eleberrien eta best-sellerren beharrean zegoela, hots, «bigarren mailako» literatura baten beharrean. Euskal Herrian, ordea, argitaratzen den oro kontsideratu nahi dugu literatura garaia. Eta, halaxe, Jon Arretxeren liburu hau ager daiteke, liburudendako apal txukun batean, bere argialetxeko bilduma berberak plazartutako Joseba Sarrionandiaren, Mercé Redoredaren edo John Steinbeck-en lanen artean. Enpin.

Félix de AZÚA. 1993. *Historia de un idiota contada por él mismo.*

Barcelona: Compactos Anagrama.

Trufaka idaztea

Félix de Azúa, gehiago edo gutxiago, segitzen dugunontzat adierazgarriak dira liburuaren azken aldeko hitz hauek: «Haurtzaroko eszena bat gogoratu nuen. Ni baino zaharrago zen lehengusinak zina eraman gintuen txikiok, Eguberri arratsalde. Koloredun zinea ikusi nuen lehen aldian izan zen, agian. *Urpeko mundua* izeneko dokumentala ematen zuten, zientzilaria frantziar batek haurrei begira eginiko dibulgaziozko lana. Erabateko plazerrezko sentsazio mingarriak egin ninduen bere. Mundu IKUSTEZIN hartako koloreak, fantasia, are munstrokeria ere, gehiegizkoak ziren niretzat. Hortaz, handik bost minutura hasi nintzaion lehengusinari galdetzen zoro temati baten antzera, ea asko falta zen filmea bukatzeko. Bost minuturik behin errepikatzen nuen nire galdera, *asko falta?* Ez al da berehala bukatuko?, eta nire lehengusinak gero eta nardatuago erantzuten zuten. Berak ezin zezakeen uler bere bizitzan lehen aldiz plazer KONTZIENTEA aurkitzen ari zen haur haren ezinegon itogarria, etsipena sentitzen zuten, ikusirik plazer izugarri hori DENBORAREN MENPE zegoela. Zergatik bukatu behar zuten filmeak? Hori bezalako gauza batek betirako behar zuten, edo bestela EZ ZUEN IZAN BEHAR. Nola onartuko zuten haurrak inork gortinatxo zabaltzea eta gero, be-

rriz ere, ixtea? Nahikoa daukazu, zioen gortinatxoaren jabeak. Baina nik ez nuen nahikoa.

Ene aburuz, mundua mugitzen duen motorretako bat duzue hau, edonork ulertzeko moduan adierazia, sakontasun gramorik ere galdu gabe, bere sinplean.

Izutzen duen denboraren menpeko plazer horrek zorabiatu-rik, artegaturik, asalaturik, haurrak, gizon bihurtu ahala, azalpen bat behar du. Plazer iheskor eta konprenigaitzak sortu ezinegona da kontraeraren protagonista zoriontasunaren edukinari buruzko azterketa egitera bultzatzen duena. Bere ikerketaren ibilbidean alor asko jorratzen ditu zoriontasunaren bila. Eginiko joan-eto-riek (sexua, politika...) arteraino, literaturaraino, batez ere, eramaten dute. Ikerketaren emaitza ezin daiteke zoritxarrekoagoa izan; edozein ikasbideren muturretan absurdua baizik ez da bizi.

Ondorio erabateko eta etsipen eragingarri hau ezin argiago gelditzen da Barras (Barral?) argitaletzeko pasadizuarekin. Nazionalista katalandarren kultur-asmoa premiazkoa da (mendebaldeko tradizio kulturalako korrante guztien ordezkariarik, urte gutxi-
ren buruan, katalaneraz edukitzea), eta hortaz, farregarria. Baina nazionalista ez den argitaletzeko adarrak proposatzen duen eredu literarioa (berrikuntza literarioaren paradigma bezala aurkezten den *Gusanera* izeneko liburu-adreilu bat) ez da hobeki ateratzen: «hauxe esan nuen: egileak ez zuela ausardia edo zuhurtzia izan bere eromena termino artistikoetan emateko, eta bere eromena gordin-gordinean baizik ez zuela eman». Idazten eta sekula argita-
ratzen ez zituen orriek inguraturik bukatzen du narrazioa prota-
gonistak.

Hau dena Azúaren prosa dirdiratsu, alanbikatu, paradoxiko eta maltzurtean emana. Azúak, beti ez bada askotan bederen, narratibaz maskaraturiko saiakerak idazten ditu, liburu hau ho-
rren adibide. Azúak pentsatzen jartzen gaitu, haserrarazi giten

gaitu. Irakurleaz trufatu egiten da, kupidagabe. Gaiztoa da. Bere buruaz trufatzen den heinean onartzen dugu, irri ere eragiten digulako barkatu ere egin dugu, eta ideiak lantzen dituelako, maitatzen.

Hegats 19/20

1998ko ekainean Nafarroan
inprimatu zen



Hegats

19/20

Literaturbideak

BUKOWSKI.

Lau poema.

ITZIAR LAKA.

Rosario Zubikarairen jaiotzaz.

INAZIO MUJICA.

Emakumeen lur ezkutua.

Kritikabideak

ANTTON LUKU.

Bidaia literaturan.

Itzulpengintza

TERE IRASTORTZA.

*Itzulpenaren norabide eta
noragabeak*

XIPRI ALBERBIDE.

*Itzulpengintzaren ateka eta
autobideak.*

JUAN MARI IRIGOIEN.

Itzulpenaz eta hartaz.

J. K. IGERABIDE.

Itzulpena: kulturaren sintesi-bide.



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA